



Mundu desorekatu honen 100 irudi

Bob Sutcliffe

Mundu desorekatu honen 100 irudi

Bob Sutcliffe



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAIFENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTOA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Mundu desorekatu honen 100 irudi

Egilea
Bob Sutcliffe

Itzultzaileak
Elena Martínez (Koordinatzailea)
Efren Areskurrinaga
Xabier Barrutia
Eduardo Bidaurretzaga
Joseba Garmendia
Igor Goñi
Gaizka Insunza
Jon Larrañaga
Mertxe Larrañaga
Aritz Legarreta
Juan Carlos Pérez de Mendiguren
Unai Villalba
Mikel Zurbano

Orrazketa eta zuzenketa
Irati Susperregi

Gastelerazko bertsioaren izenburua: *100 imágenes de un mundo desigual*.

2005ean Icaria argitaletxeak eta Intermón-Oxfam erakundeak argitaraturik.
Bartzelona. (www.icariaeditorial.com) (www.IntermonOxfam.org)

Euskarazko bertsio hau 2008an argitaratu da. Online formatuan egonik,
interneten eskura daiteke, erabiltzaileak askatasun osoz irakurri edo inprimatu
ahal izanez. Testua HEGOAREN, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari
buruzko Ikasketa Institutuaren, ondoko webgunean eskuragarri dago:
www.hegoa.ehu.es.

ISBN: 13-978-84-691-2577-9

Gordailu zenbakia: 08/31492

AURKIBIDEA

Sarrera: desberdintasunez betetako gure mundua Datuk, grafikoak eta testua Ohiko kontzeptu teknikoen glosarioa Esker onak

I. Ekoizpena, lana eta errenta

1. Iparraren eta Hegoaren arteko oinarritzko desberdintasunak
2. Ekoizpeneko eta laneko egituren kontrastea
3. Ekoizpen-egiturak
4. Diferentziak lan-indarrean, 2000
5. Munduko langileen jarduerak: landa, fabrika eta bulegoa
6. Klase sozialak eta errenta: Argentina eta Brasil
7. Lanorduak I
8. Lanorduak II
9. Errentak alderatzeko bi modu
10. Lanarekin eros daitekeena, 2003

II. Errentaren desberdintasuna

11. Errentaren desberdintasun-mailak
12. %10 aberatsenak jasotzen duena
13. Nor da hiper aberatsa?
14. %10 txiroenak jasotzen duena
15. Nor da txiroa?
16. Desberdintasun-aldaketen bi adibide
17. Desberdintasunaren hazkundera AEBetan, 1960–2001
18. Munduko banaketa I: desberdintasunen hiria
19. Hiriko xehetasunak
20. Munduko banaketa II: desberdintasunen eremua
21. Munduko banaketa III: altua, baxua eta batez bestekoa
22. Lanaren ordainsari desberdina
23. Errentaren eta giza garapenaren alderaketa

III. Desberdintasunak jaiotzan, osasunean, bizitzan eta heriotzan

24. Munduko biztanleriaren egitura
25. Bizi-itxaropenean dauden aldeak
26. Trantsizio demografikoak
27. Biztanleria-egituren alderaketa
28. Biztanleriaren gutxiengoa
29. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzionaltasuna
30. Emakumezkoen bizi-itxaropena, gizonezkoekin alderatuta
31. Gizonezkoak eta emakumezkoak: adinaren, garaiaren eta garapenaren eragina
32. Gizonezkoak eta emakumezkoak: geografiaren eta migrazioaren eragina
33. Heriotza-tasa desberdinak
34. Hilkortasuna: klasearen, sexuaren, adinaren eta etniaren eragina
35. Sexuaren araberako ratioa Txinan eta Hego Asian
36. Emakumezkoen gehiegizko hilkortasuna eta zenbait eragile
37. Heriotzaren eragileak, 2002
38. Inokulazioaren eragina
39. Haurren heriotza-tasa
40. Klase sozialaren eraginak haurren heriotza-tasaren gainean
41. Trantsizio epidemiologikoa
42. Gaixotasun-zama
43. Heriotza-ereduen aldaketak
44. Osasun arloko gastuen inguruko desberdintasunak
45. Familien eta etheen tamaina

IV. Lurra, nekazaritza, elikadura eta gosea

46. Planeta zatituz
47. Lurraren banaketa
48. Nekazaritza-eredu desberdinak
49. Errendimenduak eta iraultza berdea
50. Nutrizioa: kalorien eskuragarritasun desberdina
51. Desnutrizioaren eragina

52. 20 urteko arrakasta eta porrota elikadura-ekoizpenean
53. Elikadura-krisiak Afrikan
54. Alderatutako bi dieta
55. Desberdintasunak txiroen artean I
56. Desberdintasunak txiroen artean II
57. Desberdintasunak aberatsen artean
58. Kantitatea eta aniztasuna: Espainiako eta Bangladesheko dietak
59. Animalien eta landareen proteinak
60. Oinarrizko elikagaiak

V. Desberdintasunaren iturri anitzak

61. Ordainsarien desberdintasunaren bost iturri: Brasileko kasua
62. Hezkuntzako desberdintasunaren hiru iturri: Iraneko kasua

a. Sexua

63. Gizonezkoen joera hezkuntzarako sarbidean, 2001
64. Gizonezkoen joera lanean eta diru-sarreretan, 1995
65. Emakumezkoak eta jarduera ekonomikoa, 2001
66. Emakumezkoen zatia ordainsarrietan, 2001

b. Hiri-joera

67. Hiri-joera oinarrizko zerbitzuetan
68. Lau hamarkada urbanizatzen

d. Eskualde-mailako desberdintasunak

69. Eskualde-mailako desberdintasunak Brasilen eta Mexikon
70. Eskualde-mailako desberdintasunak Indian eta Txinan
71. Eskualde-mailako desberdintasunak Egipton eta Hegoafrikan
72. Eskualde-mailako desberdintasunak Indonesian eta Espainian
73. Eskualde-mailako desberdintasunak Europar Batasunean
74. Eskualde-mailako desberdintasunak Errusian eta SESB ohian
75. Eskualde-mailako desberdintasunak AEBetan

e. Etnia

76. Joera etnikoak AEBetan
77. Mundua *apartheiden* makrokosmos gisa

VI. Nazioarteko ekonomia

a. Nazioarteko merkataritza

78. Nork esportatzen du zer?
79. Nork esportatzen du nora?
80. Merkataritzaren industrializazio hazkorra
81. Iparra Hegoaldearentzako merkatu gisa
82. Hegoaldeko manufaktura-esportazioak
83. Irabazleak eta galtzaileak merkataritzan I
84. Irabazleak eta galtzaileak merkataritzan II
85. Truke-harremanen arazoa

b. Nazioarteko inbertsioa

86. Nazioarteko inbertsioaren igoera
87. Nazioarteko inbertsioaren jomuga Hegoan
88. Nazioarteko inbertsioaren garrantzi erlatiboa, 2002

d. Nazioarteko erakundeak

89. Iparreko eta Hegoaldeko enpresa multinazionalak
90. Nork zuzentzen ditu NMF eta Munduko Bankua?
91. NMFk nor zuzentzen du?

e. Kanpo zorra

92. Kanpo zorraren tamaina guztira
93. Gaur egungo zorraren zama
94. Zorraren krisiaren zenbait eragile eta ondorio
95. Transferentzia positiboak eta negatiboak. Hegotik Iparrera bidalitako laguntza
96. Hainbat zor mota, 2002
97. Nortzuk dira hartzekodunak?

f. Garapenerako laguntza

98. Diru asko, laguntza gutxi
99. Laguntzaren gainbehera, 1983–2001
100. Laguntza nazio-errentan adierazita
101. Iparretik Hegoarako laguntza guztira
102. Iparretik Hegoarako laguntza biztanleko

VII. Ingurumena

103. Noiz arte iraun dezakete berriztagarriak ez diren baliabideek?
104. Energiaren erabilera eta kutsadura-mailak
105. Diferentziak garraioan
106. Uraren eskasia
107. Giza Garapen Jasangarriaren Indize bat

VIII. Errefuxiatuak eta migrazioa

108. Errefuxiatuen jatorria eta jomuga, 2002
109. Migrazio behartuaren toki nagusiak, 2002
110. Migrazioa Europako mendebalderantz
111. Ozeano Bareaz gaindiko migrazioa
112. Migrazioa Amerikan
113. Etorkinak AEBetan
114. Diru-bidalketak: laguntza baino garrantzitsuagoa

IX. Errepresioa eta diskriminazioa

115. Herrialderik militarizatuena
116. Armen nazioarteko merkataritza, 1998–2002
117. Heriotza-zigorra, 2000
118. Desberdintasunak espetxeratze-tasetan
119. Presoak AEBetan, 2002
120. Lesbianen eta gayen eskubideak, 2002

X. Desberdintasuna eta historia

121. Errenta erlatiboen bilakaera, 1820–2001
122. Munduko errentaren epe luzerako polarizazioa, 1820–1998
123. Aldaketak desberdintasunean, 1950–2001
124. Lan-indarra, 1950–2001
125. Aldaketak lan egindako orduetan, 1870–2000
126. Alfabetatzearen hedapena, 1820–2001
127. Hezkuntzaren hedapena, 1820–2000
128. Igoerak eta jaitsierak bizi-itxaropenean, 1820–2002
129. Hilketak-krisiak, 1960–2002
130. Errentaren eta giza garapenaren bilakaera bateratua, 1975–2000
131. Giza Garapenaren Indizearen epe luzerako konbergentzia, 1870–2001
132. Aldaketa historikoak gizonezkoen eta emakumezkoen biztanlerian, 1800–2000

Sarrera: desberdintasunez betetako gure mundua

*Nire amona batek zioen bezala, bi leinu
bakar daude munduan, badutenena
eta ez dutenena.*

Miguel de Cervantes Saavedraren *On Kixote
Mantxako* liburuan Sancho Panzak
On Kixoteri eginiko iruzkina

Liburu honen asmoa

Liburu hau, ororen gainetik, batez ere irudien bidez gizartearen desberdintasunei buruzko informazio kantitate handia aditzera ematera zuzenduta dago. Grafikoen eta mapen bidez Edward Tufte-k proposatutako aurkezpen bisualetarako ezarritako arauak (zorrotzak) jarraitzeko saiakera egiten da.¹ Gaztelarazko jatorrizko argitalpena Bartzelonako Intermon-eko nire lagun Ignacio de Senosillaren proposamen batetik sortu zen, testuak eta irudiak tartekatzearen teknika berbera erabiltzen duen Rudolf Strahm-en² liburu bat eguneratzeko proposamenetik hain zuen ere. Liburu horretan zein honetan, garrantzitsuenak irudiak dira.

Ikuspegi horri esker liburu hau hainbat hezkuntza-esparrutan tresna baliagarria bihur dadila espero dut. Zentzu horretan, liburu hau garapena, desberdintasunak, nazioarteko ekonomia eta nazioarteko harremanen inguruko unibertitate kurtsoetara eta hala nola helduen hezkuntzara zuzenduta sortu da, beste zenbait alorri dagokion materiala jasotzen duen arren. Era horretan, material guztia desberdintasunaren ideia zentralaren inguruan mugitzen da, edo hobe esanda klasearen, sexuaren, etniaren,

¹ Edward Tufte, *The Visual Display Of Quantitative Information*, Graphics Press, Cheshire, Connecticut, 1983; *Envisioning Information*, Graphics Press, Cheshire, Connecticut, 1990; *Visual Explanations*, Graphics Press, Cheshire, Connecticut, 1997.

² Rudolf H. Strahm, *Pourquoi sont-ils si pauvres? Faits et chiffres en 84 tableaux sur les mécanismes du développement*, Editions de la Baconnière, Boudry, Suitza, 1986.

herrialdearen, bizilekuaren, orientazio sexualaren, politiken eta boterearen edota beste faktore batzuen ondoriozko desberdintasunen inguruan dihardu liburu honek.

Lan honetan ez dago desberdintasunei buruzko ageriko arrazonomendu orokorrik. Aitzitik, lan honen xedea, bai ikasgela barruan zein kanpoan, desberdintasunaren zergatiaren, ondorioen eta aurki litezkeen konponbideen inguruan pentsatzea, eztabaidatzea eta arrazoitzea erraztu dezaketen material pizgarriak aurkeztea da. Irudi batek hitzak aurreztu behar ditu, baina hitzak sortu ere egin ditzake. Eta hitz horiek liburu honen erabiltzaile garenon ahotik etorri behar dute. Hala ere, ikusiko dugunez berdintasunezko jarrera du, inplizitua baina begi-bistakoa dena. Hemen azaltzen diren desberdintasunak, nire irizpidearen arabera, injustizia sozial sakon eta onartezinen isla garbia dira; desberdintasunak neurtu eta eztabaidatzeko arrazoia injustizia horiek zuzentzeko konponbideak bilatzeko bidean ekarpenak egitea da.

Egungo sozialistek berdintasunaren aldeko izaera berreskuratzea garrantzitsua dela deritzot, nukleo horren inguruan zihardutelarik sozialismo utopiko historikoak, marxismoa barne.³ Berdintasunaren adiera, bide horri jarraituz, homogeenotasunetik eta adostasunetik oso urrun dago; Izatez adierazi nahi duena zera da, askatasunaren bitartez lorturiko eskubide politiko eta zibil berdinen babesa eta beharrianen arabera banaketa, ez ordaintzeko gaitasunaren arabera.

Desberdintasunen inguruko eztabaidak

Desberdintasunek injustiziarekin, askatasunarekin eta eraginkortasunarekin duten harremana oinarritzokoa izan da beti filosofia, politika eta ekonomi eztabaidetan. Gaur egun horien inguruan suspertu den interesa faktore ugariaren ondorioa da: etengabe hazten den itsasaldi ekonomikoa itsasontzi guztiak altxatzeko gai izateari buruzko eszeptizismo geroz eta handiagoa; desoreka zehatzak orekatzea irrikatzen duten gizarte-mugimendu berriak; berdintasunezko printzipioez osatutako formulazio teoriko berriak; giza eskubideen nozioaren inguruan espektro politiko zabalaren arreta geroz eta

³ Norman Geras, "Minimum utopia: ten theses", Leo Panitch eta Colin Leys-en (edit.), *Socialist Register 2000: necessary and unnecessary utopias*, Merlin Press, Londres, 1999.

handiagoa; desorekak kuantifikatzea ahalbidezen duen inoiz baino informazio enpiriko gehiagoren pilaketa; eta, azken aldian, Margaret Thatcher-ek eta Ronald Reagan-ek interes pertsonalak mugatuta izatea alde batera uztearen aldeko gurutzada gidatzearen ondorioz, mundu osoan indarrean jarri zen liberalizazio ekonomikoaren ondorio batzuekiko nazka.

Politikari horiek eta horien jarraitzaileek mendeetan zehar pentsalari kontserbadoreenak berdintasunari eta desorekei buruz defendatutako ideiak martxan jarri zituzten, merkatu kapitalistaren justiziaren eta “esku ikusezin” entzutetsuaren sinestun ziren pentsalari berdinen ideiak hain zuzen ere. Ekonomilari ortodoxo edo neoliberal horiek ez dituzte desberdintasunak babesten, baizik eta merkatu-ekonomia batek, arriskurako eta ekimenerako pizgarriak sortuz, desoreka berriak etengabe sortuko dituela baieztatzen dute, pertsona batzuek onurak lortzen baitituzte jarduera berriei esker. Era berean, onura horiek desagertuz joango dira jarduera berriak konkurrentziaren eta merkatuaren bidez hedatuz doazen heinean. Laburtuz, epe luzean, merkatu globaleko kapitalismoak mundu osorako garapen desiragarria lortuko duela eta konkurrentzia askeak ordainsari ekonomikoak parekatuko dituela aurreikusten dute, gizabanakoen artean ez bada, bai herrialdeen artean. Badirudi nolabaiteko “desberdintasunen berdintasuna” aurreikusten dutela.

Merkatu askearen babesarekin gehien bat datozenek emaitza horrek historikoki duen atzerapena argudiatzeko azalpena dute: merkatua ez da behar bezain askea; monopolioek eta “inperfekzioek” mekanismoa oztopatzen dute. Baina gehienei kontu horrek ez die gehiegi ardura. Haatik, guztiak kezkatzen dituena birbanaketaren aldeko borrokaren berariazko ideia da; arriskutsua eta makurra dela irizten dute: merkatuaren balizko onurak deuseztatzeaz gain, hazkundera ere murriztuz, laguntzak helburu dituenen egoera bera ere kaltetzea ekar dezake. Itsasaldia jaisten bada, itsasontzi guztiak hondoratuko dira. Beraz, zentzu arraro horretan, ekonomia ortodoxoak, berdintasunaren aurka esplizituki ez dagoen arren, berdintasuna arbuiatzen duela esan liteke. Diotenez, pastela birbanatzeko edozein ahaleginek, pastela txikiagotzea ekarriko du. Behartsuak hobeto egongo dira pastel handiaren zati txiki batekin, pastel txiki baten zati handi batekin baino. Esan ohi dutenez berdintasuna eraginkortasunaren mesedetan sakrifikatu behar da.

Desberdintasunaren kritikoek pastelaren tamaina (ekoizpen osoa alegia) jendeak berau zatitzerako orduan espero duen zatiaren tamainarekiko

independentea ez dela onartu behar dute. Ekimen ekonomiko gehienak, inbertitzaileek horiekin mozkin ekonomiko batzuk lortzeko aukera ikusten dutelako bultzatzen dira. Mozkin horiek ezin baldin badituzte gauzatu, ez dute jarduera abian jarriko. Baina pastel ekonomikoak ez du tamaina zehatz bat; herri batek edo bere gobernuak erabakiak hartzeko duten moduaren arabera nola banatua izango den zehazteko aukera ematen du. Badirudi, erreformista askok pastelak tamaina zehatza duela uste duela modu inuzentean.

Planteamendu horrek baina, ez du zertan berdintasunaren aldeko politiken aurkako argudio bat izan behar, ekonomilari ortodoxoek egiten duten erabilpena den arren. Proposamen erabat kontrajarria babesten dutenen aldeko frogak nabariak daude: pastela banatzen den zatien desberdintasuna da pastelaren tamaina mugatzen duena. Desberdintasuna da beraz, eta ez berdintasuna, oparotasuna eta hazkundera ekiditen dituena. Ekonomiaren historiak eta orainaldiak horrelako argudio asko gordetzen dituzte, nahiz eta horien egileak, modu susmagarrian, askotan heterodoxotzat hartu dituzten.

J.A. Hobson ekonomilari heterodoxo ezagunak, horrenbeste aldiz aipatua izan den *Inperialismoaren azterketa* liburuan, 1902an idatzia, Britainia Handiak Afrikan burututako inperialismoa (erabat arbuiatzen zuena) gertatu izanaren arrazoia, Britainia Handiko errenta-desberdintasunen ondorio zela zioen: populazioaren zati handi baten erosteko ahalmena mugatua zenez, mozkin-tasa apalago batek kapitalistak irabaziak beste herrialde batzuetan bilatzera behartzen zituen, eta ondorioz gobernu inperialista bat beharrezkoa zuten beren buruak babesteko. Errentaren banaketa parekatzeko neurriak ez ziren Britainia Handiaren baitan soilik onuratsuak izan, inperialismorik gabeko enplegua eta hazkundera sortzeko bide bat ere izan ziren. Geroago, Keynesek antzeko arrazoiak erabili zituen errentaren banaketaren desberdintasunek eskari osoaren beherakada sortuko luketela argudiatzeko, eta ondorioz, ekonomiak krisiarekiko eta desenpleguarekiko duen zaurkortasuna areagotuko lukeela arrazoitzeko. Ekonomian espezializaturiko historialari Keynesiarrek, 1929tik aurrera mundua zigortu zuen krisia, hein handi batean behintzat, 20ko hamarkadan zehar Estatu Batuen boomarekin batera eman zen desberdintasunen gorakadaren ondorio zuzena izan zela argudiatu zuten era nahiko sinesgarrian. Gerora, desberdintasun hazkorrek industri produktu berrien eskaria ito eta ekonomia erori egin zen. Desberdintasunen ondorioei buruz berriki egin den ikerketa batek ondorioztatzen duenez, “lortutako datuen osotasunak ez du babesten

desberdintasun apalagoek eraginkortasun apalagoa dakartela dioen baieztapena”.⁴ Ikerketa horiek batez ere herrialde garatuekin loturik daude eta giza baliabideak erarik osoenean ez erabiltzeak gizartean dituen ondorioei erreparatzen die. Beraz, oro har, horrek eskuragarri diren ondasunen eta ongizatearen murrizketan dituen ondorioetan jartzen dute beren arreta. Beste argudio batek baina, garapen bidean dauden herrialdeekin lotuta, Ekialdeko Asiako herrialdeen arrakasta eta Latinoamerikako herrialdeen porrota ezberdintzeko arrazoi nagusia, azken hauek lehenengoekin alderatuz dituzten errenta desberdintasun handiak direla dio. Azalpen nagusiak dioenez, Asiako desberdintasun apalagoek oinarritzkoak ez diren ondasun eta zerbitzuen barne-merkatu handiak ahalbidetzen dituzte, Latinoamerikako desberdintasun handiek luxuzko produktuen barne-merkatu txikia bakarrik ahalbidetzen duten bitartean. Ondorioz, berdintasuna garapenerako hobia dela diote.⁵ Berdintasuna garapenaren iraunkortasunerako baldintza garrantzitsu bat dela pentsatzeko arrazoi onak ere badaude.⁶ Berdintasunak garapena eta beste zenbait helburu desiragarriren alde ere egiten duela pentsa liteke, gatazka sozialak leuntzeko lagungarri den heinean. Hori argudio zabalago baten baitan koka dezakegu, desberdintasunek zaintza-kostu izugarriak dakartzatela dioen arrazoi baten baitan alegia. Desberdintasun handiko gizarteek baliabide kantitate handia erabiltzen dute desberdintasun horiek mantentzeko: kartzela gehiago, zaindari gehiago kartzeletan, polizia gehiago, jabetza eta bizitza babesteko gero eta segurtasun-zerbitzu gehiago, gastu gehiago bai armetan bai segurtasun-ondasunetan, hala nola, sarrailetan, dendetako, autoetako eta etxeetako segurtasun-sistemetan, etab. Beharrezkoa da desberdintasunen ondoriozko jarduera horiek eskulanaren proportzio handi bat xurgatzea.

Argudio horiek guztiak eraginkortasun ekonomikoa lortu ahal izateko berdintasuna sakrifikatu behar denaren ideia ukatzen dute; ideia horiek bata bestea indartzen dute. Argudio horien aniztasuna eta indarra harrigarriak dira. Baina ahultasun berbera dute. Argudio

⁴ Andrew Glyn and David Miliband (edit.), *Paying for Inequality: the economic cost of social injustice*, IPPR/Rivers Oran Press, Londres, 1994.

⁵ Fernando Fajnzylber, “Las economías neindustriales en el sistema centro-periferia de los ochenta” Pedro Talavera Deniz-en (edit), *La Crisis Económica en América Latina*, Sendai, Bartzelona, 1991.

⁶ Bob Sutcliffe, “Desarrollo frente a ecología”, *Ecología política* 9, 1995.

enpirikoak dira eta berdintasuna emaitza onak dakartzalako babesten dute. Baina harreman enpirikoek zaurkorragoak izateko ohitura txarra dutela esan liteke, bai errealitate berrien aurrean gezurtatzen direlako eta bai denborarekin atzean gelditu ohi direlako. Ni azkena nintzateke nabaritasun enpirikoak garrantzitsuak ez direla esaten, baina azken batean berdintasunaren aldeko aldarrikapenerako ahulegiak direla onartu behar da. Birbanaketa ez da desiragarria soilik eraginkortasun ekonomikoa handitzen duelako, baizik eta justizia soziala handitzen duen heinean funtsezko elementu bat bilakatzen da, bere emaitzak direnak direla ere. Justiziaren aldeko borroka, xede bat da izatez.

1971an John Rawls filosofoak argitaratutako *Justiziaren teoria* liburuak, berdintasun handiago baten aldeko mugimendu feministak eta eskubide zibilen aldeko mugimenduak bezalako mugimendu politiko eta sozial berrien sorrerarekin batera, justiziaren eta berdintasunaren inguruko eztabaidak suspertu zituen. Rawls-ek justizia sozialak begirada “maximin” bat eskatzen zuela zioen, hots, bere ustez behartsuenen egoerak bereziki babestua egon beharko luke. Proposamena eztabaidagarria izan bada ere, berdintasunaren aldeko ideientzako pizgarria izan dela onartu behar da; horren erakusgarri dira Michael Walzer-ek bilatutako “berdintasun konplexuaren” definiziotik hasita, berau nortasunaren kontzeptutik erabat bereiztuz, Amartya Sen-ek emaitzen berdintasunak gaitasunen berdintasuna baino garrantzi gutxiago duela argudiatzeko egindako ahaleginerarte; azken ideia hau giza garapenari loturik (23. grafikoa) eta kontzeptuen azalpen konplexuagoekin harremanetan dago, hala nola, aukera-berdintasunaren ideiarekin. Ekarpen horietariko bat berak ere ez du gizabanakoen arteko erabateko berdintasun materiala aldarrikatzen; baina indartu egiten dituzte, hainbat modutan, liburu honetan zehar azaltzen diren desberdintasunen aurkako argudioak eta justizia soziala hobetzea helburu duten berdintasunerako politika aktiboak. Hori garrantzitsua da gizakion gizartea, hainbat modutan, aurkako norabidean doala dirudien momentu honetan.

Desberdintasuna handituz doa?

Munduko desberdintasuna ez da edozein balio eman dakioken kontzeptu erraza. Ezin konta ahalako desberdintasun motak aurki litezke gizakion gizarteetan: diru-sarrerak, ongizatea, eskubideak, boterea eta ospea, klasea, kasta, sexua, jatorri etnikoa, adina, lehenetasun sexuala, etab. Gizabanako zehatz batek, aldi berean onurak lor ditzake desberdintasun mota batetik eta galerak beste batetik. Gizakion historiako beste edozein unetan izan diren

desberdintasun mota guztiak ez dira ez handiagoak ez txikiagoak izan. Izan ere, gertakizun berdin batek askotan aldi berean gutxitu eta handitu egiten du desberdintasun-maila. Hiru pertsona izanik, A, B eta D, hurrenez hurren desiragarria zaien zerbaiten 10, 5 eta unitate bakar bat jasotzen badute, eta ondoren egoera aldatzen bada, B-k 5 jaso ordez 7 jasoz, zer gertatu da desberdintasun-mailarekin? Desberdintasuna A-ren eta D-ren artean ez da aldatu; A-ren eta B-ren artean dagoena murriztu egin da eta B-ren eta D-ren artean dagoena hazi egin da. Mundua horrelako adibidez beteta dago, eta orokorrean desberdintasunak handitu edo gutxitu diren esan nahi badugu, kontzeptu konplexu honen definizio oso zehatza eman behar dugu.

Desberdintasunak azkar handituz doazen epealdi batean bizi garela dioen irakurketa orokorturik dagoen garai batean bizi gara, prentsak eta telebistak etengabe ematen duen informazioak edota kaleen begirada hutsak, ikuspegi hau are gehiago indartzen dutelarik. Oso aberatsek inoiz baino aberatsagoak dirudite eta burtsako merkatuetako boomek eta “ekonomia berriak” gero eta hedatuago daude (13. eta 17. grafikoak). Bitartean, beste muturrean, muturreko pertsona txiroen kopurua, Munduko Bankuak egiten dituen ohiko eguneratzeen arabera oso gutxi ari da murrizten, murriztapenen bat egotekotan (15. grafikoak). Pertsona batek telebistan berriak entzuterakoan Bill Gates-i eta Donald Trump-i buruz negozio-arloan informazioa jaso ostean, bi minutu beranduago Ipar Ekialdeko Afrikako lehorteari buruzko informazioa ikusten badu, atera dezakeen ondorio bakarra munduan geroz eta desberdintasun handiagoak daudela da. Eta noski, arrazoi du, berau neurtzeko neurri sistematiko kuantitatibo bat ez badu ere.

Alabaina, neurri horiek egon badaude eta datuen hornidura geroz eta handiagoa den heinean, geroz eta erabiliagoak dira munduan zehar dagoen errentaren banaketa neurtzeko. Bi ohiko modu daude: lehenengoa, muturrak alderatuz (orokorrean %10 edo %20 aberatsena eta behartsuena alderatuz) (11. grafikoak); eta bigarrena, populazio osoarentzako berdintasun-neurri bat aplikatuz (normalean Gini Koefizientearen bidez laburtzen dena, errenta orokorra batez bestekotik zenbat desbideratzen den adierazten duen neurri estatistikoa).

Bi metodo horietariko edozein bi modutan aplikatu daiteke, herrialde arteko irizpidea aplikatuz eta irizpide globala erabiliz. Herrialde arteko banaketa irizpideak, herrialdeen arteko errentaren desberdintasunak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta ez herrialdeen baitakoak. Horrek, pertsona guztiek herrialdeko batez besteko errenta jasoko dutela suposatzea dakar. Metodo hori aplikatuz, munduko biztanleriaren %10 aberatsena herrialde aberatsetan

bizi diren 600 milioi pertsonak osatzen dute. Banaketa globalaren irizpideak aldiz banaketa orokorra aztertzen du, herrialde bakoitzeko maila ekonomikoa kontuan hartu gabe. Horrela, irizpide globalak %10 aberatsena kalkulatzeko ez du bertan AEBetako populazio osoa hartzen adibidez, baizik eta talde horretan errenta altueneko 600 milioi pertsona barneratuko ditu; horietako asko estatubatuarra, europarra eta japoniarra izango dira, baina batzuk brasildarrak edota indiarra ere izango dira.

Muturreko ratioa edota desberdintasun orokorrak neurtzen baditugu ere, aspaldidanik nazioarteko desberdintasunaren gorakada handia ikus dezakegu ditugun 180 urteetako datuak erabiliz. Herrialde bakoitzak mugimendu kontraesankorrak dituen arren (121. grafikoak), herrialde aberatsenen eta behartsuenerako arteko desberdintasun erlatiboa handitu egin da (122. grafikoak). “Muturreko ratioen” metodoak desberdintasun hori handituz doala erakusten du, herrialde behartsuenerako hazkunde erritmoak herrialde garatuenerako hazkunde erritmoaren atzetik jarraitzen baitu. Dena den, desberdintasun globalaren neurria erabiltzen duten kalkulu gehienek 1980az geroztik nazioarteko desberdintasun-maila murriztuz joan dela erakusten dute, errenta ertaineko ekonomia batzuek hazkunde-erritmo oso biziak izan baitituzte azken urteotan, batik bat Txinak eta Indiak, hauek hobekuntza horren erantzule nagusienak baitira.

Banaketa globalaren neurriak herrialdeen arteko neurriak baino desberdintasun maila askoz handiagoa erakusten du, bai herrialdeen baitako desberdintasunak bai herrialdeen arteko desberdintasunak kontuan hartzen baititu. Herrialde arteko ratioa, goi eta behe muturreko %10a hartuta, 32-1 proportziokoa zen, ratio baliokide globalak aldiz 64-1 harremana erakusten zuen bitartean (Brasileko eta Hego Afrikako ratioen antzekoa); desberdintasun globaleko neurri orokorra ere (Gini koefizientea) askoz altuagoa da neurri berari herrialde arteko irizpidea aplikatzean baino. Baina, epe luzean banaketa globalean ematen diren aldaketak neurtzea oso zaila da, ez baita existitzen barne banaketetan ematen diren eraldaketei buruz nahikoa datu alderagarriak. Ikerketa batzuek iradokitzen dutenez, herrialde askok beren errentaren barne-banaketan dituzten desberdintasunetan azken 20 urteotan eman den gorakada (123. grafikoak) nahikoa da Txina eta India bezalako herrialdeek ekarri duten desberdintasun orokorraren beherakada konpentsatzeko.⁷

⁷ Errentaren eta ongizatearen munduko birbanaketa inguruko eztabaida sakonago baterako ikus, Bob Sutcliffe, “¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la

Oraindik munduko berdintasunen eta desberdintasunen inguruko galderei erantzuteko nahiko datu izatetik oso urrun gaude. Hala ere liburu hau burutzea posible izan da eskuragarri ditugun datu ugarietarako, asko osatugabeak diren arren, nahikoa esanguratsuak direlako. Egunen batean, azken mende laurdenean munduko desberdintasun osoari buruzko datu nahikoak izatera iritsiko bagina, ia ziur desberdintasuna hazi egin dela ikusiko genuke. Hala ere, garrantzitsuena ez da datuok edukitzea edo ez edukitzea, zeren eta gaur egun ikus ditzakegun desberdintasun anitzek, iragan hurbilean edo urrunean areagotu edota murriztu ote diren alde batera utziz, berez onartezinak diren injustizia sozialak erakusten dizkigute. Lan honek irakurleari gai horien inguruan eztabaidatzerako orduan informazio gehiagoren jabe izateko aukera ematea espero dut. Datuei buruz neronek egiten dudana irakurketaren arabera, Santxo Pantzaren amonari hark duela laurehun urte sortutako iritzia aldatzeko arrazoi handirik ez lioketela emango uste dut.

Datuak, grafikoak eta testua

Estatistika ekonomiko eta sozialek ez dute ospe onik eta gorengo gezur bezala ezagutarazi dira. Azken batean, gehienak gobernuen eskuetatik datoz eta okerrak izan litezke hainbat arrazoiengatik: modu ezeraginkorrean jaso direlako, susmoetan edo usteetan oinarritutako elementu asko erabiltzen dituztelako, nahita faltsutu direlako eta kontzeptuak txarrak direlako. Dena den, gure begietatik haratago dagoen munduaren ezaugarriren bat aztertu nahi badugu, egia esan ez dugu erabiltzea beste irtenbiderik, modu kritiko batean aplikatzen baditugu ere. Fidagarrienak direla deritzodan iturrien datuak hautatzen saiatu naiz eta bereziki okerrak irizten ditudanak baztertu ditut. Estatistika ofizialetan konfiantza izatea errazten duen ezaugarrietako bat, horiek egiten dituen gobernuarentzat desatseginak diren ondorioak emateko duten ohitura izan liteke.

Azken urteotan eskuragarri ditugun datu guztien ugartzeaz gain, erabiltzen diren kontzeptuetan ere garapen esanguratsua eman dela esan liteke, hala nola garapenerako indize berriak, Giza Garapenaren Indizea (23. eta 131. grafikoak) edo bizi itxaropena gaitasun urritasunaren arabera doituta (25. eta 42. grafikoak) besteak beste. Errenta eta Nazio Produktuaren zenbatekoak gehiengoa baino gehiago aldatu dira. Gero eta eskuragarriago daude Erosteke Ahalmenaren Parekotasunari lotutako datuak (ikus glosarioa). Horrek aldaketa asko eragiten ditu herrialdeen nazio-errentaren maila erlatiboetan (8. grafikoak). Glosarioan azaltzen diren arrazoiak direla eta, liburu honetan funtsean Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean oinarritutako zenbateko berriak bakarrik erabili ditut.

Irakurleak aurkezten diren datuetan akats larriren bat aurkituko balu eskertuko nioke berau jakinaraziko balit.

Grafiko hauek zenbait programa informatiko erabiliz prestatu ziren, hala nola Corel Presentations 8, MS Excel, Harvard ChartXL eta Map Maker Pro (azken honen egilea, Eric Dudley, mapa askotan erabilitako eremu berdinen mundu mailako proiektzioaren erantzulea da; bere interneteko helbidea honakoa da: <http://www.mapmaker.com>). Guztiak Adobe Illustrator-en bidez bukatu ziren.

Grafiko bakoitza testu-orri baten bidez osatua dago; testuaren antolaketa honakoa da:

- Grafikoaren azalpena eta berau irakurtzeko modua.
- Grafikoaren edukari buruzko iruzkinak edo xehetasunak.
- ▶ Grafikoa eratzeko erabilitako datu-iturriari buruzko deskribapen laburra. Liburuaren azken atalean datu-iturriak zehaztasunez kontsulta daitezke.

Aurreko eta ondorengo grafikoekin lotutako grafikoekiko erreferentzi gurutzuak bi geziren bidez zehaztuak daude: adib. >>93 edo <<21.

Letra lodiz agertzen diren kontzeptuen definizioak, ohiko kontzeptu teknikoek glosategian aurki daitezke.

Testuetan eta grafikoetan kontzeptu bikoitzak erabiltzen ditut; adibidez Ipar/Hegoa, herrialde garatuak/garapen bideko herrialdeak eta herrialde aberatsak/herrialde txiroak era elkartrukatuan erabil daitezke. Nire iritziz guztiek dituzte bertuteak eta hutsuneak. Ez dut lehentasun pertsonalik horietako edozeinengatik, eta dagokionean, orokorrean datu-iturrietan erabilitako bertsioa jarraitu ohi dut.

Ohiko kontzeptu teknikoen glosarioa

GGDBU: gaitasun urritasunaren arabera doitutako bizi-urtea (gaztelaniaz AVAD) gizabanakoen eta komunitateen ongizate-mailaren neurri bat da, osasunaren ekonomilariak, epidemiologoak eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gero eta gehiago aipatzen duten gaixotasun-zamaren adierazgarri bat izateaz gain. Bereziki ongizatearen neurri ekonomiko gehienak (hala nola errenta-maila) ordezkatzeko diseinatua dago. GGDBU funtsean gaitasun urritasunaren edo gaixotasunaren zama kontuan hartzeko moldatutako bizi-urtea dela esan daiteke. Pertsona baten gaitasun urritasunik gabeko bizi urte batek balio osoa du. Beste kasuetan, bizi-urte baten balioa murriztuz doa gaitasun urritasunak duen mailaren arabera. Era horretan, jendea gaixorik dagoenean, beren GGDBUaren zati bat galtzen dute. Hiltzerakoan, galtzen den GGDBU kopurua neurtzeko bere heriotza eman denean dituen urteen eta gizakion bizi-itxaropen naturalaren arteko aldea begiratu behar da (80 eta 80,2 urteko mugan dago gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, hurrenez hurren). Heriotzak ekiditea edo gaitasun gabeziak murriztea lortzen denean, GGDBUak irabazten dira. Hala ere, argitalpen gehienetan “GGDBU galduari” buruz hitz egiteko “GGDBU” orokorraren kontzeptua erabiltzen da. Hainbat osasun-gastu aldera daitezke gastu-unitate bakoitzetik irabazitako GGDBUaren arabera. Era berean, hainbat osasun arazo alderatu daitezke gaixotasun edo arrisku-faktore ezberdinak direla eta galdutako GGDBUaren arabera. OMEren arabera, gizadiak 1,5 mila milioi GGDBU galdu zituen 2002an, hau da, goiztiarki hildako pertsonak (gehiengo zabala direnak alegia) galdutako urteen eta gaixotasun edo gaitasun urritasunen baten ondorioz partzialki galdutako urteen kopuruaren batura.

DIRU-SARRERA ALTUKO, ERDIBIDEKO ETA BAXUKO HERRIALDEAK: Munduko Bankuak aspalditik munduko herrialdeak banatzeko erabiltzen duen modua da, Hau da, kanbio-tasen arabera alderatutako nazio errenta mailen irizpideari jarraituz burutzen den sailkapena da hau. 2002an, erdibideko errenten eta errenta baxuen arteko lerro banatzaileak 735 dolarretan kokatzen ziren biztanleko nazio errentaren arabera; aldiz, alde hori 9.076era iristen zen maila altuko eta erdibideko errenta zuten herrialdeen artean. Liburuaren zati batzuetan IPARRA erabiltzen dut errenta altuko herrialdeen baliokide gisa eta HEGOA maila baxuko eta erdibideko errentako herrialdeen baliokide gisa.

BARNE ETA NAZIO ERRENTA ETA PRODUKTUA: nazio errenta edo produktua, ekonomilariak ekonomia nazional bateko jarduera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen duten zenbateko agregatua da (ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren balioa alegia). Nazio produktuak ekoiztutako ondasun eta zerbitzuak neurtzen ditu. Nazio errentak ondasun eta zerbitzu horietatik eratorririko sarrerak (mozkinak eta soldadak) neurtzen ditu. Bata zein bestea, alde ezberdinetatik begiratu arren, funtsean gauza bera direla esan daiteke. Barne produktuak eremu geografiko zehatz batean (orokorrean herrialde batean) ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen balioa adierazten du. Nazio produktuak zenbateko hori moldatzen du, atzeritarrei ondasun eta zerbitzuen ekoizpena burutzerazuzenduriko transferentzien zenbatekoa kenduz (adib.: atzerriko inbertsioan gauzatutako mozkinen aberriratzea) eta hiritar nazionalak ondasun eta zerbitzuen ekoizpena burutze aldera transferitutako zenbatekoa batuz (adib.: langile migratzaileen diru-bidalketak). Horrela bada, adibidez, Irlandaren barne-produktua bere nazio-produktua baino handiagoa da, atzerriko inbertsioaren tamaina dela eta; aldiz Nikaraguan, bere nazio produktua barne produktua baino handiagoa da langile migrarien diru-bidalketen garrantzia dela eta.

Nazio errenta edo produkzioa, neurri gordinak edo garbiak erabiliz neurtu daiteke (kapital-masari itxarondako amortizazioa kenduz). Zenbateko gordina kalkulatzeko askoz errazagoa denez, hau izaten da errazago aurkitu ohi duguna. Ekonomiaren tamainaren neurri ohikoena BPG da, Barne Produktu Gordina alegia. Jarduera ekonomikoaren neurri gisa aurkeztu bazen ere, egun ongizate ekonomikoaren eta bizi-mailaren (batik bat *per capita* kalkulatu denean) adierazle gisa erabiltzen dela esan liteke (ikus EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNA ere).

IPARRA/HEGOA: munduan dauden bi herrialde-taldeei buruz hitz egiteko ohiko modua da, geografikoki zuzena ez den arren. Herrialde aberatsek eta industrializatuek IPARRA osatzen dute (Ipar Amerika, Japonia, Mendebaldeko Europa eta Australasia). Hegoak Afrika, Asia, Latinoamerika, Karibea eta Pazifikoa adierazten ditu. Liburu honetan kontzeptu hauek erabiltzen ditudanean, HEGOAREN baitan beti barneratzen dut Ekialdeko Europa, nahiz eta hau ez den baina hori ez da orokortuta dagoen jokamolde unibertsala.

ELGE (-KO HERRIALDEAK): Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea, normalean garatuak, aberatsak eta industrializatuak irizten ditugun herrialdeek osatzen dute: horiei (hainbat arrazoi politiko konplexuren ondorioz) Mexiko, Txekia, Eslovakia, Txekoslovakia, Hego

Korea eta Turkia ere erantsi behar zaizkie. Kategoria hau liburuan erabiltzen denean, orokorrean, herrialde partaide aberatsenak bakarrik hartzen dira kontuan. Ondorioz, IPARRAren eta diru-sarrera altuko herrialdeen izenorde bezala ulertu behar dugu. Datu-iturriek erabiltzen dutenean erabili dut kontzeptu hau.

EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNA (EAP): Nazioarteko errenten arteko alderaketak egiteko modu bat dela esan daiteke. Tradizionalki herrialde bateko errentak beste batekin alderatzeko, biak moneta berdina bihurtu ohi ziren (herrialde horien monetetako batera edota beste moneta batera pasa daitezke) unean uneko kanbio-tasaren arabera. Baina nazioarteko bidaiariak ondo dakitenez, kanbio-tasak gutxitan erakutsi ohi du herrialde baten erosteko ahalmen erlatiboa. Duten diruarekin beren jatorrizko herrialdean baino gehiago edo gutxiago eros dezaketela konturatzen dira (Suitzan eta herrialde aberatsenetan gutxiago eros dezakete, eta Marokon eta herrialde txiroenetan gehiago). Orain erosteko ahalmen horien indizeak eskuragarri daude Nazioarteko Alderaketen Proiektuaren bidez, eta ekonomiariek eta nazioarteko erakundeek gero eta gehiago erabiltzen dituzte. Datu horiek metodo tradizionalak baino errenta errealari buruzko maila erlatiboen alderaketa-baremo edo arau-irizpide baliozkoagoak eskaintzen dituzte; ondorioz, datu moldatu hauek dira ia esklusiboki erabili izan ditudanak. EAPren zifrek batzuetan “nazioarteko dolar” izena ere hartu ohi dute.

Esker onak

Berriz azpimarratu nahiko nuke gaztelaniazko argitalpen originalean lagundu didatenenganako esker ona: Carmen Perez Babot, Efrén Areskurrinaga, Elisa Sarsanedas, Itziar Hernandez, Iñaki Gandariasbeitia, Julián Carranza, Charo Martínez, Alfonso Dubois, Pablo Bustelo, Joan Carlin eta Scott Christie.


Era berean, ingeleseko argitalpenean lagundu didatenei ere eskerrak eman nahiko nizkieke, bereziki honakoei: Zed Books-eko Robert Molteno, bai bere kemenagatik bai grafikoei egindako kritika zorrotzengatik, eta nire lagun Andrew Glyn, Arthur MacEwan eta Patxi Zabalo, datuen bilaketan emandako laguntzagatik eta jasotako iruzkinengatik eta Lucey Morton.

Eta azkenik, gaztelerazko azken argitalpenean honetan Silvia Kometen, Muntsa Busquetsen, Patxi Zabaloren eta Xabier Barrutia Etxebarriaren ekarpen izugarria bereziki estimatzen dudala esan nahiko nuke. Berriz ere eskerrak eman nahiko nizkieke Iñaki Gandariasbeitiari, Elisa Sarsanedasi eta Konstantin Gluschenkori ere. Era berean eskertu nahi nuke euskarazko argitalpen honetan itzultzaileen taldeak egindako lana.

Liburu hau Carmen Perez Barboti, lehenengo argitalpenean horrenbeste lagundu zuen editoreari, eta proiektua burutzeko ezinbesteko bultzada eman zuen Ignacio de Senillosaren oroitzapenari eskaini nahiko nioke. Bere ahalegin nekaezinik ezean proiektu hau ez zatekeen gauzatuko. Asko sentitzen dut berak emaitza ezin ikusi izana. Eta zentzu askotan faltan nabari dut, asko estimaturiko lagun gisa.

I. Ekoizpena, lana eta errenta

1. Iparraren eta Hegoaren arteko oinarrizko desberdintasunak



- Barra bakoitzak, 2000. urte inguruan Iparraldeko (zuriz) eta Hegoaldeko (beltzez) herrialdeen arteko 14 adierazle demografiko edo ekonomikoren banaketa erakusten du (ikus IPARRA/HEGOA).

- Iparraren eta Hegoaren arteko munduaren banaketa bikoitza oso ohikoa da. Asmo gehienetarako sinpleegia bada ere, munduko desberdintasunen izaerari hainbat giltza garrantzitsu ematen dizkio. Seigarren barratik hastea komeni da, hau da, Iparraren eta Hegoaren biztanleriaren arteko banaketa erakusten duenetik. “Justiziaz” bakoitzari legokiokeenaren baremo sinplea da. Biztanlerian ematen den banaketa bera gainontzeko barretan ere emango balitz, Iparraren eta Hegoaren arteko berdintasuna dagoela esan nahiko luke.


Baina ez da horrela gertatzen. Aurreneko bost barretan, hau da, haurren heriotzetan, heriotzak natur hondamendietan, landa-populazioan, jaiotzetan eta gaixotasun-zaman, Hegoak justiziaz dagokiona baino zati handiagoa du. Aldiz, heriotzetan, lur landuan, hiriko populazioan, errentan, CO₂ren igorpenetan, osasun-gastuan, esportazioetan eta gastu militarrean, zatia txikiagoa da.

Beraz, hemen irudikatzen den mundu honetan, osasunera zuzentzen diren baliabide ekonomikoen hamarretatik bederatzi gaixotasun-zamaren %8 besterik ez duten herrialdeetan gastatzen dira (>>33–44), eta populazioaren %20 besterik bizi ez den herrialdeek munduko errentaren %60 jasotzen dute, munduko merkataritzaren %80 sortzen dute, eta gastu militarrean beren proportzioa are handiagoa da (>>6–22, 78–85. 115–116).

Hala ere, aurkeztutako munduko herrialdeen bi taldeak oso heterogeneoak direnez, aurrerago desberdintasuna aztertzeke modu zehatzagoak erabiliko ditugu; horiek lehenengo hurbilketa sinple honetan dirudiena baino desberdintasun handiagoa dagoela erakutsiko digute.

► MUNDUKO BANKUA 2003b; OME 2002; SIPRI 2003; NMF 2003b; MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004

2. Ekoizpeneko eta laneko egituren kontrastea



- Barrek, Iparraldeko eta Hegoaldeko nekazaritzako, industriako eta zerbitzuetako, hau da, ekonomiaren hiru sektore nagusietako ekoizpenaren balioaren eta enpleguaren tamaina erakusten dituzte (ikus IPARRA/HEGOA).


- Garapena ulertzeko ikuspegi tradizionalak hiru sektore horien arteko ekoizpenaren eta enpleguaren banaketari garrantzi handia ematen dio. Garapena, ekonomiaren egituraren trantsiziotzat definitu ohi da, non etekin urriko nekazaritzan oinarritutako eredu tradizional batetik, eta industrializazioaren bidez, etekin handiko industri ekoizpeneko eredu batetara pasatzen den, azken hau, zerbitzuek gainditzen dutelarik (tertziarizazioa deritzon prozesuaren bitartez). Hainbat ekonomiariren ustez, prozesu horretan zehar, desberdintasun-maila gutxituz joango da. Ikusiko dugunez, azken ideia hori ezeztatzen duten datu asko daude.

Barra-diagraman ikus dezakegunez, desberdintasun nabariak daude Iparraldeko eta Hegoaldeko egitura ekonomikoen artean. Proporzionalki, Hegoaldean Iparraldean baino sei aldiz jende gehiagok egiten du lan nekazaritzan. Eta Hegoaldean, industrian eta zerbitzuetan lan egiten duen jende kopurua Iparraldekoaren erdia besterik ez da. Nekazaritzan lan egiten duen lan-indar osoaren ehunekoa nekazal ekoizpenaren ehunekoa baino handiagoa da ia leku guztietan. Beraz, zentzu ekonomikoan, lana eraginkorragoa da industrian eta zerbitzuetan nekazaritzan baino. Produktibitate erlatiboaren arabera desberdintasuna are nabariagoa da Hegoaldean.

► MUNDUKO BANKUA 2003b, LANE 2003

3. Ekoizpen-egiturak

Ekonomi ekoizpen osoa, 2000 = 44 bilioi US\$



A – Herrialde industrializatuak
 B – Latinoamerika eta Karibea
 D – Ekialdeko Europa eta Erdialdeko Asia
 E – Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika
 F – Ekialdeko Asia (Txina salbu)
 G – Txina
 H – Sahara Azpiko Afrika
 I – Hegoaldeko Asia

- Irudi honek aurreko irudiko ekoizpen-egiturari buruzko informazio bera aurkezten du, baina xehetasun gehiago bilduz. Laukizuzenaren azalera osoak 1988ko munduko ekonomiaren ekoizpen osoaren balioa adierazten du (44 bilioi \$ inguru). Laukizuzenaren zabalera tarte bakoitzak (industriari dagokion bandako zerrendako mailetan erraz ikusten denez) ekoizpen ekonomikoaren arabera eskualde horri dagokion pisua erakusten du. Itzalak aldiz, sektorekako banaketa azaltzen du. Eskualdeak nekazaritzaren garrantzi mailaren arabera antolatuta daude, modu gorakorrean.

- Grafikoak munduko eskualdeen arteko ekoizpenaren banaketaren eta sektore bakoitzaren tamaina erlatiboaren irudi argia erakusten ditu. Bereziki aipagarriak dira:

Herrialde industrializatuaren erabateko nagusitasuna
 Nekazaritzaren gainbeherarekiko industriaren hazkunderako joera proportzionalik eza.


Politika ekonomiko komunisten ondorioz, industri sektoreak duen pisua bereziki Txinan, Ekialdeko Europan eta Sobietar Batasun ohian.

Nekazaritzaren beheraldiarekin batera zerbitzuen hazkunderako joera argia.

Munduko ekoizpenaren kokapen tipikoen artean, landek eta fabrikek lekua uzten diete bulegoei, apartamentuei eta aretoei.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

4. Diferentziak lan-indarrean, 2000



Et - Etiopia	P - Polonia
Bd - Bangladesh	M - Malaysia
T - Thailandia	Kor - Koreako Errepublika
Pa - Pakistan	Ru - Errusiar Federazioa
F - Filipinak	Es - Espainia
Br - Brasil	A - Alemania
K - Kenya	AEB - Ameriketako Estatu Batuak

Oharra: 1990. urteko zifrak dira, salbuespen hauekin: Polonia, Errusia, Espainia, Alemania eta Ameriketako Estatu Batuak. Horientzat zifrak 2001. urtekoak dira.

● Grafiko triangeluar edo hirukoitz hau, nekazaritzan, industrian eta zerbitzuetan diharduen biztanleria aktibo osoaren ehunekoak aurkezteko beste modu bat da. Sektore bakoitzeko ehunekoa geziek adierazten duten norabidean neurtzen da; ehunekoa 100 da erpinean eta 0 hirukiaren aurkako aldean. Grafikoko puntu bakoitzean, hiru sektoreen batura ehuneko 100 da. Hizkien kokapenak, grafikoaren azpian aipatutako herrialdeen egungo biztanleri aktiboaren egitura erakusten du.


○ Grafikoak oso garapen-maila ezberdinetako 14 herrialderen lan-indarraren banaketa alderatzen du. Herrialdeen arteko alderik nabarmenena nekazaritzan diharduen biztanleria aktiboan datza, %80tik gorako Afrikako hainbat herrialdetako datuetatik (Etiopia eta Kenya adibide honetan) Ameriketako Estatu Batuetan eta industrializazio handiko beste zenbait herrialderen %2ra. Bigarren alderik nabarmenena zerbitzu sektorean ikusten da; Etiopian %10 besterik hartzen ez duen bitartean, Ameriketako Estatu Batuetan eta beste herrialde garatuetan ia %80 hartzen du.

Industrializazioak garapenean funtsezko zeregina bete duen arren, bere biztanleria aktiboaren %35 baino gehiago industriako lanetan enplegaturik duen herrialderik ez dago. Portzentaiak goranzko joera du zifra horretaraino eta gero berriz jaisten da (>>124). Alabaina, garapenarekin ia lan guztiek industriako produktuak eta teknikak erabiltzen dituzte. Hori da industrializazioa zentzu zabalean hartuta.

► LANE 2003, EBE-NBE 2003b

5. Munduko langileen jarduerak: landa, fabrika eta bulegoa

Munduko biztanleria aktibo osoa = 2,5 mila milioi langile (1995)



- | | |
|---|---|
| A. ELGE | I. Nekazaritza (soldatapeko langileak) |
| B. Latinoamerika eta Karibea | II. Nekazaritza (soldatarik gabeko langileak) |
| D. Ekialdeko Europa eta Erdialdeko Asia | III. Industria (soldatapeko langileak) |
| E. Mendebaldeko Asia eta Ipar Afrika | IV. Industria (soldatarik gabeko langileak) |
| F. Ekialdeko Asia eta Pazifikoa | V. Zerbitzuak (soldatapeko langileak) |
| G. Hegoaldeko Asia | VI. Zerbitzuak (soldatarik gabeko langileak) |
| H. Sahara Azpiko Afrika | VII. Langabezia |


● 3. grafikoan ekoizpenaren egitura ikusten zen modu berean, hemen 1995ean munduan etxetik kanpo ziarduen biztanleria aktiboaren egitura ikus daiteke. Itzalarekin dagoen azalera ustez 2500 milioi pertsonen osatutako etxetik kanpoko biztanleria aktiboaren adierazten du. Bertan, zerrenda horizontalak, A-tik G-ra, langileen kopuru erlatiboaren arabera mailakatuta daude, eta bertikalek, I-etik VII-ra, langileek (soldatapekoek eta soldatarik gabekoek) eta langabetuen zati batek zein sektoretan lan egiten duten erakusten dute.

○ 1ngo. grafikoan ikusten genuen bezala, biztanleria aktiboaren egiturak hainbat tokitako eta lanpostutako ekoizpen egitura eta lanekuaren eraginkortasun erlatiboa islatzen ditu. Langileen ordainsarien arabera sailkapenak gizakien jardura ekonomikoaren izaeraren irudi zehatzagoa eta adierazgarriagoa ahalbidetzen du. Herrialderik txiroenen multzoan ordainsaririk gabe nekazaritzan diharduten pertsonak, hau da, hainbat motatako nekazariak eta laborariak, biztanleri aktiboaren zatirik handiena izaten jarraitzen dute, alde handiaz gainera.

Bigarren talderik handiena herrialde aberatsenetako zerbitzuetako soldatapeko langileak dira. Eta hirugarrena aldiz, herrialde aberatsenetako industriako langileek osatzen dute. Azken herrialde hauetan, soldatapeko langileak dira nagusi hiru sektoreetan, eta herrialde txiroetan aldiz soldatarik gabekoak gailentzen dira. Beraz, grafikoak lan-desberdintasunak erakustez gain desberdintasun sozioekonomikoak ere erakusten ditu.

► FILMER 1995

6. Klase sozialak eta errenta: Argentina eta Brasil




- Argentinako eta Brasileko datu berri horiek klase sozialaren araberako funtzio sozialen banaketa (sektore produktiboaren araberakoa ez dena) eta klase bakoitzak jasotzen duen batez besteko errenta mailak erakusten dituzte. Barra bakoitzaren altuerak herrialdeko batez besteko errenta mailarekiko klase horrek duen batez besteko errenta erakusten du, eta barraren zabalerak aldiz klase bakoitzeko pertsona kopuru erlatiboa.

- Klase soziala pertsonen errentaren eta boterearen mugatzaile nagusietako bat izan arren, estatistika ekonomikoek oso gutxitan sailkatzen dute populazioa klase sozialaren arabera. Datu horiek ezohikoak dira errentaren eta klasearen arteko harreman aski ezkutuak agerian uzten baitituzte. Emaitzak, ustekabea baino, egiaztapena dira. Herrialde bietan sektore formaleko langileek nazioko batez bestekotik oso hurbil dauden errenta jasotzen dute. Kapitalaren jabeak eta lan-indarraren enplegu-emaile nagusiak diren kapitalista gutxi errenta altuenak jasotzen dituzte (3,8 aldiz nazioko batez bestekoa Argentinan eta 4,8 aldiz Brasilen). Profesionalei eta exekutiboiei ere ondo doakie, eta kapitalista txikiek (oso langile gutxi enplegatzen dituzten merkatariak, adibidez) batez besteko nazio errentaren bikoitza jasotzen dute. Ekonomia informalean diharduten langileak dira egoera okerrean daudenak. Brasilen, beste herrialde askotan bezala, azken hauek biztanleria aktiboaren erdia baino gehiago dira, eta lan ezegonkorretan, aldi baterako lanetan edo maila oso txikiko merkataritzan lan egiteko joera dute. Aurrerantzean beste grafiko batzuetan ikusiko dugunez, laneko egitura hori da errentaren desberdintasunaren oinarrian datzan kausa nagusietako bat (>>16, 61, 69).

► FERRANTI *et al.* 2003

7. Lanorduak I




- Barrek garapen bideko zein garatutako 41 herrialdetan pertsona bakoitzeko lan egindako ordu kopurua erakusten dute (LANEren ikerketen arabera). Biztanleko nazio errentaren arabera ordena beherakorrean erakusten dira.

- Lan-bizitzaren izaera da, seguruena, bizi-kalitate orokorrean eragin handiena duen faktorea. Hala ere, lan-bizitzako kalitatearen eta kantitatearen gaineko adierazleak oso ongi gordetako sekretuak dira orokorrean. Datu horiek ez dira lan totalari buruz bakarrik mintzatzen, baizik eta etxetik kanpoko ordainsaridun lanetan efektiboki lan egindako batez besteko ordu kopurua barneratzen dute. Herrialdeak biztanleko nazio errentaren arabera orden beherakorrean azaltzen dira eta horrek herrialde bateko aberastasunaren eta jendeak lan egiten duen ordu kopuruaren arteko ia alderantzizko harremana erakusten duela dirudi. Bertan, orokorrean, aberastasun handiagoa lanaren produktibitate eta aisia handiagoarekin bat dator. Hala ere, salbuespen argiak egon badaude. AEBetan esaterako, gainerako herrialde garatuetan baino askoz ordu gehiago egiten dute lan. Zerrendan dauden herrialdeen artean, Koreako Errepublikan egiten da lan gehien. “Asiako tigreak” deritzoten herrialdeetan ere (Hong Kongen, Singapurren eta Taiwanen) lan egindako ordu kopurua bereziki handia dela adierazten duten datuak daude. (>>125).

Askotan eredu gisa aipatzen diren herrialdeen gaineko argitasuna ematen digute datu horiek. AEBek Europarekiko duten nagusitasun ekonomikoa txikiagoa da berau lanordu bakoitzeko produktibitatearen arabera neurtuta, errenta mailaren arabera adierazita baino. Eta garapen bideko hainbat herrialderen “mirari” ekonomikoak haien biztanleek “mirariz” lanordu gehiago lan eginaraztean eta mirarizko produktibitatearen eraldakuntzan oinarritzen dira. Eskandinaviako herrialdeetan egiten dira lanordu gutxien, Mendebaldeko Europako beste herrialde batzuk antzeko egoeran aurkitzen direlarik.

► LANE 2003a

8. Lanorduak II



• Datu hauen iturria Union de Banques Suisses ikerketa sailak hirietako langileei buruz egindako lan batean aurkitzen da. Honela, grafiko honek hiriak sailkatzen ditu, beraietan egiten den urteko lanordu kopurua 2000 baino gehiago edo gutxiago izatearen arabera. Honen arabera, jendeak Hong Kongen 2350 ordu lan egiten ditu, eta Parisen berriz 1550. Datuak batez ere manufaktura-industriako langileei buruzkoak dira.




○ Grafikoko datuen iturria aurrekoa (<<7) bezain sistematikoa ez den beste ikerketa bat bada ere, emaitza berdinak aurkezten ditu kasu askotan. Ipar Amerikan European baino ordu gehiago lan egiten dutela ere aipatzen du. Asian, mirari ekonomikoko eredutzat hartzen diren hirietan bereziki (Hong Kongen, Seulen, Singapurren eta Taipein), ordu gehiagoz lan egiten dela baieztatzen da.

Irudiaren neurrik harrigarriena mundu mailan dauden lanorduen aukerazabala da. Hong Kongeko, Mumbaiko edota Taipeiko batez besteko langile batek bere Pariseko, Kopenhageko edota Berlingo kideek baino 600 lanordu gehiago egiten ditu urtean. Desberdintasuna bai egunean ordu gehiago lan egiteagatik baita jaiegun gutxiago izateagatik ere sortzen da, eta horrek, gehiengoak onartuko lukeen bezala, bizi-kalitatearen mailan desberdintasun ikaragarriak sortarazten ditu; horiek ongizatea eta garapena neurtzerakoan kontutan izan beharko liriteke. Horrela egingo balitz, AEBek eta industrializatu berriak diren Asiako herrialdeek garapenaren araberako sailkapenetan duten posizio erlatiboa jaitziko litzateke.

► UBS 2003

9. Errentak alderatzeko bi modu

Kanbio-tasen araberako alderaketa



Erosteo ahalmenaren
parekotasunaren araberako alderaketa


- Bi mapa hauek herrialde bakoitzeko nazio produktu gordina erakusten dute, AEBetako dolarretara bihurtuta bi metodo ezberdin erabiliz: kanbio-tasen arabera eta eroste ahalmenaren parekotasunaren arabera.

- Beste gauzen artean, bi mapa hauek egunero aurkitzen ditugun estatistika ekonomikoaren arriskuak erakusten dizkigute. Azken urteotan, eroste ahalmenaren parekotasunaren metodoa erabiliz herrialdeetako nazio errentak alderatzeko kalkuluak gero eta eskuragarriagoak dira. Datuok kanbio-tasak erabiliz egindako kalkuluekin batera daude eskuragarri eta horrek nahasmen handia sortzen du. Egun, estatistikariek, ekonomilariek eta nazioarteko erakundeek zifrak aipa ditzakete, kalkuluak egiteko zein metodologia erabili den zehaztu gabe. Baina metodo batak eta besteak munduko ekonomiaren irudi oso ezberdina ematen dute. Adibide gisa, “bere nazioarteko erantzukizunak onartu” eta bere ahaldutako ekonomia susper ditzan, Japonia munduko bigarren ekonomia dela aipatu ohi da. Baina hori kanbio-tasen bihurtetarako erabiltzen direnean bakarrik da egia. Eroste ahalmenaren parekotasunaren bihurtetarako erabiltzen direnean Txina da, eta ez Japonia, munduko bigarren ekonomia, eta alde handiz gainera. Txinako gastu militarra AEBetakoaren erdia da, eta ez hamarrena. Beraz, eaparen arabera zifrek munduko irudia aldatzen dute, eta modu askotan gainera.

Alderaketa baliagarriagoa egitea ahalbidetzen duten heinean, eta eskuragarri direnean, eaparen arabera zifrak erabiltzen ditut liburu honetan. Bi mapa hauetan ikusten den bezala, eaparen metodoak herrialde txiroenen errenta-mailen estimazioak igotzen ditu (Asiako herrialde handietan bereziki). Aldaketa horrek ez du esan nahi herrialdeen arteko desberdintasun-maila lehen baino txikiagoa denik; berdina da, baina neurtzerakoan ezezagunagoa (baina aldi berean zuzenagoa) den metodo berri honetara ohitu behar dugu.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

10. Lanarekin eros daitekeena, 2003




- Mapa honek hainbat herrialdetako pertsonen arteko eros ahalmen errearen desberdintasunak neurtzen ditu, 9. grafikoko beheko maparen oinarri diren zifrek duten zehaztasun maila baino xehetasun apalagoaz bada ere. Ikerketa honetan, hainbat hiritan oinarritzko jakien kilo bat (arroz edo ogia) edo luxuzko jakien kilo bat (hanburgesa bat) erosteko, batez besteko soldatarekin zenbat lanordu behar ziren kalkulatu zen. Denbora kopurua barra beltzen edo grisaren tamainaren arabera erakusten da. Ikerketa akastuna da baina, leku guztietan esanahi eta garrantzi bera izan ezin ditzaketen bi produktu erabili baitira.

- Ongizatearen nazioarteko desberdintasunen neurriekin nahasten diren horiei, ulertzeko errazagoa gerta dakieke diagrama hau. Bizi-maila materialeko nazioarteko desberdintasunak ikusteko modu sinplifikatua da. Prezioen, errenten, euroen eta dolarren mundua desmitifikatzen laguntzen du. Kontua da kontsumoak lana behar duela; eta honela luxuen eta beharren gure nozioak lanaren txanpon unibertsal bihurtu daitezke. Zerbait erosi ahal izateko adina diru irabazteko lan asko egin behar dugunean zerbait hori luxua da. Herrialde garatuetako hirietarako barra motzek kilo bat arroz edo ogi erosteko edo horren oinarritzkoa ez den hanburgesa bat erosteko ere, oso denbora gutxi lan egin behar dela esan nahi dute, hau da, ez bata ez bestea ez direla luxuak. Ikerketa honetan sartutako herrialde txiroetako hiri gutxi hauek barra luzeagoak dituztela ikusten da, hau da, pertsona batek lan gehiago egin behar duela janaria erosteko. Antza, herrialde txiroen eta aberatsen arteko barren luzeraren diferentziak erlatiboki handiagoak dira arrozaren edo ogiaren kasuan hanburgesaranean baino. Horrek ez du esan nahi hanburgesez horren luxuzkoak izateari utzi diotenik, pobreziaaren testuinguruan oinarritzko jakiak ere luxuzkoak direla baizik.

► UBS 2003

II. Errentaren desberdintasuna

11. Errentaren desberdintasun-mailak




- Diagrama honek herrialde barruko desberdintasun-maila alderatuen inguruko informazioa erakusten du. Puntuak biztanleriaren hamarren aberatsenaren errentaren ratioa (zergen eta dirulaguntzen ostean eta EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNA erabiliz alderatuta) txiroena den hamarrenarekiko adierazten dute 90eko hamarkadaren bukaeran eta 2000 urtearen hasieran.

- Gizarte bateko talde aberatsenak eta txiroenak alderatzea desberdintasuna neurtzeko modu ulergarria da. Mutur batetan, Namibian eta Lesothon hamarren aberatsenak txiroenak baino 100 aldiz altuagoa den errenta jasotzen duela kalkulatzen da. Latinoamerikako eta Afrikako hainbat herrialdetan ratioa 40 baino altuagoa da. Desberdintasunagatik bereizgarriak diren eta liburu honetan aurrerago aipatuko diren bi herrialde garrantzitsuk – Brasil eta Hegoafrikak – ratio nahiko antzekoak dituzte, 65 eta 70 artekoak hain zuzen ere. Beste muturrean, badira herrialde gutxi batzuk non oso aberatsen eta oso txiroen arteko ratioa 5 baino txikiagoa den. 10 baino ratio txikiagoa duten herrialde gehienak Mendebaldeko eta Erdialdeko Europan eta Asia hegoaldean zein ekialdean daude, azken aldi horietako batzuetan desberdintasuna handitu den arren (>>123). Irizpide honen arabera, desberdintasun gutxien duen munduko herrialdea Japonia da.

Mendebaldeko prentsan ohikoa da India bezalako herrialde batean dagoen desberdintasunaren inguruko mespretxuzko aipamenak ikustea. Beraz, honakoa azpimarratzeak merezi du: neurri baliagarri honen arabera, Erresuma Batuan eta AEBetan desberdintasunak Indian baino askoz handiagoak dira. Bai Erresuma Batuan bai AEBetan desberdintasun-neurri hau modu nabarian hazi da azken hamarkadetan. Mundua bere osotasunean hartuta, biztanleriaren hamarren aberatsen eta txiroen arteko ratioa 64 ingurukoa da, hots, Brasileko eta Hegoafrikako desberdintasun-mailaren parekoa (>>77).

► MUNDUKO BANKUA 2003b

12. %10 aberatsenak jasotzen duena




- Biztanleko BARNE PRODUKTU GORDINAREN EAP kalkuluak eta errenta-banaketaren inguruko Munduko Bankuaren datuak konbinatzen baditugu, herrialde bakoitzeko biztanleriaren %10 aberatsenaren batez besteko errenta maila zehaztu dezakegu, grafikoan puntu batez adierazten dena. Errenta erreala baxuagoa izatea gerta daiteke bpg guztia ez baitago erabilgarri kontsumo-gastuentzat.

- Hemen herrialde bakoitzeko aberatsen errenten arteko alderaketa ikusten dugu. AEBetako aberatsenak diren 28 milioi hirtar inguruk 100.000 dolar baino gehiago jasotzen du pertsonako urtean. AEBetako, Irlandako eta Hong Kongeko zifrak liga honetako beste herrialde batzuetakoak baino askoz ere altuagoak dira. Eskala honetako beheko muturrean, Afrikako herrialde gehienetan alegia, biztanleriaren %10 aberatseneko kide ertain batek, herrialde garatuenerako pertsona txiro ertain batek baino gutxiago jasotzen du.

Diagrama honetan herrialdeen ordenak desberdinak dira biztanleria osoaren batez besteko errentari erreparatzen diogunean. Adibidez, Espainiako aberatsenen errenta Namibiako edo Botswanako biztanle aberatsenen errenta baino apur bat altuagoa besterik ez da, Espainian orokorrean biztanleko errenta maila askoz altuagoa den arren. Gertakizun ezberdinei erreparatzea dakar, hau da, errentaren barne banaketari. Gizartearen eta ekonomiaren alde ugari eragiten dute gai horretan: jabetzaren kontzentrazioa; gizartean dagoen aberatsekiko mirespena; soldaten arteko desberdintasun-maila onargarrien inguruko adostasunak; finantza-erakundeen existentzia, burtsa-merkatuak kasu; eta, ziurrenik garrantzitsuena, zergen eta laguntza sozialen sistemaren progresibotasun-maila.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

13. Nor da hiper aberatsa?



- Goiko erronboak mundu osoko biztanleria irudikatzen du eta pertsona txiroen (eguneko dolar 1 edo 2 baino gutxiagorekin bizi direnen) eta miliodunen (milioi bat dolar baino gehiagoko aberastasuna dutenen) kopuru erlatiboa adierazten du. Bigarrenak, biztanleria milioduna irudikatzen du eta horietatik 30 milioi dolar baino gehiago dutenen ehunekoa azaltzen du; eta hirugarrenak, megamiliodunek (1.000 milioi dolar baino gehiago dutenek) 30 milioi dolarretik gora dutenen artean xurgatzen duten zatia agertzen ditu. Hemen, “aberatsa” ondarearen (aktiboen jabetzaren) arabera definitzen da, eta ez errenta terminotan.

- Aberatsei buruz ezer gutxi ezagutzen da. Hau beren ondarea babesteko asmoz sekretua mantentzea komeni zaielako ulertu liteke. Gainera, gizarte zientziek eta politikak pobrezia ideologikoki gizartearen sintoma patologikotzat dute, ez ordea aberatsa izatea.


Hemen bildutako aberatsen inguruko informazio mugatua ez diegu gizarte zientziei zor, finantza aholkularien enpresa bati baizik, Merrill Lynch-i. Enpresa horren *World Wealth Reporta*, beraiek “ondare garbi altuko norbanakoak” (HNWI, ingelesezko siglen arabera) deitzen dituztenentzat baliagarria izatea espero da, termino hau, zalantzarik gabe, aberatsekin lotu ohi diren bestelako adjektiboak (“ustela” edo “zekena” kasu) ahaztera zuzenduta dagoen eufemismoa baino ez delarik.

Munduko 7,1 milioi miliodunen artean (860 pertsonako bat), kalkulatu da 2,2 milioi Ipar Amerikan (bertako biztanleriaren %1), 2,6 milioi Europan, 1,8 milioi Asian, eta 650.000 inguru munduko gainerako tokietan daudela.

Miliodunak horren ohikoak izanik, ez da harrizkoa Meryll Linch-en interesak gero eta gehiago aberatsenengana zuzentzea, 58.000 U-HNWIetara (ondasun garbi ultra altuko norbanakoetar) eta horien arteko elitera (gutxi gorabehera 512 megamiliodunetara) hain zuzen ere.

► MERRILL LYNCH/CAP GEMINI ERNST & YOUNG 2003

14. %10 txiroenak jasotzen duena




● Puntu bakoitzak biztanleriaren %10 txiroenaren batez besteko errenta adierazten du, 12. grafikoa %10 aberatsenarentzat kalkulatu den modu berean. Eta lehen aipatu ditugun zalantza berak mahaigainera ditzakegu oraingoan ere.

○ Hainbat herrialdetako txiroen egoeraren arteko desberdintasuna, hemen argi eta garbi ikusgai dena, askoz ere garrantzitsuagoa da aberatsen arteko desberdintasun nazionalak baino. Aberatsak ondo bizi dira herrialde guztietan, baina horietako askotan, txiroek ezin dute fisikoki biziraun ere egin. Hemen ikusten dugunez, eta ez da harritzekoa, orokorrean herrialdeen batez besteko errentaren arabeko ordena eta txiroenen errentaren arabeko ordena bat datoz. Baina badira desberdintasun harrigarriak ere. Desberdintasun hauek erakusten dute, ohitura eta politika ekonomiko ezberdinek, ekonomikoki, politikoki edo ideologikoki oso antzekoak izan daitezken gizarteen artean desberdintasunak sortu ditzaketela. Japoniako eta Norvegiako %10 txiroenak AEBetan bere baliokide direnen bikoitza jasotzen du, eta bikoitza baino gehiago Erresuma Batuko %10 txiroenarekin alderatuta. Espainian txiroa izanda daitekeena da Erresuma Batuan baino egoera hobean egotea. Orokorrean, Europar Batasuneko txiroak AEBetako txiroak baino egoera hobean daude.

Zifra hauek, printzipioz, gabezia-maila absolutuak alderatzen dituzte, baina pobrezia-izaera soziala ez da kontsumo materialaren arabera modu egokian deskribatzen; esparru ekonomiko eta sozial berbera partekatzen dutenen gabezi erlatiboa ere barneratu behar baita.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

15. Nor da txiroa?




- Grafikoa Munduko Bankuaren errentaren pobrezia kontzeptuan oinarritzen da, horren arabera, errenta maila zehatz baten azpitik munduan bizi den pertsona kopurua kalkulatu delarik. Ezkerreko bi irudiek eguneko dolar bat baino gutxiagoko errenta duen pertsona kopuru absolutua, biztanleriarekiko suposatzen duen ehuneko eta 1990 eta 1999 artean izandako bilakaera adierazten dute. Eskuinekoak eguneko bi dolar baino gutxiagorekin bizi den pertsona kopuru absolutua adierazten du.

- Berehala munduko zifra ekonomiko aipatuak bihurtzen diren zifra horiek erakusten dute, munduko biztanleriaren bostena inguru pobrezia larri baxuenaren azpitik (dolar 1 eguneko) dagoela, eta biztanleriaren ia erdia, goiko pobrezia-larriaren azpitik (2 dolar eguneko) bizi dela. Bi lurralde txiroenetan, Hego Asian eta Sahara Azpiko Afrikan, ehunekoak oso motel jaitsi dira; Txinan eta Ekialdeko Asiako beste toki batzuetan berriz nahiko nabarmen jaitsi da; aldiz, gogor igo dira Sobietar Batasun ohiko herrialdeetan. Ekialde Ertainean eta Latinoamerikan ez dira aldatu. Estimazioak jasotzen duen hamarkadan, munduan bizi den pertsona txiroen kopuru osoa igo egin da eguneko 2\$eko definizio absolutuaren arabera.

Zifra hauek EROSTEN AHALMENAREN PAREKOTASUN terminoetan kalkulatu diren arren, gauza oso ezberdinak adierazten dituzte toki eta baldintza sozial desberdinetan. Toki askotan, egunean gehienez 2 dolarrekin bizi den pertsona, dolar batekin bizi direnak ez aipatzearren, gosez hilko lirake. Eta munduko txiro askori gertatzen zaiena horixe da. Baina hiltzen ez diren horiek diru-sarrera identifikagarri hori baino gehiago dute: elkartasun-sareen laguntza, pertsona batzuei pobrezia-errenta gogor eta luzeko egoeran bizirautea ahalbidetzen duelarik. Elkartasunak forma anitzak har ditzake: ongizate-estatua, familia, edo horren egituratuak egon ez arren garrantzi berdina duten beste batzuk, esaterako gizarte-lankidetzak kasu.

► MUNDUKO BANKUA 2003d

16. Desberdintasun-aldaketen bi adibide




- Irudiek, adierazitako epeetan hainbat errenta-talderen errenta errearen aldaketak erakusten dituzte; txiroenen taldea ezkerrean dago eta aberatsenena eskuinaldean. Errusiar Federakundearen kasuan biztanleria hamar taldetan banatuta dago (dezilak); Hegoafrikan, arraza-talde bakoitza bost taldetan banatuta dago, deziletan oinarrituta, baina ikusten den bezala, horietako hainbat bilduta daude.

- Irudi biek desberdintasun hazkorreko garai batean gertatzen dena erakusten dute. Errusiar Federakundearen, Sobietar Batasun ohiko beste herrialde guztietan bezala, kapitalismora iragatea traumatikoa izan da (>>128-30). Ezkerreko irudiak, trantsizio horrek sortutako ordainaren eta talde ekonomikoen hierarkiaren arteko lotura estua dagoela erakusten du. 90eko hamarkadan talde guztiak txirotu ziren, baina txiroenei okerrago joan zitzaizkien, aberatsenak gutxiago sufritu zuten bitartean. Antzeko kasu ugari dago Latinoamerikan Egiturazko Doikuntza Programen ondorioz.

Apartheid osteko Hegoafrikan, berdina gertatu zen lau arraza-taldetan. Kasu guztietan, zurien taldean salbu, dezil aberatsena aberatsago bihurtu zen, eta mestizoen taldean izan ezik, dezil pobreenak txiroagotu ziren. Baina, talde guztietan aldaketek desberdintasun maila areagotu zuten. Hala ere, arraza-talde ezberdineko aberatsenen arteko desberdintasun-maila apur bat gutxitu zen. Zuri, mestizo eta indiar aberatsenek beren egoera erlatiboa hobetu zuten zurien dezil guztiekiko. Baina gehien galdu zuten taldea beltzen %40 txiroena izan zen, hauek herrialdeko biztanleria osoaren heren bat inguru direlarik.

► KISLITSYNA 2003; PNUD HEGOAFRIKA 2000

17. Desberdintasunaren hazkundera AEBetan, 1960–2001




- Ezkerreko irudiak AEBetako bost errenta-iturriren indizeen bilakaera erakusten du 1960 eta 2001 artean. 1960an guztiak 100ean hasten dira; beraz, indizeek errenta-aldaketak neurtzen dituzte eta ez errentaren maila. Eskuineko irudiak AEBetako errenta-banaketaren aldaketak erakusten ditu epealdi berdinerako. Geruzek biztanleriaren errenta bostenetan (kintiletan) nola banatzen den adierazten dute; lerroak (eskuineko ardatzarekiko neurtua) bosten aberatsenaren eta bosten txiroenaren arteko ratioa erakusten du..

- Irudiek azken hamarkadetan AEBetan indartsu hazten ari den desberdintasunaren historia kontatzen dute. Ezkerrekoan honakoa ikus daiteke: azken 40 urtetan batez besteko nazio errenta termino erlatiboetan bikoiztu den bitartean, produkzio-langile baten ordainsaria eta gutxieneko soldata apenas aldatu dira. Epealdi berean, hein batean jabeen diru-sarrerak zehazten dituen akzioen prezioen balioa (Dow Jones indizearen arabera neurtua) hirukoiztu egin da. Eta are ezohikoagoa dena, enpresetako presidente exekutiboek jasotzen dituzten soldatak 14 aldiz inguru handitu dira. Klase-desberdintasunean oinarritutako polarizazioa egon da beraz. Kapitalaren jabeek eta kudeatzaileek oparoaldia jaso dute, soldaten edo prestazioen mende daudenek ezer gutxi irabazi duten bitartean.

Eskuineko irudiak 1975tik aurrera gertatu den desberdintasunaren bizkortze itzela erakusten du. Biztanleriaren bosten aberatsenaren errentaren ratioa, bosten txiroenarekin alderatuta adierazten duen lerroa 7 inguruko baliotik, 70eko hamarkadan, ia 11raino igotzen da 90eko hamarkadaren erdialdean. Eta kintilen arteko banaketa erakusten duten bost eremuek, agerian uzten dute aberatsak txiroen kontura onuratu direla (<<16).

► EPI 2003; BUSINESS WEEK 2003; GLOBAL FINANCIAL DATA 2003; UNITED STATES CENSUS BUREAU 2003a.

18. Munduko banaketa I: desberdintasunen hiria




- Herrialde bakoitzeko batez besteko errenta mailaren datuak (2001eko eapko dolar alderagarrietan) biztanleriaren dezil bakoitzak (hamarrenak) jasotzen duen zatiaren informazioarekin konbinatu daiteke talde bakoitzaren errenta implizitua kalkulatu ahal izateko. 11. 12. eta 14. grafikoetan jada talde aberatsentzat eta txiroentzat egin dena, hemen talde guztientzat egiten da, hauek hiru dimentsioko diagrama batean azaltzen direlarik; bertan, barra bakoitzaren altuerak dagokion talde bakoitzaren errenta maila adierazten du. Ezkerretik eskuinera igarotzerakoan herrialde txiroenetatik aberatsenetara pasatzen gara; atzetik aurrera, biztanleria nazional bakoitzeko talde (dezil) aberatsenetatik txiroenetara pasatzen gara. Herrialde bakoitzak, bere populazioaren baliokide den atzetik aurrerako barra-ilara kopuru bat du (ilara bat 10 milioi pertsonako). Honen emaitzak mundu osoko biztanleriaren arteko errenta-banaketa irudikatzen du. Herrialde batzuk, zehazki esanda euren %10 altuena beste herrialdeekiko bereziki aberatsa duten herrialdeak, grafikoan adierazita daude.

- Irudi harrigarri honek munduko errentaren banaketa hiri bat bailitzan erakusten du, non etxadi bakoitzak herrialde bateko biztanleriaren hamarren bat irudikatzen duen, eta eraikinaren altuerak bere batez besteko errenta erakusten duen. Hondoko angeluan gehien gailentzen dena etxe orratza da, edo hobe esanda Trump Dorrea, AEBetako hamarren aberatsenaren errenta adieraziz. Askoz zailagoa da eraikin baxuagoen etxadiak bereiztea, herrialde txiroenetako talde txiroenak gertuen dagoen angeluan adierazten dituzte. Irudiak honakoa adierazten du: munduko desberdintasuna zein neurritan den herrialdeen arteko eta herrialdeen barruko desberdintasunen konbinaketa.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

19. Hiriko xehetasunak



- Aurreko irudia bere oinarritzko elementuetan desegingo bagenu itxura hau izango luke. Barra hauen bidez 12 herrialdetako laginaren errenta-banaketa ikusten dugu, hamarren aberatsenaren eta txiroenaren errenta-maila dolarretan adierazten delarik.

- Aurreko grafikoan erakutsitako informazio berberaren lagin bat ikusteko beste aukera bat ematen da. Herrialdeen arteko desberdintasun mailen arteko aldeak deigarriak dira irudiak banatzerakoan. Orain aukeratutako herrialdeen artean, hamarren aberatsenaren eta txiroenaren arteko errentaren ratioa 30:1 baino altuagokoa dutenak badira (Mexiko, Hegoafrika eta Brasil), eta beste laurek 10:1 baino txikiagoa den ratioa dute (Espainia, Indonesia, India eta Etiopia)($\ll 11$).


Nazioarteko desberdintasuna kuantitatiboki txikiagoa da aberatsen artean txiroen artean baino. AEBetako talde aberatsena Nigeriako talde aberatsena baino 30 aldiz gehiagoren jabe da, herrialde berdinetako talde txiroenen arteko ratioa 48tik 1erakoa den bitartean.

Berriro ere, zifra horiek guztiak erosteko ahalmenaren parekotasuna adierazten duen moneta-unitatean erabili dira. Hala ere, muga garrantzitsuak egon badaude. Adierazgarria da AEBetako hamarren txiroenak Indiako hamarren aberatsenak eros dezakeenaren bi heren eros dezakeela gutxi gorabehera. Baina horien arteko gizarte-kokapena nekez izan zitekeen desberdinagoa. Horiek bezalako neurri materialetatik haratago desberdintasunaren beste dimentsio asko daude.

Dena den, AEBetako hamarren aberatsenaren hiritar ertain batek Nigeriako txiroenak jasotzen duena baino 800 aldiz gehiago jasotzeak munduaren egoerari buruzko egitate garrantzitsua eta ikaragarria izaten jarraitzen du.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

20. Munduko banaketa II: desberdintasunen eremua




- Hemen 18. grafikoaren informazio berbera dugu baina modu ezberdinean erakutsita. Munduko errenta-banaketaren mapa topografikoaren antzeko zerbait da. Eremu osoak munduko biztanleria adierazten du, ezkerretik eskuinera herrialdeak errentaren arabera ordenatuta (txiroenetatik aberatsenetara), eta goitik behera herrialde barruko errentaren arabera adierazita (abersatsenetatik txiroenetara). Bandek elkarren segidako errenta-mailak irudikatzen dituzte AEBetako hamarren aberatsenaren errentaren ehuneko gisa neurtua. Beraz irudi hau, 18. grafikoko hiria oihal erraldoi batekin estali eta mapa topografikoa marraztu balitz bezalakoa da.

- Grafiko hau munduko biztanleria irudikatzen duen azalera bezala uler daiteke: herrialde txiroenetako txiroenetatik, ezkerreko behe-angeluan kokatuak, herrialde aberatseneko aberatsenetaraino, eskuineko goi-angeluan. Munduko biztanleriaren proportzio oso txiki batek (txuriz eskuineko goiko muturrean) errenta-tarte gorena jasotzen du (AEBetako hiritar aberatsenen errenta-mailaren %80 eta %100aren artean). Munduko biztanleriaren gehiengo neurrigabeak (beltzez) erreferentzia-mailaren %10 baino gutxiago jasotzen du. Ezkerretik eskuinera, hots, herrialde txiroenetatik aberatsenetara mugitzen garen heinean, inguramen-lerroa hain maldatsua izateak herrialde-talde horien arteko kontraste gogorren neurria ematen digu. Tarteko herrialde oso gutxi dago; Iparraren eta Hegoaren arteko banaketan desberdintasuna nahikoa argi dago. Gertakari iraunkor horrek aski justifikatzen du mundua zatiketa binario horren arabera aztertzea. Munduko erdibideko biztanleriaren gehiengoa (gris-ñabardura ezberdinetan dagoena) banaketa honen arabera sailkatuz, berau herrialde aberatsenetako klase ertainetaz eta txiroetaz, eta neurri txikiago batean, herrialde azpigaratuetako klase aberatsenetaz osatua dagoela ikus daiteke.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

21. Munduko banaketa III: altua, baxua eta batez bestekoa




- Aurreko hiru grafikoetako informazio bera beste era batera erakusteko modua dugu hemen. Barra bakoitzak herrialde bat ordezkatzen du. Barraren goiko muturrak %10 aberatsenaren batez besteko errenta adierazten du; beheko muturrak, %10 txiroenaren errenta, eta erdiko lauki beltzak herrialde bakoitzeko batez besteko per capita errenta. Marra-lerroak munduko batez besteko errenta adierazten du.

- Herrialdeak ezkerretik eskuinera ordenatuta daude per capita errentaren arabera. Ezkerretik eskuinera lauki beltzak jarraitzen baditugu, lehen aipatu dugun munduko errenta-banaketaren ezaugarri bat oso nabaria egiten zaigu: errenta-maila baxuko herrialde asko dago, gutxiago dira errenta-maila altua dutenak eta oso gutxi bi talderen artekoak. Grafikoan ezaugarri hori argi geratzen da, igoera azkarra ematen delako 8.000 eta 20.000 dolar inguruko batez besteko errenta-maila duten herrialdeen kasuan. Goranzko maldaren ordez ia koska bat dago beheko mailatik goiko mailara. Datuak ikusteko modu honen beste ezaugarri bat honakoa da: herrialde barneko errenta altuenek eta baxuenek (barra bakoitzaren goiko eta beheko muturrak) ez dute batez bestekoen itxura berdina. Beraz, herrialde arteko barne-errentaren banaketan alde handia dago. Esaldi ospetsua parafraseatuz: herrialde batzuk beste batzuk baino desberdinagoak dira.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

22. Lanaren ordainsari desberdina




- Grafiko hauek 11 lanposturen batez besteko soldatak alderatzen dituzte, munduko 12 hiritan. Ezkerrekoak hiri bakoitzeko soldaten profila erakusten du. Lanpostuen ordena Bartzelonako datuak jarraiki erabaki da. Horregatik, Bartzelonako profil-lerroa ezkerretik eskuinera etengabean igotzen da; besteek ez dute berdina egiten. Eskala logaritmikoa denez, soldaten gama dirudiena baino zabalagoa da. Eskuineko grafikoaren barrek hoberen eta okerren ordainduta dauden soldaten arteko ratioa erakusten du, aurreko 12 hiritarako.

- Hiri bakar batek ere ez du Bartzelonako soldaten hierarkia bera zehatz-mehatz errepikatzen. Lanpostuen arabera, hiri bakoitzean balio ezberdina jasotzen dute (eta hainbat kasutan, izen bereko lanak ez dira erabat baliokideak). Hiri gehienetan, ordea, eraikuntzako langileak eta dendariak konparatiboki gaizki ordainduak daude, eta ingeniari eta departamentu-buruak konparatiboki ondo ordainduak. Diru-sarrera maila oso ezberdinak diagrama berean adierazteko grafikoa logaritmikoa dela kontutan hartu behar dugu. Baina aukerak oso zabalak dira. Adibide honetan, soldata gordin gisa urtean 82.000 US\$ jasotzen duen New Yorkeko departamentu-burua eta urtean 800\$ jasotzen duen Nairobiko eraikuntzako langilea aintzat hartzen dira. Bistakoa da enplegatuen soldaten arteko desberdintasunek modu nabarian laguntzen dutela aurreko grafikoetan ikusitako herrialdeen arteko desberdintasunak sortzen. Hala ere, aurrekoetan ikusitako desberdintasunak grafiko hauetakoak baino are handiagoak ziren. Beraz, enplegatuen soldaten desberdintasunak baino eragile gehiago egon behar dira errentaren desberdintasunak azaltzerako orduan. Bigarren grafikoak soldaten desberdintasun handienak dituen hiria Johannesburg dela erakusten du, eta desberdintasun txikienak Bartzelonan ditugu. 11. grafikoaren eta honen arteko alderaketak honakoa iradokitzen du: herrialde askotako aberatsenak eta txiroenak ez dira lan-kategoria horietakoak. Baliteke lehenengoen soldatak jaso beharrean, mozkinak, dibidenduak eta interesak jasotzea; eta bigarrenen artean, batzuk langabetuak izatea.

► UBS 2003

23. Errentaren eta giza garapenaren alderaketa



• Beheko mapak mundua hiru kategoriatan banatzen du, PNUDen (Garapenerako Nazio Batuen Programa) Giza Garapenaren Indizean dagokien balioaren arabera. Goiko mapak (9. grafikoan ikusitakoaren bertsio sinplifikatua), herrialdeak dolarretan per capita errentaren arabera banatzen ditu, erosteko ahalmenaren parekotasunaren estimazioen bidez bihurtuak.

○ Orain arte grafikoak desberdintasun ekonomikoetan zentratu dira. Grafiko hau kutsu ekonomiko gutxiago duten beste adierazle konparatibo batzuen erabilpenerako zubia da. 1990ean, PNUDek, bere Giza Garapenaren urteroko Txostenean, garapenaren neurri nagusi gisa per capita errenta kentzeko saiakera egin zuen. Garapena ikuspegi zabalgotik begiratzea gomendatzen zuen, giza gaitasunen hazkunde gisa alegia, eta beste era batera neurtzea ere proposatzen zuen. Bere Giza Garapenaren Indizea (gutxieneko balioa 0 eta gehienezkoa 1) hiru adierazleren arteko batez besteko konplexua da:

- Per capita nazio-errenta bere maila altuenetan doitua, herrialdeak beren hazkunde ekonomiko kuantitatibo soilagatik sarituak izan ez daitezkeen,
- Osasunaren neurria (bizi-itxaropena jaiotzean).
- Garapen kulturalaren neurria (helduen alfabetatzeaz eta lehenengo, bigarren eta hirugarren hezkuntzan matrikulatutako gazteen ehunekoaz osatutako indize konposatua).

Hiru osagai horiei pisu berdina ematen zaie indize orokorra kalkulatu ahal izateko.


PNUDek honakoa azpimarratzen du: giza garapenerako errenta altuagoa ez da baldintza beharrezkoa, ezta nahikoa ere. Batik bat osasunari eta hezkuntzari lehentasuna ematen dioten gobernu-politika zehatzek baldintzatzen dute giza garapenaren maila.

► PNUD 2003a; MUNDUKO BANKUA 2003b

III. Desberdintasunak jaiotzan, osasunean, bizitzan eta heriotzan

24. Munduko biztanleriaren egitura

Mundu osorako estimatua, guztira, 10:00 GMT 2004ko ekainaren 30ean
6.375.639.546



- Laukizuzenaren azalera osoak munduko biztanleria adierazten du. Zabalera ezberdineko tarte horizontaletan banatzen da zehaztutako eskualdearen biztanleriaren arabera, eta tarte bertikaletan (itzal-maila ezberdinekin) adinaren 3 taldeen arabera.


- Nazio Batuetako demografoen arabera, mundu biztanleriak 6 mila milioiak gainditu zituen 1999ko urrian. Horrek honakoa esan nahi du: lau aldiz gehitu da XX. mendean, urtero %1,6ko tasan. Giza bitzita hasi zenetik, hazkunde-tasa %0,002koa izan da urtero.

Biztanleriaren hazkunde azkarraren arrazoia ez da jaiotza-indizearen gehikuntza, baizik eta ia mundu osoko heriotza-tasaren jaitsiera. Gertakari hori lehen aldiz eman zen tokietan, herrialde industrializatuetan,aldi berean jaiotza-tasak gogor jaitsi ziren. Aldaketa horien ondorioz, proportzionalki pertsona heldu gehiago eta adin txikiko gutxiago daude; hau da, biztanleria zahartuz doa. Grafikoak argi erakusten du. 15 eta 65 urte bitartean dauden pertsonen proportzioa oso antzekoa da eskualde guztietan, baina pertsona helduen eta adin txikikoen proportzioa alderantziz aldatzen da. Horren ondorioz, garapen bideko herrialdeetako biztanleriaren proportzio oso altua gaztea da. Eta garatutako herrialdeetan etengabe hazten ari den biztanleriaren proportzio bat 65 urtetik gorakoa da.

Mendekotasunaren ratioa horrela adierazi ohi da: 15 urtetik behera eta 65tik gora dagoen biztanleria, 15 eta 65 bitartean dagoen biztanleriarekin alderatuz. Kontzeptu demografiko honen balio soziala eta ekonomikoa mugatua da: 16 eta 64 urte bitarteko pertsona batzuk ekonomikoki mendekoak dira eta, bestetik, 15 urtetik beherako edo 65etik gorako batzuk ez.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

25. Bizi-itxaropenean dauden aldeak



- Goiko mapan herrialde bakoitzeko bizi-itxaropena jaiotzean dugu ikusgai. Beheko mapan, gaitasungabeziaren arabera doitutako bizi-itxaropena agertzen da, edo Osasunaren Mundu Erakundeak deitzen dion bezala, bizi-itxaropen osasuntsua.

- Arretaren zati handi bat bizi itxaropena jaiotzean adierazlean mantentzen da.

Adierazle hau, gaur jaiota eta egungo heriotza-tasak adin jakin batean etorkizunean berdin jarraituz gero, pertsona bat ziurrenik bizi daitekeen itxarondako urte kopurua litzateke. Heriotza-tasak erortzen jarraitzen badu, adierazle honek gaur jaiotako pertsona baten bizi-itxaropenaren urte-kopurua gutxietsiko luke. Garatutako herrialdeetan eta Mendebaldeko Asiako, Ipar Afrikako, Ekialdeko Asiako eta Latinoamerikako herrialde gutxi batzuetan, pertsonak, batez beste, 70 urteko muga biblikoa gainditu dezakete. Beste aldean, herrialde gutxi batzuetan, batez ere Afrikan, bizi-itxaropena 40 urte edo gutxiagokoa da.


Era zabalean erabilitako adierazle honek, Giza Garapenaren Indizearen hirugarren zatia osatzen du. Egunerokotasunez kalkulatzen da ia herrialde guztietarako eta neurtzeko zailagoak diren beste adierazle batzuek berebiziko eragina dute bere gain, hala nola, nutrizio-mailak eta osasun-zerbitzuak izateko aukerak, baita azken hauen kalitateak ere.

XX. mendean zehar, bizi-itxaropena hazi egin zen herrialde gehienetan, guda garrantzitsuek, gosetek eta izurriek (gaur egungo HIESak bezala) sortutako ohiko zoritxar iragankorrak jasan arren (>>128-129).

Osasunaren Mundu Erakundeak beste adierazle alternatibo bat ere kalkulatzen du: bizi-itxaropen osasuntsua. Honen bidez, adierazlearen balioa murrizten da gaitasungabeziaren edo gaitasungabeziaren itxaropenaren kalkulu baten bidez. Adierazle berri honen herrialdeen arteko banaketa, doitu gabeko bizi-itxaropena baino desberdinduagoa da.

► OME 2003

26. Trantsizio demografikoak



Jaiotza-tasa Heriotza-tasa 1.000 biztanleko


- Irudiek, lagin gisa hartu ziren 8 herrialderen jaiotza eta heriotza tasa orokorren bilakaera erakusten dute, 1960 eta 2001 artean.

- 8 herrialde hauen duela gutxiko esperientziak lehen esandako heriotza-tasaren beheranzko joera orokortua erakusten digu; baina, era berean, aldaketa demografikoaren patroia uniformea izatetik oso urrun dago. Brasil, India, Mexiko eta Hego Korea ez dira esperotako eredura atxikitzen; heriotza-tasen erorketa eta ondoren jaiotza-tasen erorketa, denboraren iraganaren ondorioz biztanleriaren hazkundearen gutxitzea dakarrena. Prozesu horri trantsizio demografikoa deritzo. Baina Afrikako 2 herrialdetan, Etiopian eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, jaiotza-tasa apenas erori da heriotza-tasek beherakada izugarria izan duten arren. Errusia kasu berezia da alderdi guztietan. Herrialde horrek hilkortasun-krisi handia bizi du gobernu komunistaren erorketa baino lehenagotik, honen arrazoiak oraindik eztabaidan egonik; era berean, jaiotza-tasen beherakada gogorrak biztanleriaren hazkunde negatiboa ekarri du. Espainia ere beste kasu berezi bat da, Europako herrialde gehienetan gertatzen ari denaren muturreko adibidea. Heriotza-tasak minimo batera heldu dira eta pixkanaka gorantz doa biztanleria zahartzearen ondorioz. Hori ez da bizitza luzeagoaren ondorio soilik, baita jaiotza-tasaren beherakada garrantzitsuaren ondorio. Etorkizun hurbilean, gaur eguneko joeren arabera, Europa osoko jaiotza-tasak heriotza-tasak baino baxuagoak izango dira eta biztanleria nabarmenki jaitsiko da.

Egun, eztabaida gai zabala da despopulazioa eta biztanleriaren zaharkitze-prozesua ekidinezinak diren ala ez. Era berean, eztabaida gai dira elikagai hobeak izateak, medikuntza-lorpenak eta birsorkuntzari buruzko erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izateak zeharkako efektu desiragarriak dituzten ala ez.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

27. Biztanleria-egituren alderaketa



- Biztanleriaren piramideek populazioa adin eta sexu taldeetan erakusten dute, herrialde bakoitzeko 2000. urteko populazio osoaren arabera ehunekotan neurtuta.


- Piramide horiek, aldaketa demografikoek eragindako gizartearen eraldaketaren irudi oso grafikoa dira. Edozein eraldaketa demografikoa gertatu baino lehen, adin-talde bakoitzeko populazioa bere gainekoa baino handiagoa da. Jaiotza eta heriotza tasa altuek oin zabaleko piramidea eta guztizko zenbakien egonkortasuna (hazkunde txikia agian) mantentzen dute, Kongoko Errepublikoa Demokratikoa kasu. Hasieran, heriotza-tasaren erorketak, batez ere umeen heriotza-tasan, piramidearen oina zabaltzen eta populazioaren hazkundera azkartzen du. Azkenean, jaiotza-tasak erortzen diren heinean, piramidea estutu egiten da oinean (Mexiko) eta dorre bat bihurtzen da (Hego Korea); muturreko kasuetan, alderantzizko piramide bihurtzen (Espainia) eta populazioa berriro egonkortzen edo gutxitzen da.

Populazioen adin-egitura, gizarte nazionalen arteko desberdintasunen arrazoi nagusietako bat da. Herrialde bakoitzaren beharrian eta lehentasunak baldintzatzen ditu. Gazteen proportzio altua duten herrialdeentzat ezinbestekoa da hezkuntza eta haurren osasuna izatea, gero eta handiagoa den lan-indarrarentzako enplegua izateaz gain. Helduagoa den gizarteetan, jaiotza-tasa baxuekin, pertsona helduen osasuna izango da garrantzitsuagoa, baita horien pentsioak eta pentsio horiek nola ordaindu ere. Eraldaketa demografikoan dauden gizarte gehienak bigarren mailako arazoetan bete-betean murgildurik aurkitzen dira, eraldaketa demografikoak dakartzen lehen mailako arazoak guztiz konpondu gabe. Gainera, zahartzarekin lotutako arazoek, guztiz aurreikusgarriak izan arren, prestatu gabeko gizarte gehienak ezustean hartu ditu.

► NBE 2004

28. Biztanleriaren gutxiengoa

Emakumezkoen ehunekoa populazioan



- Lerroek emakumezkoen ehunekoa guztizko populazioan erakusten dute, 1960-2001 epean munduko populazioa eta eskualde handiak hartuz.

- Orokorki eta zuzenki hedatuta dago emakumezkoek, giza edo arrazoi naturalak direla eta, gizonetzkoek baino gehiago bizitzeko joera dutela. Beraz, badirudi zahartzea populazioan emakumezkoek duten proportzioaren hazkunderekin lotu behar dela. Hala ere, ziur asko, mundu mailan garrantzi demografikoa duen gutxien ezagutzen den gertaera honakoa da: gutxienez 1960tik aurrera, gizonetzkoek osatzen dute biztanleriaren gehiengoa, eta gehiengo hori, orain dela gutxira arte, era konstantean hazten zihoan. Hori da grafiko honetan munduari dagokion lerroak adierazten duena.

Baina munduko batez bestekoa ez da osatzen duten eskualde handien erakusle. Diagrama horretan ikus dezakegunez, emakumezkoen ratioa gizonetzkoenarekin alderatuta, nahiko ezberdinak diren lau maila daude:

A: Ekialdeko Europan emakumezkoen gehiengo nabaria da, alde batetik II. Mundu Gerran izandako gizonetzkoen heriotza-tasa altuen eraginagatik eta, beste aldetik, aparteko heriotza-tasa altu horiek mantendu izanagatik (>>128-129, 132).


B: Garatutako herrialdeetan konbergentzia gertatu da eta emakumezkoak biztanleriaren %51 dira. Honen arrazoiak: biztanleriaren zahartze-prozesua, immigrazioaren egitura demografikoa eta II. Mundu Gerraren efektuen murriztapena.

D: Hego Amerikan, Sahara Azpiko Afrikan eta Hego Ekialdeko Asian beste konbergentzia bat ematen da emakumezkoen gailentze txiki baten inguruan (biztanleriaren %50,5 gutxi gorabehera)

E: Mendebaldeko, Ekialdeko eta Hego Asian gizonetzkoen gehiengoa argia da. Beraz, horiek dira mundu mailako gizonetzkoen gehiengoaren erantzule.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

29. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzionaltasuna




- Ezkerreko diagramak 2000. urtean emakumeen gehiengo esanguratsuenak dituzten herrialde guztiak erakusten ditu. Eskuinaldean, aldiz, gizonezkoen gehiengo esanguratsuenak dituzten herrialdeak daude. Mapan, gizonezkoen gehiengoa duten herrialde guztiak itzalarekin daude.

- Biztanleria nazionalaren sexu bidezko zatiketaren zifrek hainbat gauza adierazten dizkigute. Batak laneku etorkinarekin du zerikusia. Golkoko eskualdeko petrolio-ekoizle diren herrialdeek gizonezkoen proportzio handia dute; horren arrazoia honakoa da: duela gutxi lortutako aberastasunak eta populazio baxuak Asiako beste herrialdeetako langile etorkinen beharrean izatera eraman ditu eta etorkin horiek gizonezkoak dira gehienbat. Beste muturrean, emakumezkoen gehiengoa duten herrialde batzuek txaponaren beste aldea erakusten digute; emigrazioko herrialdeak daude, adibidez Karibeko irlak, non emigrante gehienak gizonezkoak diren. Emakumezkoen gehiengoa duten herrialdeen bigarren kategoria Sobietar Batasun ohia osatzen zuten herrialdeez eta Ekialdeko Europako beste herrialde batzuek osatua dago. Hildakoen ondorioz, bai Hitlerren inbasioa edo Stalinen errepresioa zela eta, izandako gizonezkoen izugarriko defizitak oraindik irauten du adinekoen artean. Baina emakumezkoen gehiengoa, gutxituz joan den arren, ez da Europako beste herrialdeetakoetara hurbiltzen. 90eko hamarkadan izandako helduen heriotza-tasaren bat bateko hazkundeak eragin handia izan zuen gizonezkoengan; hazkunde hori alkoholaren kontsumoaren igoerari gogor lotua dago.

Baina populazioan sexuen arteko oreka ezartzen duten herrialdeak Asiako herrialde handiak dira, batez ere Txina eta India erraldoiak, bietan gizonezkoak nagusi izanik.

► MUNDUKO BANKUA 2003b; NBE 2003

30. Emakumezkoen bizi-itxaropena, gizonezkoekin alderatuta



● Ezkerreko taulak honakoa erakusten du: 2001. urtean emakumezkoen bizi-itxaropena gizonezkoena baino gutxienez %10 handiagoa zen herrialde guztiak (mapan zuriz). Eta eskuineko taulan, %5etan edo gutxiagotan gizonezkoena gaintitzen zuen herrialdeak ditugu (mapan beltzez). Munduko herrialde gehienetan, desberdintasuna %5 eta %10 artean dago (mapan grisez)



○ Munduko herrialde guztietan, seitan salbu (Swazilandian, Bangladeshen, Lesothon, Nepalen, Zimbabwen eta Botswanan) emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago bizi dira. Horietariko batzuetan, HIESa epidemiaren ondorioa izango da. Gizonezkoak gehiengo diren herrialde gehienetan, emakumezkoen bizi-itxaropenaren nagusitasuna %5ekoa baino txikiagoa da. Era berean, emakumezkoen gehiengo nabaria den herrialde gehienetan, beren bizi-itxaropena gizonezkoena baino %10 baino handiagoa da.

Estatistika nazional guztiak bezala, herrialdeak ez dira homogeneous beharrez. Baina, oro har, zailagoa da herrialde barneko taldeetako edo eskualdeetako datuak lortzea. Hala ere, kasu honetan AEBetako hainbat komunitate etnikoren datuak daude. Herrialde horretan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bizi-itxaropenaren aldea %5 eta %10 artean dago. Hala ere, bai jatorriz diren emakumezko amerikarrak bai emakumezko afroamerikarrak, komunitate horietako gizonezkoak baino %10 baino gehiago bizi dira. Demografikoki errusiarrekin edo ukrainiarrekin antz handiagoa dute, estatubatuar zuriekin baino.

Ia toki guztietan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago bizi badira, zergatik dago guztira emakumezko gutxiago, gizonezko baino? Erantzun bakarra da posible eta hurrengo grafikoan ikusiko dugu.

► OME 2002

31. Gizonezkoak eta emakumezkoak: adinaren, garaiaren eta garapenaren eragina



- Lerroek zera erakusten dute: emakumezkoen gizonezkoekiko kopuruaren ratioa, populazioaren adin-talde bakoitzeko. Goiko diagraman munduko biztanleria ikus dezakegu, 3 urte ezberdinetan. Behekoan, garatutako eta garabideko herrialdeen ratioak bananduta daude, 2000. urtean.


- Giza populazioaren sexuen araberako ratioaren patroia argia nabarmentzen da. Gizonezko gehiago jaiotzen da emakumezko baino; beraz, lehen urteetan gizonezkoak gehiago dira (100 emakume baino gutxiago, 100 gizoneko). Baina gizonezkoen heriotza-tasa emakumezkoena baino altuagoa izaten da eta, horrela, gizonezkoen nagusitasuna gradualki desagertuz doa adin handiagoko taldeetan. Eta adin-talde hauetan, emakumezkoen bizitza-luzera handiagoak honakoa adierazten du: i) emakumezkoen gehiago haziz doa, eta ii) gehiago hori gero eta handiagoa egiten da, denbora aurrera doan heinean. Beheko diagramak efektu hori argia dela erakusten du, bai garatutako bai garabideko herrialdeetan; era berean, efektua nabariagoa da garatutako herrialdeetan, garabideko herrialdeetan baino. Goiko diagramak adierazten duen bezala, azken 50 urteetan efektua hain nabaria ez izatearen arrazoia da desberdintasun hori: garabideko herrialdeak, gizonezkoen gehiago nabariarekin, munduko populazioaren zati gero eta handiagoa osatzen joan dira.

Beheko diagraman zera ikusten da: adin txikienetan gizonezkoen nagusitasuna eta zahartzen doazen heinean emakumezkoen nagusitasuna. Nagusitasun haien arteko aldaketa garatutako herrialdeetan 40 urte inguruan ematen da eta, garabideko herrialdeetan, 60 urte inguruan. Halaber, desberdintasun horrek mundu mailako gizonezkoen gehiengo azaltzen du hein handi batean. Ikusi dugun bezala, garabideko herrialdeek erlatiboki jende gutxiago dute helduen taldeetan, zeinetan emakumezkoen gehiengo dagoen. Eta herrialde horien populazioaren proportzioa handituz joan da munduko populazioan.

► NBE 2004

32. Gizonezkoak eta emakumezkoak: geografiaren eta migrazioaren eragina

Emakumezkoen kopurua 100 gizonezkoko, 2000



- Lerro hauek aurreko orrialdeko informazio bera erakusten dute, baina kasu honetan 2000. urtekoa eta 6 herrialderi buruzkoa da.


- Aurreko diagrametan mundua edo herrialde-talde handiak irudikatzen ziren. Honetan, herrialdeen ezaugarri zehatz gehiago azaltzen dira eta, beraz, beraien arteko desberdintasunak handiagoak dira. Errusiar Federakundearen kasuan, emakumezkoak gehiengo dira 35 urteko adin inguruan, gizonezkoen gehiegizko hilkortasunaren ondorioz. Txinan, alderantziz, gertakari hori ez da 60 urte igaro arte betetzen; horrek herrialde honetako gizonezkoen gehiengo azaltzen du. Indiak Txinaren antzeko patroia jarraitzen dio 65 urtera arte, baina une horretatik aurrera herrialde erraldoi horiek guztiz aldentzen dira. Txinak emakumezkoen bizitza luzeagoaren fenomeno ia unibertsala erakusten du; horrela, emakumezkoen gehiengo nabaria da adin handiagoko taldeetan. Indian, joera hori ez da hain nabaria. Beste era batean esanda, Indian desberdintasun txikiagoa dago gizonezkoen eta emakumezkoen hilkortasunen artean, Txinarekin alderatuz.

Afrikako herrialdeak (Nigeriak) eta Latinoamerikako herrialdeak (Brasilek) ia sinestezina den antzeko patroia erakusten dute: 35 urtetik aurrera emakumezkoak gehiengo izatera igarotzen dira, eta adin handiagoko taldeetan, emakumezkoen gehiengo era nabarian handitzen da, Brasilen joera hori nabarmenagoa izanik. Herrialde batean zein bestean emakumezkoak gehiengo dira biztanleria osoa kontuan hartuta. Saudi Arabiaren kasua oso bitxia da: 15 urtetik aurrera ematen den gizonezkoen gehiengoaren hazkuntza itzela lan-esku etorkinaren ondorioa da, batez ere gizonezkoa baita. 39 urte ondoren, kurba gorantz doa eta gizonezkoen gehiengo gutxitu egiten da bi arrazoiengatik: i) langile migratzaileak euren jatorrizko herrialdera itzuleraren ondorioz, eta ii) bertoko populazioaren gizonezkoen hilkortasun handiagoren ondorioz. Hor ere emakumezkoen gehiengo dago adinekoen taldeetan.

► NBE 2004

33. Heriotza-tasa desberdinak

Gizonezkoen heriotza-tasaren ratioa, emakumezkoenarekin alderatuta





- Lerroek adin-taldean araberako gizonezkoen eta emakumezkoen heriotza-tasaren arteko ratioa erakusten dute, aipatutako eskualdeetarako.

- Gizonezkoen heriotza-tasak emakumezkoenak baino altuagoak dira adin-talde guztietan eta ia herrialde guztietan; horrek adin handiagoko taldeetan emakumezkoen gehiengoa baldintzatzen du ia toki guztietan. Beraz, salbuespenak aztertzea garrantzitsua da. Hemen 8 herrialde-kategoriak aztertzen dira, eta gizonezkoen heriotza-tasa handiagoa da araua, 3 izanik salbuespenak. Hego Asian, 30 urtera arte, neskatoen eta neskatzen heriotza-tasa nabarmen altuagoa da; desagertutako emakumeen fenomeno hori Amartya Sen-en eta beste batzuen lanaren ondorioz ondo ezaguna da. Desberdintasun horren arrazoia mota anitzetako diskriminazioan egon liteke: dietan, osasun-zerbitzuak izateko aukera gaixotasun kasuetan eta bortizkeria fisikoan (erailketa barne). Emakumezkoen heriotza-tasa neskatoen artean altuagoa den beste kasu bakarra Txinarena da. Sahara Azpiko Afrikan, ratioaren jaitiera nabaria ikus daiteke; horrek, neskatoek mutikoek baino heriotza-tasa handiagoa dutela adierazten du. Gertakari hori berria da, batez ere HIESaren epidemiaren ondorioz agertutakoa.

Hemen beste aparteko elementu batzuk ikus ditzakegu: gizonezkoen hilkortasun erraldoien adibideak. Gizonezko gazteen heriotza-tasak emakumezkoen bikoitza baino altuagoak dira herrialde garatuetan, herrialde sozialista ohietan eta Hego Amerikan. Fenomeno hori ez da munduko beste tokietan ematen, ezta Ingalaterrako eta Galeseko estatistika historikoetan II. Mundu Gerrara arte ere. Erresuma Batuko 1938ko ratioek gaur egungo Indiako antzeko patroia adierazten digute. Hala ere, 1965ean gizonezko gazte eta adin ertainekoen artean hilkortasun maskulino erlatibo bi puntu kritiko agertu ziren. Gizonezko gazteen eta emakumezko gazteen arteko arrisku-mailaren aldeak, apartekoa eta nahiko berria, gaur egungo garapenaren eta lehenago bizi izandako sozialismoaren ezaugarri bat dirudi. Pentsa liteke horretan matxismo modernoa alkoholarekin, drogekin, suzko armekin eta motordun ibilgailuekin konbinatzeak eragina duela. Baina Afrikan eta Hego Asian, emakumezko gazteen hilkortasun altuak gizonezkoen hilkortasun erlatibo altu hori orekatzen du; oro har, amatasunagatik edo HIESak eragindakoa.

► OME 2002; MITCHELL eta DEANE 1962

34. Hilkortasuna: klasearen, sexuaren, adinaren eta etniaren eragina



- Eskuineko irudiak zera erakusten du: klase sozial bakoitzeko (I-etik, goi mailako profesionalak; V-era, soldatapeko eskulangileak) 5 gaixotasun hilgarri desberdinen heriotza-tasa, Erresuma Batuan. Eskuineko grafikoak adinaren arabera 4 heriotza-tasen arteko erlazioa erakusten du: gizonezkoak/emakumezkoak zurientzat eta beltzentzat, eta zuriak/beltzak gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat.


- Diferentzia eta desberdintasun etnikoak hilkortasunaren aldearen funtsezko determinatzaileak dira. AEBetan, zuriak ez direnak baino 6 urte gehiago bizi dira zuriak. Eta Hegoafrikan, diferentzia hori 18 urtera handitzen da.

Eskuineko irudiak AEBetako hurrengo datuak erakusten ditu: i) adin jakinetan gizonezkoen (zuriak/beltzak) eta emakumezkoen (zuriak/beltzak) heriotza-tasen ratioa, eta ii) gizonezkoen/emakumezkoen ratioak zurientzat eta beltzentzat. Datu horiek 15-24 urte tarteko adin-taldean aparteko hilkortasun puntu kritikoa erakusten dute berriro. Puntu kritiko hori bi taldeentzat komuna izan arren, nabariagoa da beltzentzat. Beltzen heriotza-tasa zuriena baino altuagoa da adin-talde guztietan (85 urtetik gorakoetan izan ezik, bitxia badirudi ere). Desberdintasun nabarienak haurren hilkortasunean eta 25 urtetik 54ra arteko taldeetan aurkituko ditugu, non emakumeentzat bereziki markatutako desberdintasuna dagoen.

Maila ekonomikoaren eta klase sozialaren arabera ere aldatzen da hilkortasuna. Ikerketa askok, batez ere herrialde garatueta burututakoek, honakoa egiaztatzen dute: aberatsak eta materialki eta sozialki pribilegiatuak direnak pobreak baino gehiago eta osasuntsuago bizi direla. Ezkerreko irudiak adierazten du heriotza-tasak klase sozialarekin oso lotuta dauden 5 faktorek eraginda, Erresuma Batuko gizonezkoentzat. Oraindik ez da frogatu zein faktoreren konbinaketa den gertakari horien erantzule. Dieta txarragoa, osasun-arreta lortzeko zailtasunak eta lan-motari lotutako estresak osasunean sortutako eraginak, pobrezia erlatiboa eta ziurgabetasun ekonomikoa izan litezke.

► ACHESON et al. 1998; UNITED STATES CENSUS BUREAU 2003d

35. Sexuaren araberako ratioa Txinan eta Hego Asian



- Mapa honek 100 gizoneko dagoen emakume-kopurua erakusten du, Txinan eta Hego Asian. Txinan informazioa eskualdeka banatzen da eta Indian, berriz, estatuka. Indiako datuak 2001eko eroldakoak dira. Txinako datuek, ordea, 2000ko eroldan dute oinarria, Txinako Urtekari Estatistikoaren arabera.



- Hemen islatutako herrialdeek munduko populazioaren %42 osatzen dute. Denetan populazioaren gehiengoak gizonazkoko dela ikus daiteke. Horrek munduan emakumezkoak gutxiengoak direla azaltzen du, nahiz eta beste leku batzuetan emakumezkoak gehiengoak izan.

Mapak honakoa erakusten du: Txinako eskualde guztietan eta Indiako estatu guztietan, Keralan salbu (eta Pondicheryn, mapan agertzeko txikiegia), gizonazkoak gehiengoak dira. Hala ere, gizonazkoen gehiengo-mailan desberdintasun nabariak daude, lurraldearen arabera. Indiako iparraldean (bereziki Punjaben, Haryanan, UttarPradeshen eta Sikkimen) eta Txinako barnealdean eta hegoaldeko hainbat eskualdetan nabariagoa da. Beraz, herrialde, eskualde eta estatu horiek azertu behar ditugu, munduko gizonazkoen gehiengoak azaldu nahi badugu.

Azalpenak honakoa barneratzen du: emakumezkoek jasotzen duten tratatu diskriminatzailea, haurtzarotik zahartzarora arte. Lehenik eta behin, abortu selektiboaren praktika gorakorak (ekografiak izan duen gorakadari esker) eragiten dio gizonazkoen jaiotzen gehiengo unibertsalari. Txinako zenbait eremutan orain %20 mutil gehiago daude neskek baino, 4 urte baino gutxiagoko haurren kasuan. Bigarrenik, hainbat txostenek haurhilketa selektiboa salatzen dute. Hirugarrenik, baliteke hainbat neska txikiek beren biziraupenean eragin dezakeen diskriminazio fisikoa jasatea: elikadura, osasun-tratamenduak izateko aukera (>>36), behartuta egiten dituzten lanak eta indarkeria fisikoa. Diskriminazio era horiek guztiek, eta beste batzuek, emakumearen bizi osoan diraute eta labur dezakete euren bizitza. Horrela, praktika diskriminatzaile horiek azaltzea munduko gizonazkoen gehiengoak azaltzea da.

► CENSUS OF INDIA 2001; CHINA STATISTICAL YEARBOOK 2002

36. Emakumezkoen gehiegizko hilkortasuna eta zenbait eragile



- Goiko irudiak nesken eta mutilen arteko hilkortasunaren ratioa erakusten du hainbat lekutan: hautatutako herrialdeetan (zirkuluak), Indiako estatuetan (laukiak) eta Pakistango eskualdeetan (laukiak). Beheko grafikoak nesken eta mutilen arteko ratioa adierazten du, zeinek sukarraren edo arnas infekzio akutuaren (AIA) aurkako tratamendurik jaso ez duten. Datuak herrialde berdinak dira eta, berriro, Indiakoak eta Pakistangoak bananduta daude.


- Grafiko biek egiaztatzen eta azaltzen dute emakumezkoen gehiegizko hilkortasuna Hego Asiako herrialdeetan, hein handi batean. Goiko irudiaren arabera, Hego Asiakoak ez diren herrialde batzuetan emakumezkoen heriotza-tasa gizonezkoena baino txikiagoa da. Baina Hego Asiako herrialde guztietan emakumezkoen hilkortasuna handiagoa da. Hala ere, datuak estatuen eta eskualdeen arabera sailkatuz gero, desberdintasun nabarmenak azaltzen dira. Punjaben (India), nesken heriotza-tasa %80 altuagoa da, mutilen heriotza-tasa baino. Eta Haryanan ia 2,5 bider altuagoa da. Aldiz, Tamil Nadun eta Keralan nesken hilkortasuna mutilena baino baxuagoa da. Horrela, abortu selektiboez gain, haurren hilkortasunaren alde hori da ziurrenik herrialde horietan gizonezkoak gehiengo izatearen arrazoi garrantzitsuenetakoa.

Beheko irudiak hilkortasunaren desberdintasuna gehiago azaltzen du. Bertan, neskak osasun-tratamenduak jasotzerako orduan diskriminatuak direla argi eta garbi azaltzen da. Eskualdeetako ohiko desberdintasunak agerian uzten ditu: Punjaben mutilek neskek baino %75eko probabilitate handiagoa dute osasun-tratamendua jasotzeko gaixorik daudenean. Baina hiru estatutan, Keralan barne, joera hori alderantzizkoa da. Azken hauek dira gizonezkoen gehiengo txikiagoa edota emakumezkoen gehiengo dutenak.

Grafikoaren arabera, beste erregio batzuetako herrialdeetan (Togon eta Kolonbian, adibidez) nesken osasun-arloko diskriminazioa okerragoa da, Hego Asiako herrialdeetan baino.

► FILMER et al. 1998

37. Heriotzaren eragileak, 2002



—	Mendebaldeko Europa	—	Afrika
- - -	Latinoamerika	- - -	India
.....	Ekialdeko Asia	- - -	Mundua


● Grafiko erradialak honakoa errazten digu: munduko batez bestekoarekiko desberdintasunen konparaketa, zortzi heriotza-eragileek duten garrantzi erlatiboa kontuan hartuta. Munduan heriotza-eragile bakoitzak duen garrantzia horrela adierazten da grafikoan: ardatz bakoitzaren gainean dagoen puntu batez, jatorriarekiko (zentroarekiko) distantzia finko batera kokatutakoa. Puntu horiek batzean oktogono erregular bat agertzen zaigu. Lau eskualde bakoitzean, zortzi heriotza-eragile horiek duten garrantzi erlatiboa era berean markatuta dago; hau da, ardatz bakoitzean mundu mailako multiplo gisa. Horrela, eskualde bakoitzeko puntuak batuz, oktogono irregularrak lortzen dira. Horiek munduko batez bestekoarekiko alderaketa azkarra ahalbidetzen dute.

○ Orain arte, munduko hainbat lekutako populazioaren bizi-itxaropenaren aldeak eta sexuaren eta adinaren osakeraren desberdintasunak ikusi ditugu. Ezberdintasun horiek gaixotasun-patroiekin estuki lotuta daude. Diagraman agertzen diren eskualde bakoitzerako eraikitako poligonoek honakoa azaltzen dute: gaixotasun hilgarrien eta gaitasun gabeziaren patroia, munduko batez bestekoarekin alderatuta. Horrela, gaixotasun kutsakorretarako, parasitarioetarako eta amaren eta jaiotzaren inguruko gaixotasunetarako joera handia du Afrikak. Elikagai-eskasiak eta lesioak ere munduan baino heriotza-eragile garrantzitsuagoak dira Afrikan. Bestetik, Mendebaldeko Europan, infekzioei, erditzeari edo elikadurari lotutako heriotza-eragileek garrantzi erlatiboki baxua dute. Baina gaixotasun kardiobaskularrak eta minbiziak (neoplasmak) garrantzi oso handikoak dira, erlatiboki.



Grafiko honen informazioaz egin ohi den interpretazio oker bat hauxe da: garapenak gaixotasun kardiobaskularrak eta minbiziak sortzen ditu. Izatez, Afrikako heldu batek probabilitate handiagoa du kausa horien ondorioz hiltzeko, Mendebaldeko Europako beste batek baino. Garapenarekin lotutako gaixotasunak agertzen dira herrialde garatutako bizi-itxaropena luzeagoa baita. Horrela, pertsonen heriotzak bizitzan beranduago agertzen diren gaixotasunekin du zerikusia.

38. Inokulazioaren eragina

Difteria, kukutxeztula, tetanosa (DTP)



Inokulatutako 12 - 23 hilabete arteko haurren % (2002):



Elgorria

- Mapek honakoa erakusten dute: urte beteko haurren inokulazioaren eragina, DTPren (difteria, kukutxeztula, tetanosa) eta elgorriaren aurkako inokulazioaren kasuetan.


- Herrialde txiroetan gaixotasun kutsakorrek heriotza-maila erlatiboki altua eragiten dute. Gaixotasun horien artean DTP eta elgorria ditugu eta garrantzitsuenetarikoa dira. Beste hainbat gaixotasun kutsakor batzuk bezala, inokulazioaren bidez prebenitu daitezke, hein handi batean. Gobernu nazionalak bai munduko hainbat tokitan dauden nazioarteko erakundeek finantzatzen dituzte inokulazio programak. Arrakasta izugarria izan dute eta egoera oso zailtan ezarri dira. Hemen ikus daiteke inokulazio-programek %70 baino gehiagoko estaldura izan dutela Latinoamerikan eta Asiako lurralde askotan. Arlo horretan %50 baino gutxiagoko estaldura duten zonaldeak Asiako Hegoaldean eta Hego-Ekialdean kokatzen dira. Afrikako egoera larriagoa da: gudek, pobrezia eta osasun publikoaren azpiegitura faltak inokulazio-programa masiboen aplikazioa zaildu dute.

Nazioarteko inokulazio-programak nafarriaren ezabapen arrakastatsuen erantzule nagusiak dira. Osasunaren Nazioarteko Erakundearen 2005erako polioa ezabatzeko planak emaitzak emango dituela itxaroten da, atzerapenez bada ere.

Inokulazio masiboa neurri ikusgarria eta eraginkorra da, baina bere mugak ditu haurren heriotza-tasa gelditzeko orduan. Haurren heriotza-tasari osasun publikoko neurriek eragiten diote maila berean; adibidez, ur edangarriaren eta osasungarritasunaren baldintzek, inokulazioaren bidez konpon ezin daitezkeen infekziozko gaixotasunak desagerrarazten dituzte.

► PNUD 2003

39. Haurren heriotza-tasa




- Mapak haurren heriotza-tasa (urtebete baino lehenago hildakoen kopurua, bizirik jaiotako 1000 haurreko) 2001. urtean erakusten du, herrialdeka. Grafikoak zifra honen aldaketa erakusten du 1960 eta 2001 artean, bederatzi herrialde-taldetan.

- Beharbada positiboak irudituko zaizkigu haurren eta jaioberrien heriotza-zifrak. Osasun publikoari, higienerari eta aurreko grafikoan aipatutako inokulazio-programei esker, munduko eskualde guztietan haurren heriotza-tasaren beherakada nabarmena izan da azken urteotan. Egun haurrek hiltzeko duten probabilitatea txikiagoa da, eta hau nolabaiteko garapenaren froga da, baita gutxien garatutako herrialdeetan ere. Ekialdeko Asiako izandako hazkunde industrial eta ekonomiko azkarra eta adierazle horien hobekuntza parean garatu dira. Egun Ekialdeko Asiako haur batek hiltzeko probabilitate apur bat handiagoa du, Europako eta AEBetako haur batek baino. Zenbait herrialdek, batez ere Kubak, haurren heriotza-tasa maila minimotara jaitea eta hazkunde ekonomiko beti elkarrekin joaten ez direla frogatu dute: osasun-programa publikoekiko konpromiso sendoa eta ondo bideratutako gastua aski dira.

Baina zifra hauek alde kezkarri bat dute. Zifra absolutuetan aurrerapausoak eman dira. Baina, herrialde aberatsenekin alderatuz, herrialde txiroenetako egungo haurren heriotza-tasa erlatiboki okerragoa da, duela hogeita hamar urte baino. 1960ean, haurren heriotza-tasa Sahara Azpiko Afrikan 4,3 aldiz handiagoa zen industrializatutako herrialdeetan baino; gaur egun, 21 aldiz handiagoa da. Hobekuntza orokorra gertatu da, baina esparru honetan desberdintasun-maila nabarmenki hazi da errealitatean.

► MUNDUKO BANKUA 2003b


40. Klase sozialaren eraginak haurren heriotza-tasaren gainean



- Lerro bakoitzak (adierazitako herrialde eta eskualde bakoitzerako) maila sozio-ekonomikoarekin lotutako haurren heriotza-tasaren profila erakusten du. “I”-k segmentu sozio-ekonomiko baxuena adierazten du (famiaren aktiboen balioespenean oinarrituta), eta “V”-k altuena. Horrela, lerroek ezkerretik eskuinera duten beheranzko joerak segmentu sozio-ekonomiko baxuenek haurren heriotza-tasa handiagoa dutela esan nahi du.

- Ez da ohikoa osasun-arloko datuak maila sozio-ekonomikoaren arabera sailkatuak aurkitzea. I-etik V-erako sailkapena askotan erabili izan da. Hala ere, ez da errenta-iturriaren arabeko klasearen kontzeptu kualitatibo (mozkinak eta soldadak, adibidez) batzuen baliokidea. Sailkapen hau, ordea, aberastasun monetarioan oinarritzen da eta korrelazio estua du klaseko beste ideia batzuekin. Emaitzak oso zirrargarriak dira, oso deigarriak izan ez arren. Beste errentaren datu batzuek bezala, honakoa adierazten dute: batez besteko nazionalak estatistika sozialetan eta ekonomikoetan oso esanguratsuak direla iriztea oso engainagarria da. Ia lerro guztiek beheranzko joera dute, ezkerretik eskuinera. Honek aberastasunaren eta osasunaren artean lotura menderatzailea dagoela adierazten du: familia zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta beren seme-alabak gazte hiltzeko probabilitatea baxuagoa izango da. Zenbat eta beheranzko joera gogorragoa izan, orduan eta handiagoa izango da desberdintasuna. Desberdintasun kasurik argienetarikoa Bolivia litzateke. Haur txiroentzat, haurren heriotza-tasa 150ekoa da, bizirik jaiotzen diren mila haurreko. Boliviako datua okerragoa da, Sahara Azpiko Afrikako hainbat herrialde pobretako datuak baino. Baina Boliviako klase aberatsenen artean haurren hilkortasuna 30ekoa da, bizirik jaiotzen diren mila haurreko. Datu hori Indiako, Txinako eta Iraneko batez bestekoak baino baxuagoa da; era berean, herrialde garatutakoak baino askoz altuagoa. Datu mota horiek honakoa ohartarazten dute: batez besteko nazionalak hobetzeko arazo larriagoak dituzten gizarteko segmentuei neurrigabeko arreta eman behar zaie. Gehienetan segmentu pobreenak izango dira, baina baliteke aberastasun-kategoria horrek eskualde-mailako edo etnikoak diren beste desberdintasun batzuk ezkutatzea. Arazoa, beraz, hein handi batean politikoa da.

41. Trantsizio epidemiologikoa




- Itzalarekin dauden bi laukizuzenek 2001eko heriotzak, guztira, adierazten dituzte. Biak lerro horizontalen bidez bananduak daude 10 eskualdetako heriotzen arabera. Ezkerreko grafikoan bertikalki bananduak daude hiru heriotza-kausen arabera: I: gaixotasun kutsakorrek eta erditzearekin eta amatasunarekin lotutakoak; II: gaixotasun ez-kutsakorrek, batez ere minbizia eta gaixotasun kardiobaskularrak; III: istripuak, eraildakoak eta bere buruaz beste egindakoak. Eskuineko irudian hildakoen adinaren arabera banatzen dira.

- Garapen-mailaren eta heriotza-kausen patroien arteko erlazioa estua dago. Eskualde txiroenetan heriotza gehienak I. motako kausetatik dira. Eskualde garatuagoetan heriotza-kausa horiek ia ezabatuak daude eta heriotza gehienak II. motako kausetatik dira. III. motako heriotzek heriotza guztiekiko erlatiboki ehuneko oso baxua islatzen dute eta eskualdeen artean ezberdinak dira, baina garapen-mailarekin zerikusirik handirik izan gabe. Sahara Azpiko Afrikan heriotzen %70 I. motako heriotzekin lotuta daude eta ELGEko herrialdeetan zifra hori %5ekoa da; beraz, desberdintasuna arlo horretan nabaria da. I. motako heriotzen eta 15 urtetik beherakoen heriotza-tasaren arteko lotura estua dago.

Hiru heriotza-kausen aldaketek generoarekin zerikusia dute. 45 urtera artekoen artean herrialde txiroenetan heriotza-kausak I. motakoak dira eta batez ere emakumezkoetan. II. eta III. motako heriotza-kausen artean gizonezkoak dira nagusi hein handi batean. Gizon/emakume ratioa izugarria da III. motako heriotzen artean 40 urtera artekoetan (<<33).

► OME 2002

42. Gaixotasun-zama




- Grafikoak 23. grafikoan landutako bizitza bizi-itxaropen osasuntsuko estimazioak egiteko metodologia laburtzen du. ggdbu (gaitasun gabeziaren arabera doitutako bizi-urtea) Osasunaren Nazioarteko Erakundeko ikerlariek garatutako neurria da bai garaiz aurreko heriotzagatik bai gaitasun gabeziagatik galdutako bizi-urte osasuntsuak kalkulatzeko. Goiko barrak 2001. urtean galdutako urte-kopurua azaltzen du eta besteek galera hori sexuaren, adinaren, gaixotasun-motaren edo kontinentearen arabera nola banatzen den.

- Bizi-urteak ez dira homogeneoak eta, beraz, bizi-itxaropen datua ez da bere kaxa ongizate fisikoaren edo osasunaren adierazlerik egokiena. Ongizatea hobe kalkulatu genezake erikortasunaren eta gaitasun gabeziaren adierazleak izango bagenu. OMEak bere “La carga mundial de morbilidad” ikerketan gaitasun gabeziaren munduko lehen inbentario praktikoa martxan jarri nahi izan du, hilkortasunaren bere estimazioekin konbinatuz, gaixotasun-zama neurtzeko neurri bat sortzeko asmoz (orain urtero berriztatzen da “Informe sobre la salud en el mundo” txostenean). Estimazio hori perfektua izatetik urrun egon arren, bizi-itxaropenaz harago dauden adierazle egokiagoak bilatzeko erabil daitezke giza garapena hobe ulertzeko bidean.

Gizonezkoek galeren erdia baino apur bat gehiago jasatea beren heriotza-tasa altuxeagoen arrazoi dira. Eta galeren %40 hurrek jasatea ere, euren heriotza-tasa altuen garrantzi kezkarriaren adibide da. Horrek zerikusi handia du hilkortasun eta gaitasun gabeziaren arrazoi nagusiak infekzioak eta jaiotzaren inguruko eragozpenak izaten jarraitzearekin. Grafikoko beheko barrak geografikoki banatuta, bizi-urte osasuntsuen galeraren estimazioa erakusten du. Logikoa den bezala, oso banaketa ezberdina erakusten du biztanleriaren banaketarekin alderatuta. Zehazki, atal honetan azaldutako grafikoekin bat, bizitza osasuntsuaren gehiegizko galera Afrikan eta Hego Asian jasaten dute.

► OME 2002, 2003

43. Heriotza-ereduen aldaketak




- | | |
|-----------------------|--------------------|
| 1. Mali | 8. Mexiko |
| 2. Pakistan | 9. Hegoafrika |
| 3. Afrika Erdiko Err. | 10. Brasil |
| 4. Guatemala | 11. Txina |
| 5. Moroko | 12. Koreako Errep. |
| 6. Egipto | 13. Errusiar Fed. |
| 7. Filipinak | 14. Japonia |
| | 15. Erresuma Batua |

● Grafikoko kurbek adierazitako 15 herrialdeetan aipatutako adinaren azpitik (ardatz horizontala) hiltzen diren pertsonen ehunekoa (ardatz bertikala) erakusten dute. Zifrak 1995ekoak edo aurreko urte hurbileneakoak dira.

○ Adineko hilkortasun-patroiak haur txikiak erlatiboki kantitate altuetan hiltzen direla adierazten du, baina gero hilkortasunak beherantz egiten du nabarmen 5 eta 35 urtera arteko zatian; ondoren, ordea, gorantz egiten du maila oso altuetara talde helduagoetarako. Patroi unibertsalak honakoa adierazten digu: herrialde batzuek haurren heriotza-tasa oso altua izan arren, heriotza batez ere pertsona zaharren artean gertatzen den fenomeno da. Baina begirada zorrotzagoa botaz, gertatzen diren heriotzak ondo aztertuz irudi ezberdina atera dezakegu. Biztanlerian haurren proportzio handiagoa eta haurren heriotza-tasa altua duten herrialdeetan, heriotza batez ere haurren artean gertatzen da, ez helduen artean. Hainbat herrialdek datu egokiak izan ez arren, adibide lazgarri batzuk aurki ditzakegu: Malin (lehen kurba) hiltzen diren %60 baino gehiago 5 urtetik beherako haurrak dira; Pakistanen (bigarren kurba) heriotzen %40 urte batetik beherako haurren artean izaten dira eta %50 5 urtetik beherakoen artean. Erresuma Batuan, aldiz, (hamabosgarren kurba) heriotzen hiru laurdena 70 urte baino gehiagokoen artean gertatzen da eta ia erdia 80 urte baino gehiagokoen artean. Beraz, heriotzaren fenomenoaren esanahia ezberdina da herrialde bakoitzean. Erresuma Batuan zein beste herrialde aberatsetan pertsona gazte baten heriotza ezohikoa da. Ia legea bailitzan, haur bat bere gurasoak baino goizago hiltzen bada, heriotzaren presentzia oso zapaltzailea da.

► NBE 2004

44. Osasun arloko gastuen inguruko desberdintasunak




● Puntu bakoitzak herrialde bat adierazten du eta gobernu horrek 1998. urtean osasunean per capita egindako gastua (ardatz bertikala) adierazten du, eta gaixotasun-zamaren neurria edo osasun-beharra (ardatz horizontala). Neurri hau 80 urte eta bizi-itxaropen osasuntsuaren (gaitasun gabeziaren arabera doitu) arteko diferentzia da. (<<25). Erreferentzia gisa egoerarik onena denek 80 urtera arte bizitzaz gozatzea izango litzatekeela uste da, gaixotasun bidezko gaitasun gabeziarik gabe. Zifra hori zenbat eta altuagoa izan idealaren diferentzia gero eta handiagoa da eta ondorioz gaixotasun-zama ere. Puntuak eskualdeka ezberdintzen dira eta herrialde espezifiko batzuk adierazten dira.

○ Grafiko honetan gastuen eta osasun-beharren arteko erlazio estua dagoela argi ikusten da: zenbat eta handiagoak izan osasun-beharrak hainbat eta urriagoak dira osasun-gastuak. OMEren arabera, hegoko herrialdeek gaixotasun-zama osoaren %92 jasaten dute (ggbduan neurtuta); bestalde, osasun-gastuen %80 iparreko herrialdetan gertatzen da. Grafiko honek erlazio gaizto hori islatzen du.

Azalpen posible bat gastuen eta beharren arteko erlazioaren apurketan aurki dezakegu, bestalde, nahiko arrunta dena gaurko munduko sistema ekonomikoan. Baina badago azalpen baikorrago bat: osasun-gastua handiagoa gaixotasun-zama baxuago batekin lotuta dago; beraz, osasunari ematen zaion lehentasunaren aldeko argudioa da. Hirugarren eta azken azalpen posible bat are baikorragoa litzateke: gaixotasun-zama baxuko herrialdetan per capita gastuaren espektroa zabalagoa da. Beraz, batzuek emaitza eraginkorrak lortzea lortu dute gastu baxuagoarekin. Azken honen ardatza honakoa litzateke: osasun-sistemaren aurrean parekotasuna lortzea gizabanako guztien artean.

► OME 2002

45. Familien eta etxeen tamaina





- Diagrama honek azken aldi hainbat eskualdetako eta herrialdetako familien batez besteko tamaina erakusten du. Barrak ardatz horizontalarekiko neurtzen dira. Bi lerroek (ardatz horizontalarekiko ere) Europan eta AEBetan 1930etik aurrera familiaren tamainan izan den bilakaera erakusten dute. Datak ordea, ardatz bertikalean adieraziak daude.

- Datuek herrialdeen artean familiaren tamainarekiko eta etxeekiko dauden diferentziak eta garapen erlatiboarekiko itxurazko lotura adierazten dute. Hala ere, familiaren inguruko ikerketek patroia argia egotearen inguruko zalantzak agerian jartzen dituzte. Dena den, herrialde txiroenetan familien tamaina handiagoa da jaiotza-tasa altuengatik eta herrialde aberatsetan baxuagoa da jaiotza tasaren beherakada dela eta. Baina familien tamaina beste arrazoi batzuek ere jaitzi da. Batez ere, gero eta arraragoa delako belaunaldi ezberdinak batera bizitzea. Herrialde aberatsenetako jendeak familia uzten du gazte garaian eta beharbada hainbat urte beranduago bere gurasoak gonbidatzen dituzte eurekin bizitzera. Herrialde garatuak nagusiak bikoteka, bakarrik edota instituzioetan bizi dira. Hori pentsio-sistema unibertsalari esker azal daiteke. Egun, Erresuma Batuan 65 urtetik gorako %8 soilik bizi da beren seme-alabekin, Hego Korean, ordea, %77. Elkartasunak eta etxe lanak banatzeak beharbada biziraupen kolektiboa bermatzen dute. Baina etxe barnetan ere badira desberdintasun eta esplotazio kasu nabariak; adibide horiek ez dira asko zabaltzen famili intimitatea dela eta. Famili txikiak askotan elkartasunaren adibide dira, beste batzuetan independentziaren isla. Hala ere, belaunaldi kopurutik eta tamainatik kanpo, familien barnean desberdintasun lazgarriak daude.

► AEMA 2001; BONGAARTS 2001; DHS 2003

IV. Lurra, nekazaritza, elikadura eta gosea

46. Planeta zatituz



- MapInfoko Eric Dudley-k egin zuen goiko eskuinaldean dagoen lurraren azalera bereko proiektzioa (ikus “datuak, grafikoak eta testua”). Laukiek azalera horren zehaztutako kategorien azpi-zatiketak adierazten dituzte.

- Badira gure planetari buruzko oinarrizko datu batzuk biziraupenareneko baldintza fisiko objektiboak baldintzatzen dituztenak eta gizakien arteko desberdintasunean eragin zuzena dutenak. Planetaren azalaren %70 ura da eta erabilera anitzak eta beharrezkoak ditu. Liburuaren atal honetan aztertzen diren elikagaien iturri zuzen gisa, lurra baino askoz garrantzi txikiagoa du. Kontsumitzen diren proteinen % 6 eta kalorien % 2 inguru ematen ditu.


Ur gezak, nola ez, lurra elikagaiak emateko gaitasuna eta gizakien ongizatea eta osasuna mantentzeko beharrezko funtzioak betetzen ditu. Nekazaritza da ur gezaren kontsumoaren erantzule nagusia.

Zenbait elikagai eta beste gauza positibo asko basotik datoz. Baina gizakientzako elikagaien % 90 larreetan eta lur landuetan sortzen dira -eta horrela jarraituko du izaten-, horiek guztira lurraren azalaren % 10 baino ez badira ere.


Grafiko honetan agertzen diren kategorien proportzioak ez dira finkoak. Muga bakoitza gatazka-lerro bat da, naturaren indarren eta gizakien jardueraren arteko aurreratzeen eta atzeratzeen ondorioa. Planetaren berotzeak lurraren azala murriztuko du; deforestazioak landaretzaren azalera murriztuko du. Eta gizarte-borroka etengabea gertatzen da lurraren erabileraren inguruan, baso, larre eta lur landuen muga anitzen inguruan.

► MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004


47. Lurraren banaketa




Afrika



Hego Amerika



Asia



- Goiko irudian lur landagarria ageri da hektareatan, pertsonako eta kontinenteko. Behekoek gauza bera erakusten dute hiru kontinenteetan gehien eta gutxien duten bi herrialdeetan.


- Munduan pertsonako hektarea laurden bat lur landagarri dago. Baina biztanleriaren banaketak geografikoki duen itxuraren guztiz kontrako banaketa du; horrela, Ozeaniak Europak halako ia bost du eta Asiak baino 13 bider gehiago. Beheko irudiek ere nabarmen erakusten dute kontinenteak ez direla homogeenak: Kazahstanek Koreako Errepublikak baino 45 bider lur gehiago du pertsona bakoitzeko; Zambiak Egiptok baino 12 aldiz gehiago eta Argentinak 7 bider Kolonbiarena.

Garai moderno hauetan harrigarria da lur erabilgarriaren eta nazio-aberastasunaren artean dagoen erlazio urria. AEBek eta Australiak nekazaritzan oinarritu dute beren garapena; beste batzuek (Erresuma Batuak eta Japoniak), aldiz, produktu industrialak esportatu dituzte eta elikagaiak inportatu.

Lur landagarriaren esleipen hain txikitik abiatuta, hedatuz doan gizarte batek bere elikagai ia guztiak ekoiztu behar ditu. Baina lurra janaria ekoizteko beharrezko osagarrietako bat baino ez da. Beraz, lurra urria denean modu trinkoan ustiatzen da, hau da, beste faktoreen kopuru handiagoak erabiliz: lanekua, ura, ongariak, pestizidak eta makinaria.

► MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004

48. Nekazaritza-eredu desberdinak



Ardatzak

1. Per capita uzta-hektarea
2. Ureztatutako uztaren ehunekoa
3. Ongarriak hektareako
4. Traktoreak hektareako
5. Laboreak, Kg hektareako
6. Sustrai eta tuberkuluak, Kg hektareako

Hexagonoak

- Ipar Amerika
- Errusia Fed.
- Frantzia
- India
- Txina
- Hego Amerika
- Sahara Azpiko Afrika


• Hau, 37. grafikoa bezala, erradial itxuradun grafikoa da. Kasu honetan, sei ardatzek nekazaritzako produktuen edo bitartekoen alderdiren bat irudikatzen dute aipatutako zazpi herrialdeetan eta eskualdeetan; bakoitzak bere hexagonoa du. Aldagai bakoitzaren mundu mailako batez bestekoa ardatz bakoitzaren distantzia berean kokatua dago hexagono erregularra osatuz. Gainerakoek ez dituzte balio absolutuak islatzen munduko batez beste horrekiko balio erlatiboa baizik.

○ Grafiko honek munduko nekazaritzaren artean dauden alde handiak erakusten ditu. Afrika, lur erabilgarriaren munduko batez bestekoan egonik, batez besteko horren produktibitate maila baino apalagoa du, baina aldi berean bitarteko gutxien erabiltzen ditu. Txinan, errendimendu maila altu erlatiboa, ureztapenez eta ongarrien erabilpen handiarekin batera gertatzen da. Frantzia, errendimendu altua lortzen da ongarri eta makineria kopuru handien erabilpenarekin. Ipar Ameriak errendimendu altuak lortzen ditu ureztapen maila baxuaz, baina traktoreen eta ongarrien erabilpen zabalaz. Errusiako nekazaritza estentsiboa eta errendimendu baxukoa da, baina manufakturatutako bitarteko gutxi erabiliz. Indiak, Txinak bezala, ureztatutako lur asko ditu, baina ongarri askoz gutxiago erabiltzen du eta errendimendu baxuagoak ditu. Hego Amerika munduko batez bestetik oso hurbil dago, lur erabilgarrien kopuru handiagoa eta ureztatutako lurren kopuruan nabarmen azpitik egon arren.

Grafiko hau, nekazaritzako bitartekoen erabilpenen eta euren arteko ordezkatzeko posibleen adierazpen garbia da, bai eta nekazaritza bezalako jardueraren batek mundu mailan duen dibertsitatearena ere.

► MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004

49. Errendimenduak eta iraultza berdea




● Grafikoak 60ko hamarkadaren hasieratik hona nekazaritzaren laboreen ekoizpenak izan duen bilakaera erakusten du. Goiko irudiak munduko batez bestekoa bere osotasunean adierazten du eta behekoak Txinarena soilik. Datuak aipatu urteetako batez besteak dira.

○ Grafiko hauetan agertzen den 40 urtetik gorako epealdian hektareako munduko laboreen ekoizpena bikoiztu baino gehiago egin da eta Txina bezalako herrialde batzuetan, askoz gehiago hazi da. Horrek, eta oraindik posible den tokietan laborantza-eremuen hedatzeak, elikagaien ekoizpen osoa nabarmen handitzea eragin du, hein handi batean <<iraultza berdea>> izenez ezagutu den prozesuari esker. Hau da, berrogeita hamarreko eta 60ko hamarkadetan ikerketarako institutuek eta laboreen arloko enpresek garatutako laboreen hazi mota berrien erabilpena gertatu da. Hazi mota berri horiek aurrekoek baino errendimendu handiagoa ematen zuten hektareako, betiere modu jakin batetan erabiliz. Ur, ongari eta pestizida kopuru handiagoak behar zituzten. Horrela, nekazariak lortutako emaitza handiagoa zen, baina hasieran garestiagoa. Askok prozesu horrek desberdintasunak handitu dituela diote, nekazari aberatsenak, eta ez txiroenak, baitziren hazi mota berri horiek eskuratu ahal zituztenak eta ondorioz, luraren kontzentrazioa handitu egin da, eta zenbait lekutan, Indian kasu, lurren eskasia handitu egin da. Indiaren kasuan, ordea, ezadostasuna da nagusi iraultza berdeak desberdintasunean izan duen eraginaren inguruan.

Iraultza berdea ez zen izan ezohiko gertakizuna. Garrantzi handiko hazi mota berriak agertu dira; errendimendu potentzial handiagoa izan, pestizidak hobe jasan eta ureztapen gutxiago behar dute. Are gehiago, nekazariak orain genetikoki eraldatutako haziak ere eskuragarri dituzte. Prozesuarekiko kritiko agertu direnek esaten dute horrek monolaborantza elikagai bakarraren landaketa gehiegi sustatzen duela, dibertsitate biologikoa apurtu eta nekazariak hazi horiek ekoizten dituzten enpresen mende geratzen direla.

► FAOSTAT 2003a

50. Nutrizioa: kalorien eskuragarritasun desberdina




- Mapak 2001. urtean egunean pertsonako eskuragarri diren kilokaloria-kopurua erakusten du. FAOk urtero argitaratzen ditu datu horiek eta honela neurtzen da: elikagaien nazio-ekoizpena edo estimazio bat gehi elikagaien inportazio garbiak, dena kalorietara bihurtua, galerak islatu nahi dituen faktore baten bidez murriztua, eta dena zati populazioa.

- Mapa honen oinarrian diren datuek elikaduraren alderdi jakin baten baitan, hots, elikadura-energian edo kaloria-kopuruan, nazioartean gertatzen diren desberdintasunen oinarritzko informazioa ematen dute. Ezin dira behar kalorikoak pertsonako zifra bakun batean bildu, pertsona bakoitzaren metabolismoaren, jarduera fisikoaren, pisuaren eta adinaren araberakoa baita. Baina lehen hurbilketa gisa, datu hauek egia balira, batez besteko kaloria-kopurua 2000tik beherakoa den herrialdeetan, elikagaien banaketa edozein delarik ere, ia ziurtasun osoz elikadura-energiaren horniketa txikiegia dela esango ligukete. Eguneko datua 3000tik gorakoa den herrialdeetan, elikagaien banaketa oso desberdina ez bada, elikadura-energiaren horniketak nahikoa izan beharko luke. 2000 eta 3000 arteko kaloria-kopurua duten herrialdeetan gizakien desnutrizio-mailaren tamaina elikagaien banaketaren araberakoa izango da oinarrian. Datuak nazio-mailako per capita batez besteak direnez, ez dute informaziorik ematen kontsumo horien banaketaren inguruan. Ondorioz, datu horiek gehienez elikagaien beharrezko kontsumoaren gaineko hurbilketa soilak izango lirateke. Duten alde ona erregulartasunez argitaratzen direla da; agian urte batetik besterako mugimenduak baliotsuagoak dira urteko maila soilak baino.


► FAO 2003b

51. Desnutrizioaren eragina

a. Azpielikatutako pertsonen kopurua eskualde nagusietan



b. Azpielikatutako pertsonen ehunekoak eskualde nagusietan




- Bi diagramak desnutrizioak (elikadura-energiaren gutxiezigko horniketa) munduan eta eskualde nagusietan duen eraginaren gainean FAOk emandako azken informazioa laburtzen du. Informazioa ez dago aurreko grafikoan islatutako urtean eskuragarri dauden kalorien kopurua oinarrituta, baizik eta aldiro eguneratzen diren Munduko Elikadurari buruzko Inkestetan. Horietan munduko leku ezberdinetako etxeetan egiten den kontsumoaren gaineko inkesta zehatzak erabiltzen dira irudi orokorra emateko batzen direnak.

- FAOk 800 milioi pertsona baino gehiagok (munduko populazioaren seiren bat) 1999. eta 2001. urteen artean desnutrizioa jasan zuela ondorioztatzen du, hau da, bi hamarkada lehenago baino kopuru txikiagoa baina aurreko hamarkadakoa baino handiagoa. Aurreko hamarkadarekin alderatuz, azpielikatutako pertsonen kopurua murriztu egin zen Latinoamerikan, Hego Asian mantendu eta Ekialdeko Asian murriztu (azken 5 urtetan handitu bazen ere) eta modu nabarmenean areagotu zen Afrikan. Azpielikatutako pertsonen estimatutako ehunekoak beheko irudian agertzen dira. Berriz ere, deigarria da Afrikan gosearen eragina murriztu ez izana. Aurreko grafikoko nazio-mailen datuekin alderatuz, hauek, printzipioz, banaketa kontuan hartzen dute. Hala ere, kritika asko jaso dute inkestak egokiak ez direlako eta datu antropometrikoak (haurren pisua, edo pisuaren eta garaieraren arteko ratioak) kalorien kontsumoa baino egokiagoak direlako desnutrizio-maila jakiteko. Hala ere, gosearen eraginaren inguruko estimazioen <<datu ofizialenak>> izaten jarraitzen dute.

► FAO 2003

52. 20 urteko arrakasta eta porrota elikadura-ekoizpenean



● Grafikoak munduko per capita elikaduraren ekoizpenaren indizea ematen du 1999–2001 urteetarako 1979–81eko batez bestekoa oinarri hartuta (100). Horrela, bi hamarkada horietako aldaketa osoa neurtzen du.


○ Datuek munduari buruzko baieztapen orokorren arriskua argi uzten dute. Oinarrizkoa den per capita elikaduraren ekoizpenean herrialdeak ezin ezberdinagoak dira. Mutur baten pertsonako elikaduraren ekoizpena orain dela 20 urte ekoizten zutenaren erdia ozta-ozta gainditzen duten herrialdeak daude; talde horretan Sahara Azpiko 28 herrialde kokatzen dira. Beste muturrean, epe berean, pertsonako elikaduraren ekoizpena erdia baino gehiago handitu duten herrialdeak daude. Txinan bikoiztu baino gehiago egin da. Sahara Azpiko 7 herrialdeetan bakarrik handitu da elikagaien ekoizpenaren indizea.

Datu hauetatik nabarmendu behar dena honakoa da: elikagaien ekoizpena gehien handitu duten herrialdeetako batzuk azken bi hamarkadetan hazkunde ekonomikoaren tasa altuenak izan dituzten herrialde berberak dira. Orokorrean, bereziki azkar industrializatu diren herrialde gisa dira ezagunak. Itxuraz, hazkunde ekonomikoak ez du nekazaritzaren hazkundearen aurka jo. Agian, litekeena da bi sektoreen arteko sinergia gertatu izana, batak bitartekoak eta azken produktuen eskaria emanez besteari. Agian horrek sektorekako hazkunde orekatuak dituen onurak baieztatzen ditu (Hong Kong eta Singapur salbuespenak dira, baina horien nekazaritza-sektorea hutsaren hurrengoa da).

Elikagaien ekoizpenaren inguruko datu ofizialak interpretatzeko garaian arreta handia izan behar da. Izan ere, horiek beti uzten dituzte kanpoan merkatutik kanpo nekazariak eta jabe txikiek jasotako kopuru urriko uztak. Monolaborantzen Elikagai bakarreko ekoizpenaren aseezinezko hedapenaren eta lurraren jabetzaren kontzentrazioaren ondorioz, baliteke maila urriko ekoizpen hori murriztea merkataritza izaera duten zenbait elikagai handiren prezioek gora egiten dutenean.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

53. Elikadura-krisiak Afrikan




- Mapak 2001ean Afrikan eskuragarri ziren kalorien kopurua erakusten du eta eskuinaldeko grafikoak aldiz, 30 urteren buruan batez besteko kaloria-kopuruaren bilakaera epe horretan gerra zibilak gogor jotako zortzi herrialdeetarako.

- FAOren estatistika guztiek Afrika gose eta desnutrizio arazo gehien dituen kontinentea dela diote. Eskuragarri diren kaloria-kopuru nahikorik ez duten herrialde gehienak Afrikakoak dira, arlo honetako estatistikak bereziki okerrak direla egia izan arren, eta ondorioz, batzuek horiek zalantzan jarri dituzte edo gutxienez tentuz hartu. Baina, zalantzarik gabe Afrikako zenbait herrialdetan zehar izandako gatazka politikoez, eta horien harira eman diren biztanleriaren desplazamendu behartuek, eragin kaltegarriak izan dituzte herrialdeen nekazaritza-egoeran. Afrika da desplazatutako pertsona-kopuru handiena duen kontinentea (>>108-109). Orokorrean, halabeharrez emigratutako biztanleriarentzat bideratutako elikadura-laguntza ez da nahikoa izan zeuden gabeziak asetzeko eta gatazken jarraipenak (esaterako Sudanen edo Kongoko Errepublikan Demokratikoan) elikagaien banaketa zaildu egin du. Klimari lotutako muturreko gertakariak, bai lehorteak bai uholdeak, eragin kaltegarri nabarmena izan dute Afrikako hainbat herrialdeetako elikaduraren ekoizpenean. Eskuinaldeko grafikoak adierazten duenez, gerra zibil luzeak bizi dituzten herrialdeek elikadura-energiaren hornikuntzan murrizketak jasaten dituzte.

FAOren kalkuluen arabera, 2003. urtean elikadura-larrialdian (gosete larriak jasateko zorian) zeuden 31 herrialdeetatik 23 Sahara Azpiko Afrikan daude. Besteen artean honakoak daude: Ipar Korea, Mongolia, Afganistan, Irak eta Ertamerikako hiru herrialde. FAOren arabera, geroz eta elikadura-larrialdi gutxiago daude hondamendi naturalek eraginda, gizakiek eragindakoak (eta bereziki gudek) handitzen doazen bitartean.

► FAO 2003; FAOSTAT 2003b

54. Alderatutako bi dieta




- Erradial izaerako grafiko berri honek Iparreko eta Hegoko herrialdeen batez besteko dieten arteko desberdintasunak adierazten ditu. Ardatz bakoitzak zehaztutako elikagaiaren munduko batez bestearekiko pertsonako kontsumoa neurtzen du. Munduko elikagai bakoitzaren kontsumoa (kaloriatan neurtuta) ardatz bakoitzaren distantzia finkoan adierazi da, dodekagono erregularra osatuz eta 1 zenbakiarekin izendatua dagoena. Horrela, Iparreko herrialdeen dodekagonoa (2) eta Hegokoena (3) elkarren artean eta munduarekin alderagarriak dira.

○ Mundua bi zatitan banatzeak, beti bezala, gehiegizko sinplifikazioa dakar eta talde bakoitzaren barneko alde esanguratsuak ezkututzen ditu. Hala ere, munduak zer jaten duen ezagutzeko lehen pausu gisa oso adierazgarria da. Lehenik eta behin, Iparreko eta Hegoko dietaren eskemaren tamaina orokorraren aldeak batez bestez Hegoko biztanleek elikagai ia mota guztietatik, laboreetatik, lekaleetatik eta fruitu lehorretatik salbu, Iparrekoek baino gutxiago jaten dutela (kaloriatan neurtuta) adierazten du. Oinarriko beste jakia den tuberkuluen batez besteko kontsumoa ia berdina da talde bietan. Gainerako kalorien kasuan, eta bereziki animalien proteinetan eta koipeetan eta azukreetan Iparrekoek gehiago kontsumitzen dute, alderik handiena edari alkoholdunetan egonik (>>57).

Iparreko dieta, garatua, gozoagoa, koipetsuagoa, ugariagoa, ez da horrenbeste oinarritzen landareetan, okela zaleagoa da, alkoholdunagoa eta Hegokoa baino anitzagoa. Herrialde garatueto dietak erakargarria egiten duten hainbat ezaugarri dituela egia bada ere, zalantza eta galdera asko eragiten ditu ongizatearen lorpen gisa erabiltzerakoan, dieta horrek dituen zenbait ondorio kaltegarri ikusita. Baliteke mundu-mailan dieten inguruan dauden desberdintasunei buruz aritzerakoan, sekula baino argiagoa eta zehatzagoa izatea gabeziaz batera gehiegikeriaz aritzea. Ez bakarrik garapen gabeziaz, garapen gehiegikeriaz ere.

► FAOSTAT 2003b

55. Desberdintasunak txiroen artean I



● Grafiko hau 54. grafikoaren antzekoa da. 1 zenbakidun dodekagonoa munduko batez bestekoa da eta 2, 3 eta 4 zenbakidunak Txina, Brasil eta Bangladesh dira hurrenez hurren.

○ Aurreko grafikoan Iparren eta Hegoaren artean dagoen aldea agerian geratzen bazen ere, arazo bera du batez besteko guztiakin: desberdintasun ezezagun ugari ezkututzen du. Grafiko honek eta ondorengo biek, non Hegoko 6 herrialdetako eta Iparreko 3 herrialdetako batez besteko dietak adierazten diren, ezkutuko desberdintasun horren zati bat erakusten dute. Batez besteko horiek ere, estatu-mailako batez bestekoak izanik, herrialdearen baitan klasearen, erlijioaren edo bestelako aldagaien araberrako pertsonen arteko desberdintasunak ezkututzen dituzte.


Txinako dieta oso ona da tuberkulu eta labore kopuru handia duelako; era berean, munduko batez bestekoaren goitik dago okelaren, arrautzen eta arrainen kontsumoan.

Brasildarrek labore gutxi jaten dute erlatiboki, baina munduko batez bestekoak baino tuberkulu gehiago kontsumitzen dute; beren dieta oso aberatsa da proteinetan eta munduko batez bestekoaren kontsumo baino nabarmen handiagoa dute okelan, esnean eta lekaleetan, baina oso arrain gutxi; azukrearen ekoizle diren gainerako herrialdeek bezala, munduko batez bestekoak baino hiru bider azukre gehiago kontsumitzen dute.

Bangladesheko dieta deigarria da bere eskasiagatik; kategoria guztien kontsumoa munduko batez bestekoaren nabarmen azpitik dago, laboreetan izan ezik (kasu honetan arrosa). Informazio hori 58. grafikoan zabalduko dugu.

► FAOSTAT 2003b

56. Desberdintasunak txiroen artean II



● Grafiko hau ere, 54. grafikoaren antzekoa da. 1 zenbakidun dekaponoa munduko batez bestea da, eta 2, 3 eta 4 zenbakidunak Errusiako Federakundea, Nigeria; eta Egipto dira hurrenez hurren.

○ Garatutako herrialdeen egungo dieta hein handi batean garapen-prozesua beraren eta elkarren imitazio prozesuen ondorio denez, ez da harrizkoa garapen bideko herrialdeen dieten eskemak Iparrekoenak baino ugariagoak eta aldakorragoak izatea. Grafiko honetan aniztasun horren adiera garrantzitsu batzuk agertzen dira.


Batez besteko errusiar hiritarrak animalietatik eratorritako produktuen kopuru handiaz osatutako dieta du, AEBetan gertatzen denaren antzekoa ($>>57$), baina kopuru txikiagotan, alkoholdun edarien kontsumoan ere (litekeena da emaitza hori Errusiar Federakundean alkohol edarien kontsumoa gehienbat gizonen gutxiengoaren esku dagoelako izatea) ($>>28$).

Nigeriako dietak tuberkuluen eta lekaleen kopuru bereziki handia biltzen du eta animalietatik eratorritako oso produktu gutxi, bereziki okela, esnea eta arrautzak.

Egiptoko dieta interesgarria da elikaduran adituek osasunaren ikuspuntutik goratzen duten mediterraneoko dietaren adierazpenetako bat delako (labore, fruta, barazki, lekale, landare-olio ugari, eta animalietatik eratorritako produktuen kopuru txikia). Alkoholaren kontsumoa Hegoko herrialdeetan Iparraldean baino txikiagoa da orokorrean eta Egiptoren kasuan (Islamaren eraginez) ia ez da gertatzen.

► FAOSTAT 2003b

57. Desberdintasunak aberatsen artean



- 54. grafikoan bezala, 1 zenbakidun dodekagonoa munduko batez bestekoa da, eta 2, 3 eta 4 zenbakidunak AEB, Espainia eta Japonia dira hurrenez hurren.


○ Hemen alderatutako hiru herrialdeek munduan ongi elikatutako herrialdeen artean daude. Munduko batez bestekoa adierazten duen dodekagonoa hamabitaldeko irudia grafiko honetan nabarmen txikitu behar izan da hiru herrialde horiek dituzten dieta nabarmen handiagoak erakutsi ahal izateko. Denek munduko batez besteko laboreen kontsumoa baino txikiagoa dute, hau da, hiru dieta horietako bat bera ere ez dago oinarritzko elikagai baten nagusitasunean oinarrituta. AEBen dietan lau erpin nabarmentzen dira: azukreak, okela, esnea eta edari alkoholdunak. AEBetako animalien proteina-kopuru altuko dietaren zergatia ez dago herritarren gustuetara lotua soilik: nutrizionistek XX. mendean zehar modu ofizialean osasuna eta ahalik eta garapen fisikorik handiena lortzeko asmoz sustatu zuten: AEBetako armadak animalien proteina asko hartzeak soldadu indartsuak sortzen zutenaren ustea (eta etorkizuneko soldadu indartsuen ama indartsuak) sustatu zuten; eta abeltzainen lobby indartsuak eta okelaren industrian interesa duten gainerako aldeek ere hala egin zuten.

Espainiarrek estatubatuarrek baino okel, fruta, barazki eta edari alkoholdun gehiago kontsumitzen dute, baina azukre eta arrautza gutxiago (eta hori tortilla famatua dela eta guzti!). Espainiarrek kontsumitzen duten arrain eta marisko kopurua oso handia da, baina Japoniaren mailatik oso urrun gelditzen da.

Japoniako populazioak arrain eta marisko kopuru ikaragarria kontsumitzen du munduko gainerako herrialdeekin alderatuz (munduko batez bestekoa lau bider inguru); Japoniak arrautza kontsumo-mailarik altuena du; baina gainerako kategoria guztietan bere kontsumoa AEBetako eta Espainiako baino txikiagoa da.

AEBetako biztanleek janari-ohitura ez oso osasungarriak dituztela eta europarrek, berriz, dieta mediterranea dela medio, ondo eta zentzuz jaten dutenaren ideia arras zabaldua nekez izan daiteke datuen analisisen ondorio: jaiotze uneko bizi-itxaropena zertxobait altuagoa da Espainian (78,2 urte) AEBetan (77,5 urte) baino. Japonian, ordea, nabarmen altuagoa da, 81,1 urte (>>25>>128). Alde hori dieta desberdintasun horietan zenbateraino oinarritzen oso kontu eztabaidatua da.

58. Kantitatea eta aniztasuna: Espainiako eta Bangladesheko dietak



● Goiko irudiak Espainiako eta Bangladesheko eguneko batez besteko kalorien horniketa erakusten du, horien jatorria animaliena edo landareena den bereiztuz. Beheko grafiko zirkularrek dieta bi horien arteko alderaketa zehatza egiten dute bai tamainari dagokienez bai osaerari begira.

○ Bangladesh desnutrizio-maila zabala duen herrialde txiroa da eta Espainia, berriz, herrialde nahiko aberatsa desnutrizioko arazo mugatuekin. Alderaketa honek honakoak uzten ditu agerian: Espainian kalorien batez besteko kontsumoa Bangladeshekoa baino %50 handiagoa da.

Espainian kalorien ia herena animalietatik eskuratzen da; Bangladeshen mota horretako kaloriak oso urriak dira.


Bangladeshen kalorien %80ren jatorria elikagaien kategorian jakin batean topa dezakegu, hots, laboreetan: kasu honetan, arroza; Espainian, aldiz, laboreek kalorien kontsumoaren laurdena baino ez dute adierazten, iraganean garrantzi handia bazuten ere.

hau da, Espainiako dieta oso anitza da, Bangladeshekoa oso monotonoa den bitartean.


Nutrizioaren eta desnutrizioaren inguruko eztabaidak ia halabarrez nahikotasun kuantitatibora (energiarena, proteinena eta mikronutrienteena) mugatzen dira. Garapenaren, medikuntzaren eta nutrizioaren arteko eztabaida da. Sarritan elikadura gertaera kultural gisa hartzen da: erritoren erabilpena, jatearen plazerra, eskuragarri diren elikagai anitzen gozamenak. Munduan elikagai nahikoak daudela sarritan esaten denean, kaloria-kopuruari soilik dagokion baieztapena da. Mundu guztiarentzako nahiko elikagai egongo litzateke mundu guztiak Bangladesh duen dieta-egituraren antzekoa balu, kopuru handiagotan balitz ere. Nutrizio-mailan dauden desberdintasunak kaloria-kopuru desberdinak izate soilarekin baino beste kontu batzuekin zerikusi gehiago du.

59. Animalien eta landareen proteinak

Proteinen kontsumoa...



...laboreen erabilerari lotua




- Goiko grafikoko barrek 8 eskualdetako 10 herrialdetan egunean batez bestez kontsumitzen diren proteinen kopurua eta osaera erakusten dute; behekoek laboreen zein ehuneko bideratzen den giza kontsumora eta zein animalien kontsumora, bai herrialde garatuetan bai garapen bideko herrialdeetan.

- Proteinen kontsumoan herrialde aberatsen eta pobreen artean dauden alde kuantitatiboak kalorien kontsumoan zeudenak baino nabarmen handiagoak dira. Eta, faktore ekonomikoak, kulturalak eta erlijiosoak direla medio, are handiagoak dira animalien proteinen kasuan. Nutrizionistak orain ez dira lehen bezain sutsuak proteinen kontsumoa sustatzen, batez ere, animalien proteinen kasuan. Dieta begetarianoek osasun egokia eman dezaketela uste da, eta zenbait arlotan, baita hobea ere.

Bitartean, ordea, Iparreko gizakiek jaten dituzten animaliek landareetatik datozen elikagaiak jaten dituzte, bere parekoen garunak jatera behartzen ez dituztenean behintzat. Hegoan gizakiek laboreak zuzenean jaten dituzte, Iparrean horiek batez ere animaliak elikatzeko erabiltzen diren bitartean. Baina animalia-proteina gramo bat ekoizteko aurrez 10 gramo landare-proteina jan behar izan da. Gizakiak, gero eta okela gehiago jenez, elikadura-katearen maila gero eta garaiagoan jarri dira eta horrek kate horretako fase bakoitzean energi kalorikoaren %90 galtzen dela esan nahi du. Horregatik, proteinetan aberatsa den Iparreko dietak landareetan oinarrituagoa den Hegoko dietak baino lur (eta makinaria eta produktu kimiko) gehiago behar du. Iparreko dieta (herrialde aberatsenen beste zenbait kontsumo-mailarekin gertatzen den bezala) ezin izango litzateke mundu mailara hedatu, horretarako behar diren baliabideak ez daudelako. Agian, bada Popeyek espinaketan eta bere bikote den Olibiagatik jartzen zuen kemenera itzultzeko garaia (izan ere Olibiaren ingelesezko jatorrizko izena Olive Oil da, hau da <<Oliba-olioa>>).

► FAOSTAT 2003b

60. Oinarrizko elikagaiak



- Mapak elikadura-energiaren (kilokalorietan neurtua) zein ehuneko lortzen den oinarrizko elikagaietatik, hau da, labore eta tuberkuluetatik erakusten du.


- Hemen oinarrizko elikagaiaren kontzeptua garapenarekin nola desagertzen den ikus dezakegu. Afrikako eta Asiako zati handi batean kontsumitutako kalorien %60 baino gehiago laboreetatik edo tuberkuluetatik dator. Iparreko herrialde gehienetan proportzio hori %30etik behera murriztua geratu da. Aberastasun handiagoarekin oinarrizko elikagaiak gutxietsi egiten dira, nutrizio anitzagoa eta luxuzkoak diren beste elikagaien aldean. Oinarrizko elikagaiak monotonoak izan daitezkeela egia bada ere, ez dira oinarrizkoak alferrik. Beren eginkizuna baliabide gutxiarekin ekoiztuak izan daitezkeela da eta, ondorioz, bizitza mantendu. Giza lanekua eta naturaren heredentzia espezieen biziraupenean bihurtzeko modu ekonomikoa izan dira.

Egun, nutrizionista batzuek dieten aniztasun zabalagoa eta elikagai aukera ia mugagabea osasunerako onak direnaren zalantzak dituzte. Horientzat gehiegizko aniztasunaren aurrean gizakiok elikadura-erabaki arrazoizkoak hartzeko gaitasun ezak, elikadura-nahasteak sorraraz ditzake eta gutxiegiak kopurua duten dietak jarraitzea eragin. Ondorioz, kopuruan eta edukian erregularatasuna eragiten duen oinarrizko elikagai bat dietan txertatua izatea, muga batzuen barruan, agian elikadura bertutea litzateke.

► FAOSTAT 2003b

V. Desberdintasunaren iturri anitzak

61. Ordainsarien desberdintasunaren bost iturri: Brasileko kasua



• Diagrama hauetan Brasilen 90eko hamarkadaren amaieran zeuden desberdintasunen datuak erakusten dira. Batez besteko alokairu nazionala 100 bada, eskuineko grafikoko beste hiru barra pareek batez besteko ordainsaria adierazten dute nazio-kopuruarekiko sexuaren, herrialdeko eskualdearen eta bien arteko konbinaketaren arabera. Ezkerreko irudiak alokairuen desberdintasunak erakusten ditu sexuaren, kolorearen, eskualdearen eta nekazaritza edo hiri izaeraren arabera eta horiek hezkuntza-mailari kasu egiten diogunean nola aldatzen diren kontuan hartzen da.


○ Beste herri askotan bezala, Brasileko aparteko desberdintasunen (<<11,16) eragileak diskriminazio ugartan gauzatzen dira. Baina beste herrialde askotan ez bezala, Brasilek informazio asko argitaratzen du bere herrian dauden desberdintasun-moten gainean. Irudi hauek informazio horren zati bat laburtzen dute:

- Brasileko Hego Ekialdeko alokairuak hiru bider handiagoak dira Ipar Ekialdean baino heziketarik gabeko langileentzat eta %50 inguru altuagoak heziketa altuko langileentzat (>>69) (ezkerreko grafikoa);
- Hirietan alokairuak nekazaritza-inguruetan baino altuagoak dira halako 3,5 eta 1,5 tarteetan (ezkerreko grafikoa);
- Zuriak alokairuak beltzenak baino altuagoak dira; desberdintasunik handiena hezkuntza-maila baxu-ertaineko pertsonen artean gertatzen da;
- Eta gizonezkoen alokairuak emakumezkoenak baino %15 inguru altuagoak dira antzeko lanetarako (eskuineko grafikoa);
- Diskriminazio-iturri desberdinak konbinatzen direnean, ondoko hau ikusten dugu: estaturik aberatsenetako gizonezkoek estaturik txiroenetako emakumezkoek ia-ia halako hau jasotzen dute.

Benetako desberdintasunak aipatutako hauek baino handiagoak dira metatzen diren diskriminazioen emaitzak direlako: horrela, hirietako gizonezko zuriak estatu aberats batean askoz gehiago irabazten du estatu txiro bateko emakume beltzak baino. Datu horiek iturri anitzetako desberdintasunen oso adibide ona dira (klasea, sexua, egoitza eta kolorea) atal honetan banan-banan ikusiko ditugunak. Datu horiek, hala ere, pertsona enplegatuen landunen ordainsariei eta alokairuei dagozkie bakarrik. Kapitalistak, lur-jabeak eta ugazabak, alde batetik, eta langabetuak, nekazariak, autonomoak eta indigenak bestetik, ez dira ageri. Horiek barneratzeak hobe azalduko lituzke Brasileko aparteko desberdintasunak. (<<6)

► IBGE 2003

62. Hezkuntzako desberdintasunaren hiru iturri: Iraneko kasua



- Lerroek Iraneko alfabetizazio-maila erakusten dute adinaren edo adin-taldearen arabera. 2. lerroa nazioko batez bestekoa da. Beste lerroek landa-eremuetan eta hirietan bizi diren gizonezkoen eta emakumezkoen mailak adierazten dituzte.


- Grafikoak Iraneko hezkuntzaren historia jasotzen du eta bertan gizonezkoen eta emakumezkoen eta hiri eta landa guneen arteko desberdintasunak daudela eta neurri batean gainditu egin direla ikus daiteke. Ohartu bedi 65 urtetik gorako biztanleriatik bostena bakarrik alfabetaturik dagoela. Horrek ikasteko adinean zeudenean, 30eko eta 40ko hamarkadetan, hezkuntza zerbitzuak jasotzeko posibilitatea oso urria zela esan nahi du. Eta desberdintasunak oso handiak ziren: adin horretako pertsonen artean, hirietako gizonezkoen %40 alfabetaturik dago, baina hiriko emakumezkoen %2 baino ez. Lerroek eskuinetik ezkerrean duten igoera bortitzak talde guztien hezkuntzak 1970. urtetik, baina batez ere 1979ko iraultza islamiarraren ondoren izandako hedapen azkarra erakusten du. Haurren ehuneko oso altuak, sexu bietakoak eta landakoak zein hirietakoak, egun eskola-adinean, lehen hezkuntzara joaten dira eta alfabetatuta daude. Baina ehuneko txiki bat, baita hirietako haurrena ere, oraindik eskolatu gabe dago. Horrek, batez ere, eskualdeen arteko desberdintasunak islatzen ditu. Eta deigarria da biztanleriaren kategorizazio horretako talde batek (landa-eremuko neskek) hezkuntza oraindik gainerako taldeek baino askoz ere proportzio txikiagoan eskuragarri izatea. Irakurtzen eta idazten ez dakiten landa-eremuetako nesken ehuneko bostek oraindik hezkuntzaren falta dute.

Grafiko honek, beste era batean izan arren, aurrekoak bezala honakoa ere erakusten du: emaitza sozial eta ekonomiko desberdinek orokorrean diskriminazioak eta desberdintasunak aldi berean ardatz anitzetan adierazten dituzte. Hemen, jasotako hezkuntzaren desberdintasunetan sexuak, egoitzak (hiria edo landa-eremua), eta inplizituki, beste faktore batzuek, hala nola egoitza duten eskualdeak eta, jakina, maila ekonomikoak eragina dute.

► SCI 1997

a. Sexua

63. Gizonezkoen joera hezkuntzarako sarbidean, 2001




- Grafiko biek hezkuntzan dauden sexuaren arabeko diskriminazioaren alderdiak erakusten dituzte. Ardatzek helduen eskolatzte-urteak neurtzen dituzte (goiko grafikoa) eta gaur eguneko matrikulazioa adierazten dute (beheko grafikoa) gizonezkoen kasuan (bertikala) eta emakumezkoen kasuan (horizontala). Puntu bakoitzak herrialde bat adierazten du eta aldagaiaren balioa seinalaten du gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat. Gizonezkoak eta emakumezkoak berdintasunean baleude, puntu horiek 45 graduko lerroan egongo liriteke; gainerik dauden puntuak emakumezkoen diskriminazioa erakusten dute. Garapenerako Nazio Batuen Programak matrikulazio konbinatuaren indizea biltzen du, adin-talde bakoitzeko zein ehuneko lehen mailako hezkuntzan, bigarren mailakoan eta hirugarren mailakoan dagoen matrikulatuta oinarri hartuta.

- Nabarmena da goiko irudian ia munduko herrialde guztietan gizonezkoek emakumezkoek baino hezkuntza-urte gehiago jaso dituztela; horrek iraganaren historia erakusten du. Beheko irudiak etorkizunaren historia kontatu lezake. Gaur egunean herrialde askotan emakumezkoek gizonezkoek baino eskolatzte-tasa handiagoa dute. Orokorrean, badirudi korrelazioa dagoela guztizko eskolatzte-mailen eta sexuaren arabeko joeraren artean: gizonezkoen eskolatztea erlatiboki baxua denean, emakumezkoena are apalagoa da. Gizonezkoen eskolatzteak gora egiten duenean, sarritan emakumezkoena are biziago hazten da. Dena dela, munduko leku askotako emakumeei oraindik gizonezkoek baino zailago gertatzen zaie hezkuntza jasotzea. Desberdintasuna handiagoa da arabiar herrialde batzuetan, Indian eta Asiako gainerako hegoaldean, hau izanik liburu honetan dagoeneko ikusi dugun eta beste atal batzuetan berrikeri aztertuko dugun historiaren parte ($\ll 26-36, \gg 132$).

► MUNDUKO BANKUA 2003e; PNUD 2003a

64. Gizonezkoen joera lanean eta diru-sarreretan, 1995



- Grafikoko bi eraztunek munduan lan egindako ordu guztiak bi irizpideren arabera banatzen dituzte: lana gizonezkoek edo emakumezkoek egiten duten eta ordaindua den ala ez. Eraztunek bat egiten dute bi irizpideak konbinatzearen ondorioz sortzen diren lau kategoriak erakusteko: gizonezkoen eta emakumezkoen ordaindutako eta ordaindu gabeko lana.

- 1995eko *Giza Garapenaren Txostenak* sexuaren araberako munduko lanekuaren banaketari buruzko inkesta originala argitara eman zuen. Besteak beste, hurrengo ondorioetara iritsi zen:


- emakumezkoek munduan lan egiten diren orduen %53 burutzen dituzte eta gizonezkoek %47;
- gizonezkoek egiten duten lanaren %75 inguru ordaindua da;
- emakumezkoek egiten duten lanaren herena gutxi gorabehera bakarrik da ordaindua;
- beraz, laneko lau kategorietatik, handiena emakumezkoek egiten duten ordaindu gabeko lana da, eta txikiena gizonezkoek egiten duten ordaindu gabeko lana.

Emaitza horiek herrialde zehatz batzuetan aztertutako lagin-kasu batzuen orokortzean oinarritzen dira. Hortaz, nahiko behin-behinekoak dira, baina denek antzeko istorioa kontatzen dutenez, orokortzea zilegia da. Ondorengo ikerketek nagusiki bat egiten dute.

Emakumezkoen eta gizonezkoen lana desberdina izatea sexuek jokatzen duten rolean dagoen diskriminazioaren emaitza da, eta neurri batean rol horiek aldatzea zergatik den hain zaila azaltzen du. Emakumeek gizonezkoek baino ordaindutako lan askoz ere gutxiago egiten dute eta, egiten dutenean, gutxiago ordaintzen zaie. Gertakari bien konbinaketak ia gizarte guztietan gizonezkoek errenta monetario zuzenaren zati handia eskuratzea dakar eta emakumearen independentzia ekonomikoa eragozten du (>>65-66).

► PNUD 1995

65. Emakumezkoak eta jarduera ekonomikoa, 2001



- Grafikoak eta mapak emakumezkoen jarduera-tasa gizonezkoenaren ehunekotan adierazita erakusten dute. Iturri desberdinetatik datoz eta, orokorrean antzekoak izan arren, kontraesan batzuk erakusten dituzte irudiok. Jarduera ekonomikoaren partehartze-tasa ofizialki ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean egiten den lanekuaren horniduraren arabera definitzen da. Printzipioz, langile autonomoak eta lan egin nahi duten langabetuak kontuan hartzen ditu. Era berean, etxetik kanpo komunitatearentzat edo nekazaritzan lan ordaindu gabea egiten dutenak barnera ditzake, baina herrialde bakoitzak bere irizpideari jarraitzen dio. Edonola ere, etxeko lanak ez ditu aintzat hartzen.


- Adierazle honetan aniztasun handia dago. Neurri batean, arrazoia zera izan daiteke herrialdeek jarduera ekonomikoaren inguruan dituzten kontzeptuak desberdinak izatea eta ondorioz, adierazlea oso zehatza ez izatea. Baina diferentziak, batez ere, ondoko faktoreen arabera dira: gizonezkoek eta emakumezkoek gizartean dituzten funtzio sozialak, gizartean ohituretan dauden diferentzia handiak gizonezkoen eta emakumezkoen gizarte-eginkizunei dagokienez, eta emakumezkoen parte-hartze ekonomikoa errazten edo eragozten duten politiketan dauden aldeak. Agerikoa da partaidetzaren tasarik altuenak Europako Ipar Mendebaldeari, Ipar Amerikari eta Herrialde Komunista Ohiei edo oraingoei dagozkiela. Garatutako Herrialde Kapitalistetan, emakumezkoek ordaindutako lanetan duten partaidetza izugarri handitu da 50eko hamarkadatik. Herrialde batzuetan, horren aldeko faktoreak honakoak izan dira: jarrera aldaketa eta haurtzaindegiak zabaltzea edo amatasunagatik baja hartzeko lege berriak eta antzeko neurriak. Baina beste arrazoi garrantzitsu bat klase ertaineko eta langileriaren familiek jasotako presio finantzarioa izan da gizonezkoen alokairuak txikiak izan diren herrialdeetan, AEBak barne (<<17).

Europako Hegoko Herrialdeetan, Asiako zati batzuetan eta Latinoamerika osoan emakumezkoen partaidetza-tasak baxuagoak dira, baina denen artean baxuenak Islamaren eta Kristautasunaren bertsio kontserbadoreek indar handia duten herrialdeetan daude.

► LANE 2003b; PNUD 2003a

66. Emakumezkoen zatia ordainsarrietan, 2001

Emakumezkoen irabaziak gizonezkoenen %tan adierazita, 2002



- Grafikoak emakumezkoen irabaziak gizonezkoenen ehunekotan adierazita erakusten du, herrialdeen lagin zabala hartuta. Ehuneko hori emakumezkoen partaidetza erlatiboaren eta alokairu erlatiboaren araberrakoa da.


- Datu hauen arabera, Kenya da emakumezkoen errenta proportzionalik handiena duen herrialdea. Afrikako herrialde askotan bezala, emakumearen partaidetza, bai nekazaritza tradizionalan bai merkataritzako ekonomia monetarioan, izugarri handia izan da eta errenta independente handi samarrak sortu ditu. Afrikako herrialde batzuetan, gobernuaren ideologiak bultzatu egin du hau guztia independentziaz geroztik. Lagin honen bigarren tokian Danimarka ageri da. Herrialde eskandinaviar guztietan emakumeek ekonomian eta politikan gizonezkoekin berdintasunean parte hartzeko joera handiagoa dute mendebaldeko beste herrialde batzuetan baino. Ekialdeko Europako herrialde batzuk ere zerrenda honetan goiko postuetan daude, emakumezkoen partehartze handiaren Sobietar tradizioari eusten diotelako, estatuaren ideologiak eta politikek ofizialki bultzatuta. Soldata lan berdinetarako erlatiboki ekitatiboa izan da eta emakumeek lanpostu profesional asko betetzen dituzte, nahiz eta ez horrenbeste zuzendaritzakoak. Zerrenda honetako Mendebaldeko Europako herrialdeetan, hala nola AEBetan, oraintsu aipatutako fenomeno hau berriagoa da eta lan-merkatuan parte hartzen duten emakumeen hazkunde erraldoiari eta, neurri batean, soldaten berdintasuna bultzatzen duten legedien eta ohituren aldaketei lotuta dago.

Sailkapen honen azken postuetan agertzen diren herrialdeetan gizarte tradizioen eta erlijioaren irakaskuntzen konbinaketak laguntzen digu ulertzen emakumezkoek dituzten eragozpenak diru-sarrera independenteak eskuratzeko. Herrialde horietako asko Mendebaldeko Asian eta Latinoamerikan kokatuta daude. Multzo horretan ez dago Sahara Azpiko herrialderik. Mendebaldeko Europan, Espainian, Italian, Grezian eta Irlandan oraindik emakumeen partehartze-tasak txikiagoak dira gainerako Europako Batasunean baino eta, beraz, irabazi erlatiboaren tasak ere baxuagoak dira.

► PNUD 2003a

b. Hiri-joera

67. Hiri-joera oinarrizko zerbitzuetan



- Bi grafiko hauek, herrialde batzuetako hiri-joera deskribatzen dutenak, 63. irudia bezala eginda daude. Ardatz bertikalek eta horizontalek ur hobetua eskura duten landa eta hiri eremuetako biztanleriaren ehunekoak neurtzen dituzte hurrenez hurren (goiko grafikoa) eta saneamendu sistemez onuratan direnak (beheko grafikoa). Puntu bakoitza herrialde bat da; diagonalaren azpitik dauden herrialdeek eskuragarritasun handiagoa dute hiri-eremuetan eta alderantziz.


- Grafiko hauetako puntu gehienak diagonalaren azpitik egoteak oinarrizko zerbitzu hauetan hiri-joera nagusitu ohi dela esan nahi du. Ur edangarria eta saneamendu zerbitzuak edukitzea garbitasunerako garrantzitsua denez, beren gabeziak ondorio larriak ditu osasunean eta hilkortasunean. Zerbitzu horien hornikuntzan dagoen hiri eta landa eremuen arteko aldea zalantzarik gabe hiri eta landa eremuetan dauden desberdintasun handiak azaltzeko arrazoi bat da, gaixotasun askoren iraupenari eta hilkortasunari dagokienean, batez ere haurren kasuan.

Saneamendu-sistemen hiri-joera handiagoa da ur eskaintzaren zerbitzuen bano. Herrialde batzuk beheko grafikoa goi-ekzerreko angeluan agertzen dira; horrek, bertan saneamendu-zerbitzuetan eskuragarritasuna orokorra dela esan nahi du, landa-eremuetan ia ezezaguna den bitartean. Ziurrenik, irakurle askok saneamendu-sistemak edukitzea ziurtat jotzen dute. Horiek gabe bizi behar izan dutenek bakarrik dakite beren gabezia zein gogorra den, zelako eragozpenak dakartzan eta zenbaterainoko duintasun falta eta osasunerako arriskua sortzen dituen. Liburu honen egileak nahiago du landa-eremu ez oso sofistikatuan bizi, saneamendu-sistematik gabe egitea horrenbeste gustatuko ez litzaiokeen arren.

► PNUD 2003a

68. Lau hamarkada urbanizatzen

Hiriko biztanleria, osoaren ehunekotan adierazita (definizio nazionalak)



- Grafikoak landa-eremuetan bizi zen biztanleriaren ehunekoak erakusten du, 1960 eta 2001 artean, garatutako eta azpigaratutako herrialdeetan eta herrialde zehatz batzuetan. Herrialdeen arteko alderaketak kontu handiz burutu behar dira herrialde bakoitzak hiriguneetako biztanleria minimoaren bere definizioak erabiltzen baititu (1.000tik 10.000ra doazenak). Baina herrialdeek beren definizioei eusten dietenez, urbanizazio-tasaren alderaketak denboran zehar fidagarriagoak dira.

- Urbanizazioa industrializazio-prozesuaren parte da duela 200 urtetik hona. Munduaren eraldakuntza produktibo sakonarekin lotuta dago: ia denek beren elikagaiak (hirietako gutxiengoentzat, gobernu agintarientzat eta parasitoentzat soberakin batekin batera) ekoizten zituzten garaitik gehiengoak industrian edo zerbitzuetan lan egiten duen batera igaro gara, non gutxiengoak nekazaritzan lan egin, landa-eremuetan bizi eta elikagaien hornikuntzaz arduratzen den. (<<2-5). Datu horietatik herrialde eta eskualde guztiek, salbuespenik gabe, urbanizazioaren fenomeno ezagutzen jarraitzen dutela ondorioztatzen da. Baina eraldaketa hori munduko zenbait zonaldeetan beste batzuetan baino nabarmenago gertatu da eta herrialdeen arteko aldea izugarri handia da.


Leku batzuetako urbanizazioa jarduera ekonomiko berriek eskaintzen dituzten aukerei baino, zaharretatik bizitzen jarraitzeko ezintasunari emandako erantzuna da. Edonola ere, egun munduko biztanleriaren erdiaren inguru hirietan bizi dela kalkulatu da. Beraz, posible da munduko biztanleriaren %50 inguruk aurreko grafikoan ikusi dugun landa-eremuetako biztanleriak bizi duen diskriminazio ia unibertsala jasatea.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

***d. Eskualde-mailako
desberdintasunak***

69. Eskualde-mailako desberdintasunak Brasilen eta Mexikon

Brasil: probintziako *per capita* BPG, 2000



Mexiko: estatuko *per capita* BPG, 2001

- Orri honetan eta ondorengo seietan dauden mapetan 10 herrialdeetako eskualdeen, estatuen edo probintzien artean eta Europako Batasunaren barnean dauden errenta-mailaren aldeak. Kontrakoa adierazten ez den bitartean, aipatutako errenta EAP dolarretan adierazten da egungo prezioetan.


- Munduko herrialdeak disparekoak badira, berdin gertatzen da edozein herrialde zehatzeko eskualdeen artean; eta eskualdeko desberdintasunak muturrekoak izateko joera handiagoa du Hegoko herrietan Iparrekoetan baino. Herrialde juridiko batek, batez ere handia bada, barruan herrialde sozial eta ekonomiko desberdinak izan ditzake.

Brasileko probintzien arteko desberdintasunen jatorria garapen-prozesua da, herrialde handi honetako Hego Ekialdean muturreraino kontzentratuta egonik. *Per capita* errentaren eta beste adierazle batzuen zenbatekoak São Paulo probintzian, garatutako herrialde batetik oso hurbil daude; oster, Ipar Ekialdeko probintzietan ez dira Afrikako herri txiro batenak baino handiagoak izaten. 2001. urtean, *per capita* EAP errenta implizitua \$11.400 ingurukoa izan zen São Paulon (Eslovakiako mailatik hurbil); Distrito Federalean (Brasilia) ehuneko 50 altuagoa; baina Maranhãokoa 1.970 US\$koa izan zen (gutxi gorabehera Kameruneko eta Gineako mailen artean). Brasilen kasurako Giza Garapenaren Indize desagregatua 0,844 da Brasiliako Distrito Federalarentzat eta 0,814 São Paulorentzat; beste muturrean Maranhão dago 0,647rekin eta Alagoas 0,633rekin. Nazioko balioa 0,757 izan zen.

Mexikon ere, estatuen arteko desberdintasunak ez dira edonolakoak, Brasilen baino txikiagoak izan arren. Mapa aztertzerakoan, agerikoa da *per capita* errenta-maila desberdinen aldagai azaltzaile garrantzitsua AEBekiko hurbiltasuna dela. Desberdintasuna beharbada ez da Brasilekoa bezain “autonomoa”. 2002ko Mexikorako Giza Garapenaren Indize desagregatuak (nazioko batez bestekoa 0,801 zenean) ematen dituen balioak Distrito Federaletako 0,891tik eta Nuevo Leóneko estatuko 0,853tik (Baltikoko errepublikaren antzekoa), Txiapaseko estatuko 0,703ra (Jordaniaren maila) doaz.

► PNUD 2003b; PNUD MEXIKO 2002; IBGE 2003; INEGI 2003

70. Eskualde-mailako desberdintasunak Indian eta Txinan



- Indiako eta Txinako mapek estatuetak eta probintzietako *per capita* errenta-mailak erakusten dituzte, horien herrialdeko batez besteko errentarekin alderatuz.


- India eta Txina munduko herrialderik populatuena dira; biek 1.000 milioi biztanle baino gehiago eta oso azalera geografikoa handia dute. Beraz, ez da harrizkoa biek oso desberdintasun nabarmenak izatea eskualde-mailan. Txinan, probintzia-arteak *per capita* errenta Shanghairen, aberatsuenaren, eta Guizhouren, behartsuenaren, artean, 12tik 1erakoa zen 1999an; horien errenta-mailak Greziaren eta Indiaren antzekoak ziren hurrenez hurren. Orokorrean, kostaldeko eskualdeek errentarik altuenak izaten dituzte.

PNUD erakundeak 1999an Txinako Giza Garapen Indizearen (GGI) balio nazionala 0,644koa zela kalkulatu zuen, Shangaiko 0,8528ren, Guizhouko 0,6020ren eta Tibeteko 0,5212ren artean egonik, eta beren arteko aldeak Argentinaren eta Laosen artean dagoen espektroaren parekoa direlarik. Txina, zentzu horretan, barruan “herrialde asko” dituen herrialdea litzateke, eta alde horiek hazkunde ekonomiko handiko azken 20 urtetan zabaldu dira.

Indiako estatuaren artean ematen den *per capita* errentaren aldea Txinako probintzietakoa baino txikiagoa da. 1997-98 urteetan, Delhi eta Goa eskualderik aberatsenak ziren; estatu handien artean aberatsena Punjab zen, Mharashtra bigarrena, eta Bihar txiroena. Delhi eta Bihar arteko batez besteko errentari dagokion ratioa 5,8tik 1erakoa zen, beren mailak Tunisiaren eta Txaden parekoak izanik. 1991an, estatuaren arteko aldea GGIlaren eta errentaren kasuan ez datoz bat. Kerala, Punjaben *per capita* errentaren erdia besterik ez duenak, GGIlaren mailarik altuena zuen (0,638), Punjabena baino nabarmen altuagoa (0,537). Biharen Generoaren araberrako Garapen Indizea (GaGI), aldiz, Kongoko Errepublikako Demokratikoarenaren maila berean (0,367) zegoen.

► PNUD TXINA 2002; GOVERNMENT OF INDIA PLANNING COMMISSION 2001.

71. Eskualde-mailako desberdintasunak Egipton eta Hegoafrikan



● Grafiko honetan 70.irudian erakusten den gauza bera dugu, baina kasu honetan Hegoafrikaren (2000) eta Egiptoren (2000/01) kasuetan.


○ Hegoafrikak, apartheid garaiko oinordekotzaren ondorioz, gaur egun munduan dagoen desberdintasun-maila altuenetakoa du (<<11, 16). Arlo ekonomikoari dagokionez, herrialde honetan oso diferentzia handiak daude etnien, klase sozialen eta eskualdeen artean. 1994an, *per capita* errentaren aldeak Gautengeko 14.737 rand-etatik (Johanesburg hiriburuaren probintzia) Iparraldeko Probintziako 1.944 rand-erakoak ziren, 7,6tik 1erako ratioa osatuz, hau da, Argentinaren eta Nepalen artean dagoen diferentzia. Herrialde honetako 2000ko GGIari begira, aldea Gautengeko 0,681etik Limpopoko 0,586rako zen. Azken urteetan, balio horiek azkar doaz beherantz HIESaren epidemia dela eta.

Egiptoko Giza Garapenaren Txostenak dioenaren arabera, 2000. urtean herrialde honetako *per capita* errenta 5.061 US dolarrekoa izan zen (Munduko Bankuak egiten duen estimazioa askoz txikiagoa da: 3.500 US dolarrekoa). Baina hemen interesatzen zaiguna probintzien arteko aldea da. Probintziarik aberatsenaren (Port Said) eta txiroenaren (Asiut) arteko ratioa 4tik 1erako zen, Hegoafrikan eta Latinoamerikako hainbat herrialdeetan baino txikiagoa. GGIaren sailkapena errentaren antzekoa da. Port Said posturik altuenean dagoen probintzia da, 0,774ko balioa dagokiolarik, PNUDen giza garapen altuko kategorian gutxigatik sartzen ez dena. Sailkapeneko lehenengo postuetan dauden probintziak herrialdeko hiri handienei dagozkienak dira, Kairo, Alexandria, Port Said, eta Suez. Posiziorik txarrean dagoen probintzia Fayum da, 0,599ko balioaz. Bete gabeko datuek zera iradokitzen dute, landa-hiri eremuen artean dauden diferentziek probintzia-arte desberdintasunean oso eragin handia dutela.



► PNUD EGIPTO 2003; SOUTH AFRICA MINISTRY OF FINANCE 2003

72. Eskualde-mailako desberdintasunak Indonesian eta Spainian

Indonesia: eskualdeko *per capita* gastua, 1999



Herrialdeko batez besteko %a:



Espainiako estatua: eskualdeko *per capita*
produktu gordina 2002

- Irudi honetan 69–71 grafikoetan erakusten den gauza bera dugu, baina Indonesiaren eta Espainiaren kasuetarako.


○ Orrialde honetan agertzen diren bi herrialdeetatik, bata garapen bideko herrialdea da (Indonesia) eta bestea garatutzat hartutakoa (Espainia). Azken hau, orain dela 50 urte Europan zegoen pobreenetakoa zen, 400 urte lehenago munduan zegoen menderatzaileetakoa bazen ere. Eskualde-mailako desberdintasunei begira, herrialde horietan dagoen alde beste zenbait herrialdetan dagoenaren parekoa litzateke (69–71, 73–75). Orokorrean, herrialderik txiroenek desberdintasun geografiko handiagoak dituzte aberatsenek baino. Indonesian, probintziarik aberatsenen eta pobreenen arteko ratioa 9tik 1rako da (Ekialdeko Kalimantan eta Hegoaldeko Sulawesi hurrenez hurren); baina eskualderik aberatsenaren eta pobreenaren arteko askoz ere altuagoa da: Irian Jayako Fak Fak eta Ekialdeko Nusa Tangarako Mendebaldeko Sumba barrutien arteko 89tik 1erako da, mundu osoko herrialdeen artean dagoen espektroaren parekoa.

Ondasunen, kapitalen eta pertsonen mugikortasunerako askatasun erlatiboak eskualde desberdinen arteko garapena berdintze bidean jar dezake, eta gobernu baten politikak azkartu. Hein batean, gauza biak gertatu dira Espainian eta Europako Batasunean. 2001. urtean eskualde-mailako per capita produktua Arabako 22.300etik Badajozeko 9.600era zihuan (2,4tik 1erako ratioa gutxi gorabehera).

Herrialderik txiroenetan, garapen faltak agian eskualde desberdinen arteko aldeak murrizten dituzten fluxuak eragotziko ditu. Desberdintasun horiek enklabe ekonomikoak sortzen dituzten garapen dinamikek bultzatuak ere izan daitezke. Hori hazkunde bidean dauden eskualdeek esportaziorako manufakturak ekoizten dituztenean, edota petrolioaren edo beste baliabide aberatsen ustiapenerako tokiak edo zentro turistikoak direnean gertatzen da. Indonesiak, neurri batean, hori guztia badu eta litekeena da faktore horiek eskualde-mailako bere desberdintasunaren errudunak izatea.

► PNUD 2001, EIN 2003

73. Eskualde-mailako desberdintasunak Europar Batasunean



- Mapa txikiak Europako herrialdeen errenta-maila erlatiboa erakusten du. Mapa handian, EB eta 12 herrialde hautagaiak (2003ko abendura arte) NUTS2 (lurralde-unitateen izendapena estatistiken alorrean) eskualdetan banatuta zeuden. Horixe da Alemaniako *länder*-ekin, Espainiako autonomiekin, Frantziako probintziekin eta EBeko beste zenbait herrialdetako edota sartzeko hautagaiak ziren beste batzuetako eremu baliokideekin bat datorrena.


- Mapetan agerian geratzen den desberdintasun geografikoa eskualdeen tamainaren arabera da. Eskualdea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da berdintasuna. Horrek konparazioak kontu handiz egin behar direla esan nahi du. Herrialde bakoitzaren batez bestekoak aztertuta, EBeko herrialde bat berak ere ez zuen *per capita* errenta erkidegoko batez bestekoaren %50etik gora ala behera (2003aren amaiera aldera). Baina Europako datuek alde handiagoak erakusten dituzte eskualde txikiagoetarako. Horrela, beren arteko desberdintasunek gora egiten dute NUTS2 eskualderik txikienak alderatzen baditugu. Bost eskualdetan (London, Paris, Hamburg, eta Alemaniako beste bitan) *per capita* errenta-mailak EBeko batez bestekoaren %50etik gorakoak dira, eta beste 12tan batez bestekoaren %50etik beherakoak. London erdiguneko udalerriek (Inner London) *per capita* errenta batez bestekoaren %200etik gorakoa den eskualde bakarra osatzen dute (%241).

2004an suertatutako EBERako herrialdeen sarrera berriak, eta hortik aurrera datozenek, handitu egingo dute EBeko estatuen arteko desberdintasun-maila. NUTS2en desagregazio-mailari erreparatuta, 2007an EBera sartuko den Errumaniako eskualderik txiroenaren *per capita* errenta Batasuneko batez bestekoaren %18 da. Horrela, eskualderik aberatsenaren eta txiroenaren arteko ratioa 13tik 1erakoa litzateke (Txinak duenaren antzekoa).

Desberdintasunei dagokienez, tarte handiagoa da EBean AEBetan baino, lehenaren ekonomiak bigarrenak baino askoz ere integrazio-maila txikiagoa baitauka oraindik. Horrez gain, litekeena da eskualde-mailan dauden aldeak hazten doazen heinean, eskualde aberatsenetatik pobreenetara bideratzen diren diru-transferentzien zenbatekoak (EBeko BPGaren %1aren hamarren bat baino txikiagoa) behera egitea termino erlatiboetan.

► MUNDUKO BANKUA 2003b; EUROSTAT 2002

74. Eskualde-mailako desberdintasunak Errusian eta SESB ohian



● Grafiko honetan 69–73 irudietarako erakusten den gauza bera dugu, baina Errusiar Federakundearen eta Sobiet Batasun ohiko herrialdeetan (Errusiar Federakundearen *per capita* BPGarekin alderatzen dira).


○ Errusiar Federakundearen duen azalera geografiko izugarria, eta bertako zenbait eskualdetan garraiorako eta komunikazioetarako dauden zailtasun handiak direla eta, ez da harrizkoa Mendebaldeko Europakoa edo AEBetako baina larriagoa den eskualde-mailako desberdintasuna egotea. Probintziaren *per capita* BPG altuenaren (Mosku) eta baxuenaren arteko 12tik 1erakoa da. Petrolio eta gas industrietan azken aldian izandako garapen azkarrak eskualde-mailako desberdintasunak areagotu ditu; baina errentagarritasun handiko industrietan eta kapital-erabileran trinkoak direnek, kokatuak dauden eskualdetan BPG igoeraz dezakete inguru horretan bizi den jendearen bizi-baldintzetan eragin handiegirik sortu gabe.

Sobietar garaian, probintzia batetik bestera mugitzeko ondasunen, kapitalen eta pertsonen gaineko kontrolek eta murriztapenek, beren arteko konbergentzia eragotzi zuten. Murriztapenen aldia amaituta ere, gaur egun, probintzia-arte migrazio-mugimenduak Mendebaldeko Europan baino txikiagoak dira eta AEBetakoak baino askoz ere urriagoak. Eskualde txiroenetako biztanleek enplegu-aukera hobekuntza eskaintzen dituen eskualde aberatsago batera joateko arrazoi asko izatea litekeena da, baina askotan txiroegiak dira lekualdaketa hori aurrera eramateko. Horren ondorioz, eskualderik txiroenetako batzuetan, errealitate horrek bukatzen ez den soka sortu du, pobrezia eskualde-mailako desberdintasunak areagotu dituelarik.

Errusiar Federakundearen ez diren herrialde gehienak, beren independentzia Sobietar Batasun ohiko gainbeherarekin batera eskuratu zutenak, Errusia bera baino pobregokoak ziren. Horietako batzuek (Georgia, adibidez) Errusiaren baino denbora gehiago pasatu dute beren suspertze ekonomikorako bidea egiten, komunismoaren erorketarekin batera sortu zen krisialdi traumatikoaren ostean. Horrela, Sobietar Batasun ohiaren eskualde osoa hartuz gero, herrialdeen arteko desberdintasunak banaketaren garaian baino handiagoak dira.

► GOSKOMSTAT 2003; ANDRIENKO eta GURIEV 2003; MUNDUKO BANKUA 2003b

75. Eskualde-mailako desberdintasunak AEBetan



- 69–73 irudietan bezala, honetan AEBen kasuan, konderrrikako datuak bost kategorietan banatzen dira, zenbateko zehatzak eman gabe.


○ AEBetako estatuen artean errenta-mailari dagozkion desberdintasunak txikiak dira. EBeko kideekin gertatzen den bezala, ez dago estatu bat bera ere nazioko *per capita* errentaren batez bestekoaren %50etik gora ala behera dagoena (2003 amaiera aldera). Washington D.C.ren salbuespenarekin, bere *per capita* errenta beste estatuen oso goitik izanik, *per capita* errentarik altuena duen estatua Delaware da (nazio osoko batez bestekoaren %143) eta txiroena Mendebaldeko Virginia (%65), beren arteko ratioa 2,2tik 1erakoa izanik. Aldiz, estatuen araberrako banaketa egin beharrean (estatu horiek herrialde asko baino handiagoak dira), konderrrien arabera eginez gero (horiek herrialde gehienak baino txikiagoak dira), gauzak nabarmen aldatzen dira. Konderrri askok duten errenta-maila AEBetakoaren bikoitza baino altuagoa da, eta beste askok AEBetakoaren mailaren erdia baino errenta baxuagoa dute. Mapari begiradaxo bat botaz gero, AEBetako eremu batzuetan batez besteko errenta-maila altuko konderrrien kontzentrazioa ikusten da: Boston eta Washington arteko ekialdeko kostaldea, Kaliforniako kostaldeko hiri nagusiak, Chicago inguruko zonaldea, Texaseko hiri handiak, eta Denver, Colorado, Miami eta beste zenbait hiriren inguruko zonaldeak. Bereziki pobreak diren konderrrien kontzentrazioa hegoaldeko Mississippi bailarako landa-eremuetan, Mexikoko mugatik hurbil dauden zenbaitetan eta Mendebalde Ertaineko bestetan agertzen da.

Beste diagramek AEBetan klasearen, kolorearen, jatorri nazionalaren eta sexuaren araberrako desberdintasun handiak erakusten dituzte (<<17, 34, >>76). Leku guztietan bezala, zaila da bereiztea dauden diferentziak zenbateraino diren eskualdeko garapen-maila desberdinen ondorio edota erlatiboki desfaboratuenak diren biztanleriaren sektoreen kontzentrazio geografikoaren ondorio.

► US COUNCIL OF ECONOMIC ADVISERS 2003; US CENSUS BUREAU 2003g

e. Etnia

76. Joera etnikoak AEBetan



- Ezkerreko irudian familia zurien eta afroestatubatuarren arteko alderaketa dugu, 1992an errenta-mailari begira osatzen diren bost kategoriatan. Eskuinekoak zenbait adierazle erakusten ditu afroamerikarrentzat zurien adierazle beraren multiplo gisa.


- Eskerreko diagramak errentaren banaketan zurien eta afroamerikarren arteko alde kezkarria erakusten du AEBetan. Afroamerikarrena baino familia zurien proportzio handiagoa ikusten da hiru kintil (bostenak) altuenetan, eta familia afroamerikarren proportzio handiagoa bi kintil baxuenetan. Familia afroamerikarren %30ek, baina familia zurien %17k bakarrik osatzen dute azkeneko kintila. Lehenengo kintilean zurien %23 agertzen da, baina afroamerikarren %9 besterik ez.

Hispanoak zurien eta afroamerikarren artean daude eta asiar jatorrikoek zuriek baino errenta-maila altuagoak dituzte.

Eskuineko diagramak AEBetako biztanleria beltzak, zuriak baino ongizate-maila baxuagoa izanik, pairatzen dituen diskriminazio-mota ugariaren bilduma erakusten du. Adierazle ekonomikoek honakoa erakusten dute: afroamerikarrek jasotzen dituzten ordainsariak zurienak baino baxuagoak dira (gehienbat gizonezkoen kasuan), pobrezia jasaten duten heldu eta haur afroamerikarren ehunekoa zurienaren hiru aldiz handiagoa da, eta beltzen langabezia-tasa zurienaren bikoitzaren gainetik dago. Osasunaren inguruko adierazleek ere zera erakusten dute: afroamerikarren haurren heriotza-tasa zurienak baino hiru aldiz altuagoa da, amen heriotza-tasa lau aldiz handiagoa, eta GIB birusaren infekzio berrietan hamar aldiz handiagoa. Azkenik, afroamerikarren espetxeratze-tasa zurienak baino 5,3 aldiz handiagoa (>>118–119) eta eraildakoena 6 aldiz altuagoa da.

► US BUREAU OF LABOR STATISTICS AND CENSUS BUREAU 2003; HRSA 2002; UNITED STATES COUNCIL OF ECONOMIC ADVISORS 1998

77. Mundua *apartheiden* makrokosmos gisa




• Diagrama honek Hegoafrikako *apartheiden* garaiko zurien eta beltzen arteko diferentzien alderaketa erakusten du Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunekiko. Barrek Hegoafrikako zurien eta beltzen zenbait adierazleren ratioak (barra beltza) eta munduko Iparrekoak eta Hegokoak (barra zuria) adierazten dute. Barra zuria beltza baino luzeagoa denean, munduko Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak Hegoafrikako zurien eta beltzen artekoak baino handiagoak dira eta alderantziz.

○ Hegoafrikako *apartheida* munduak ezagutu duen diskriminazio-sistematik antolatuenetakoa izan zen. Barra beltzek adierazten dituzten desberdintasunak sortu eta mantendu egin zituen. Diferentzia horiek ageriago geratzen dira beheko irudian, non demokrazia garaia hasierako urteetako Giza Garapen Indizea erakusten den, arrazaren, sexuaren eta hiri/landa-izaeraren irizpideen arabera desagregatua. Zuriak 1994an 0,878ko GGIA zuten, landa-eremuko emakume beltzek 0,356koa zuten bitartean. Espainia eta Haitiren arteko aldearen parekoa da hori.

Goiko diagramak (barra zuriak) munduko Iparraren eta Hegoaren arteko diskriminazioa erakusten du. Ratioen arteko alderaketaren interesa munduko Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak *apartheid* garaiko zurien eta beltzen artekoa bezain kezagarria dela erakustean datza. Zenbait alorretan, baina batez ere osasun-arloko gastuaren kasuan, Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak handiagoak dira. Beste hitz batzuetan, munduak *apartheid* bezalako sistema diskriminatzaile baten makrokosmosa ematen du, munduak berak baztertu eta arbuia zuen sistema diskriminatzaile batena ia ahobetez etikoki onartezintzat hartu zuena.

Hegoafrika: gizarte taldeka desagregatutako GGI, 1994




► PNUD 2003a; SAIRR 1990; WOOD 1994

VI. Nazioarteko ekonomia

a. Nazioarteko merkataritza

78. Nork esportatzen du zer?



• Irudi honek 64. grafikoaren itxura berdina du. Kanpoaldeko eraztunak, munduko esportazioak manuakturaren eta lehen sektoreko produktuen artean nola banatzen diren erakusten du eta barrualdeko eraztunak esportazioen banaketa herrialde garatuen eta garapen bidekoen artean. Gero, bi eraztunak doiturik, munduko merkataritzaren lau kategoria azaltzen dira: herrialde garatuetatik eta garapen bideko herrialdeetatik egindako manuakturaren eta lehen sektoreko produktuen esportazioak.


○ Herrialde garatuek manuakturak eta garapen bidekoen lehen sektoreko produktuak esportatzen dituztela uste duten asko harritu egingo dira irudi honek emandako informazioarekin. Munduko esportazioen egitura honela laburbildu daiteke:

- Munduko esportazioen %68 herrialde garatuetatik dator eta garapen bideko herrialdeetatik %32 soilik;
- Herrialde garatuek batez ere manuakturatutako ondasunak esportatzen dituzte (beraien esportazio guztien %76 eta munduko esportazioen %52);
- Garapen bideko herrialdeen kasuan ere, manuakturatutako esportazioak lehen sektoreko produktuen esportazioak baino handiagoak dira (beraien esportazioen %75 eta munduko esportazioen %24)
- Herrialde garatuek garapen bidekoen baino lehen sektoreko produktu gehiago esportatzen dituzte (munduko esportazioen %24 batzuek eta %8 bestek).

Hemen aipatutako hainbat gertaerak uste orokorrak hankaz gora jartzen dituzte. Uste edo iritzi horiek garai batean zuzenak ziren baina azkeneko hiru hamarkadetan munduko merkataritzaren egitura asko eta azkar aldatu da.

► UNCTAD 2003a

79. Nork esportatzen du nora?



- Grafiko honek eskualde nagusien arteko munduko erkataritzaren eredu orokorra azaltzen du. Eratzunak, eskualdeek esportazio guztietan duten zatia erakusten du eta geziek merkataritza-fluxu nagusien kantitatea eta noranzkoa adierazten dute (urteko 25 mila milioi dolarretik gorakoak direnak).

- Nazioarteko merkataritza oso engainagarria izan daiteke, espezializazio eta lanaren zatiketa handia dagoen ideia aditzera ematen baitu. Baina errealitatean produktu bat Vladivostoken ekoiztu eta San Petersburgon saltzen bada edo Reunionen ekoiztu Frantzian saltzeko ez da nazioarteko merkataritza kontsideratzen, lanaren zatiketa espazialak maila altua erakutsi arren. Baina tarta bat Hendaian egitea eta Irunen saltzea nazioarteko merkataritza da, nahiz eta bi hiri hauek elkarren ondoan egon. Nazioarteko merkataritza muga juridikoak gainditzen dituzten salmentek osatzen dute.

Irudi honetan munduko merkataritza-fluxu nagusia, alde handiarekin, Mendebaldeko Europako herrialdeen artean egindakoa dela azaltzen da. Beraz, Europako Batasuna herrialde bakar bat bihurtuko balitz, nazioarteko merkataritza nabarmen jaitsiko litzateke, munduko lanaren zatiketari eman ez arren.

Grafikoak munduko hiru merkataritza-fluxu nagusiak oso garbi definituta dauden eskualdeen barruan egiten direla erakusten du (Mendebaldeko Europa, Asiako Hego eta Hego Ekialdea eta Ipar Amerika) eta ez eskualdeen artean. Era berean, irudi honek Europako, Ipar Amerikako eta Japoniako merkatu aberatsek gainerako esportazioentzako duten garrantzia erakusten du, baita ere Latinoamerikak eta Afrikak nazioarteko merkataritza-fluxuetan duten partehartze eskasa.

► MME 2003

80. Merkataritzaren industrializazio hazkorra

1970




Manufakturak esportazioen %tan adierazita



Daturik gabe 0-25 26-50 51-75 76-100

2001





- Bi mapa hauek 1970 eta 2001 urteetan, manufaturek ondasunen esportazioetan izandako pisua erakusten dute (beti lehen sektoreko produktuekin alderatuz).

- Irudiak azken mende laurdenean munduko merkataritzan eman diren aldaketak ikusten laguntzen digu. Esportazio osoetan lehen sektoreko produktuen proportzioa txikitu egin da eta aldiz manufaktura igo egin da. Joera horrek eragina izan du herrialde gehientsuenetan. Batzuek, lehenago batez ere lehen sektoreko produktuak esportatzen zituzten eta orain ondasun manufakturatutako gehiago esportatzen dituzte (adibidez Irlanda, Thailandia, Malaysia, Filipinak, Indonesia, Brasil, Maroko eta Tunisia). Herrialde batzuek, jada 1975ean lehen sektoreko produktuen aldean manufaktura gehiago esportatzen zituztenek, manufaktura pisua handitu egin dela ikusi dute (adibidez AEB, Txina, Japonia eta Bangladesh). Eta beste batzuek, oraindik ere lehen sektoreko produktu gehiago esportatzen dituztenek, manufaktura proportzioa igotzen ikusi dute (adibidez Australia eta Argentina).

Baina grafikoak historiaren beste alde bat ere erakusten du. Herrialde multzo batean –Latinoamerikako gutxi batzuk eta Afrikako gehienak– esportazioen egitura ez da manufaktura alde aldatu. Beraz, ez dute gehien hazten ari diren merkatuetan sartzetik lortu. Beren produktuen prezio erlatiboak maiz jaitsi dira eta haien merkatuak geldinean sartu edo beherantz ari dira. Guzti horrek, ondorengo irudietan ikusiko den bezala, munduko merkataritzan duten kuotaren beherakada ekarri du.

► MUNDUKO BANKUA 2003a

81. Iparra Hegoaldearentzako merkatu gisa




- Ezkerreko diagramak honakoa erakusten du: zer proportzio zuten 1980 eta 1995 urteetan garapen bideko herrialdeetatik inportatutako manufaktura baliok herrialde garatuetako hiru merkatu garrantzitsuenetako manufaktura kontsumo osoan. Eskuineko diagramak hiru merkatu horietan 1995ean zuten proportzioa aukeratutako sektorearen arabera erakusten du.

- Diagrama hauek, munduko merkataritzan emandako aldaketak beste ikuspuntu batetik erakusten dituzte, herrialde kontsumitzaile handien inportazioen ikuspegitik hain zuzen ere eta ez esportazioenetatik. Azkeneko 20 urtetan, ezkerreko diagramak erakusten duen legez, garatutako herrialde garrantzitsuenek garapen bideko herrialdeetatik egindako inportazioak handitu dituzte. Prozesu hori AEBetan areagotu egin da eta bertan 2001ean kontsumitutako manufaktura ehuneko 8,8 garapen bideko herrialdeetatik inportatu ziren. European, kopurua ehuneko 6ra ozta-ozta iristen zen eta Japonian berriz, ez zen 6ra iristen. Igoera horiek, batez ere AEBetakoak, asko aldatu dituzte herrialde txiroen manufaktura esportazioen aukerak. Hala eta guztiz ere, herrialde garatuetako jendeak uste duena baino askoz txikiagoak dira eta bertan inportazio horiek lehen mailako eztabaidagai politiko bihurtu dira.

Tamaina puztearen arrazoia 1995eko datuetan oinarritutako eskuineko diagraman ikusten da. Kontua da garapen bideko herrialdeetako ekoizleek merkaturak egin duten sarrera bereziki nabarmena izan dela oinetakoak eta arropa bezalako kasuetan eta beraz, jendearentzat oso begi-bistakoa. Baina gainerako sektore gehienetan, batez ere industria astunean baina baita ehungintzan ere, sarrera hori oraindik oso txikia da.

► UNCTAD 1999; MME 2003; ELGE 2003

82. Hegoaldeko manufaktura-esportazioak




- Diagrama honetako barrek (beheko ardatzean neurtuta) manufakturen milaka milioi dolarretik gora esportatzen duten garapen bideko herrialde guztiek, 2001ean esportatutako manufakturen balioa erakusten dute. Marrak berriz (goiko ardatzean neurtuta) herri horiek Hego guztiko manufakturen esportazioetan duten ehuneko metakorra azaltzen du (Txinak ehuneko 14, Txinak eta Koreako Errepublikak ehuneko 25, eta abar).

- Diagrama honek Hegoko manufaktura-esportatzaile berriei buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen du. Handiena Txina da, bere kide komertzialek oraindik ere oztopo ugari jarri arren. Beste esportatzaile benetan garrantzitsuak Koreako Errepublika, Taiwan eta Mexiko dira. Singapur eta Hong Kong esportatzaile handiak dira ere baina, ikusten den bezala, esportatzen dutenaren ehuneko altua alde aurretik beste nonbaitetik inportatu dute. Hortik aurrera, ondorengo herrialde bakoitzaren esportazio-kopurua nahiko azkar jaisten da. Beste era batera esanda, Hegoko esportazioen garapena oso era ezberdinean banatu da herrialdeen artean. Manufakturen 33 esportatzaile nagusi hauek (horrela erakusten du ehuneko metakorra azaltzen duen lerroak) Hegoko manufaktura guztien bi herena biltzen dute. Azken 30 urtetan garapen bideko herrialdeen merkataritza-tamaina eta egitura agregatuak aldatu diren arren, herrialde askok prozesu horretan apenas parte hartu dutela azaltzen du kontzentrazio maila horrek. Egungo esportazioak eta munduko merkataritza hain azkar zabaltzen hasi baino lehen zeuzkatenak, berdintsuak dira, azken herrialde hauentzat.

► MME 2003

83. Irabazleak eta galtzaileak merkataritzan I




● Diagrama honek eta hurrengoak 1950etik 2000ra munduko espportazioak hainbat herrialde multzoren artean nola banatu ziren erakusten dute. Eskala logaritmikoa da, horrela bai zenbaki txikiak bai handiak ikusi ahal izateko; eta hori dela eta, zenbaki txikien aldaketak puztuta agertzen dira zenbaki handienekin alderatuta.

○ Herrialde-multzo baten espportazio-kuotaren bilakaerak herrialde horiek munduko ekonomian duten partaidetza erakusten du eta hori dela eta baita inportazioekiko daukaten erosteko ahalmena ere. Esportazioetatik lortutako irabaziek garrantzi handia dute bai herrialdeko errenta errealean eta baita bere garapenerako ahalmenean ere. Esportazio-kuotak behera egiteak, maiz, munduko errentan izandako kuota ere jaisten ari dela adierazten du. Goiko bi lerroek munduko espportazio guztiek herrialde garatuen (ELGE) eta garapen bideko herrialdeen artean nola banatzen diren azaltzen dute. 1950etik 1970ra herrialde garatuak irabazi eta garapen bidekoak galdu egin zuten. Gero, hurrengo hamarkadan, joera alderantzizkoa izan zen, gehienbat 1973tik aurrera emandako petrolioaren prezioaren igoeragatik (petrolio munduko merkataritzako hiru produktu garrantzitsuenen artean dago). 80ko hamarkadan garapen bideko herrialdeen kuotak behera egin zuten, batez ere petrolioaren prezioaren jaitsieragatik eta azkenik, mendearen azkeneko hamarkadan, garapen bideko herrialdeen ehunekoak gora egin zuten manufakturen espportatzaile berrien arrakastari esker.

Beheko lerroek, herrialdeak multzo mugatuagoetan banatzen dituzte. Taldeak osatzeari dagokionez, errepikapen batzuk ikusi daitezke (adibidez, sarrera baxuko herrialdeen eta gutxien garatutako herrialdeen artean). Petrolio-ekoizleen kuotaren gorakada eta beherakada oso garbi ikusten da. 90eko hamarkadan, garapen-bideko kategoriatik guztiek, petrolio-ekoizleek eta Ekialdeko Europako komunista ohiek komunistentek izan ezik, igo egin zuten beraien kuota munduko espportazioetan, igoera nahiko apala izan arren.

► UNCTAD 2003a

84. Irabazleak eta galtzaileak merkataritzan II



● Diagrama hau aurrekoaren berdin-berdina da; aldaketa bakarra herrialdeak eremu geografikoaren arabera eta ez kategoriatan arabera biltzen dituela da.


○ Aurreko diagraman 90eko hamarkadan garapen bideko herrialdeen kategoriatan gehienek esportazio-kuota handitu zutela ikusten zen eta oraingo honetan berriz, igoera hori praktikan selektiboa izan zela ikusten da. Latinoamerikak kuota igo egin zuen, hori bai, 40 urteetan jaitsiera nabarmenak izan eta gero. Baina, Mendebaldeko Asiako kuota (petrolioaren prezioak eraginda) 1980ko maila baino askoz beherago jarraitu zuen eta Ipar Afrikak eta Sahara Azpikoa jaitsi egin ziren azken mende erdian gertatzen ari den bezalaxe. Garapen bideko herrialdeen enpresen esportazioen igoera Hego Asiatic eta Hego Ekialdeko Asiatic etorri da, horien kuota munduko merkataritzan 1970tik hona benetan asko igo baita.

Berriz ere, Sahara Azpiko Afrikako arazo ekonomiko berezien berri dugu. Kontinente horretako esportazioek jaitsiera historikoa jasan dute. Munduko kuota 1950eko ehuneko 3 ingurutik, 2000an ehuneko 1 baino gutxiago izatera pasa da. Batez ere Afrikak ez dituelako esportatzen dituen produktuak apenas aldatu eta produktu horien prezioek jaisteko joera izan dutelako gertatu da hori. Hori dela eta, azken hamarkadetako polarizazio harrigarriena bai esportazioetan, eta beste toki batzuetan ikusi dugun bezala, bai errentan garapen bideko herrialdeen hainbat sektoreen artean eman da eta batez ere Ekialdeko Asiako eta Sahara Azpiko Afrikaren artean. Nazioarteko merkataritza polarizazio horren adierazleetako bat da.


► UNCTAD 2003a

85. Truke-harremanen arazoa

Produktu-taldeen prezio errealak, 1970-2002 (1990=100)



Lehen mailako produktuen prezio errealen indizea, 1980-2002 (1970=100)



● Goiko diagramak hiru produktu-moten prezioek 1960tik hona izandako bilakaera erakusten du. 1990eko prezio guztiei 100 balioa ematen zaie. Horrela, diagramak prezio erlatiboen bilakaera azaltzen du eta ez bere maila. G5eko bost herrialdeak manufakturen esportatzaile handienak dira: AEB, Alemania, Frantzia, Japonia eta Erresuma Batua. Beheko diagraman (beste indize bat, kasu honetan 1970ko balorea da 100) lehen sektoreko produktu zehatz batzuen prezioen bilakaera konparatiboa neurtzen da.


○ Munduko prezioak askotan nahiko noraezean igotzen eta jaisten diren arren, epe luzera joera bat dago: manufakturen prezioak erlatiboki igo egin dira eta lehen sektorekoenak jaitsi; horrela ikusten da goiko diagramako manufakturen eta lehen sektoreko produktuen lerroak alderatzen direnean. Hori dela eta, lehen sektoreko produktuak esportatu eta manufakturak inportatzen dituzten herrialdeek ondorio kaltegarriak jasaten dituzte. Gero eta kantitate fisiko handiagoak saltzera behartuta daude inportatu nahi duten kantitate zehatz bat erosi ahal izateko. Horregatik, aurreko irudietan ikusi dugun bezala, lehengaien ekoizleek, bereziki eskari mugatua eta zabaltzen doan eskaintza duten produktuak, edari tropikalak esaterako, truke-harremanen beherakada bereziki nabarmena dute.

Beheko grafikoak produktu guztien prezioen indizeak 1970ean 100 zirenez, urte horretatik 1980ra prezioen bilakaera ezberdina izan dela erakusten du. Batzuk igo eta beste batzuk jaitsi egin ziren. Beraz, lehen sektoreko ekoizle batzuek galdutakoa beste batzuek irabazi zuten. Eta dibertsifikatutako ekoizle gutxi batzuek, produktu batean izandako galerak beste bateko irabaziekin orekatu zituzten. Baina diagramak honakoa erakusten du: 80ko hamarkadan ia produktu guztien prezioek jaitsiera itzela izan zuten eta ia bakarria ere ez zen 90eko hamarkadan suspertu. Beraz, esportatzaileek, gehiago esportatuz bakarrik handitu ahal dituzte sarrerak eta horrek, lehen sektoreko produktu askoren kasuan, prezioen hondamen are handiagoa ekarri du eta gurpil zorua sendotu du.

► MUNDUKO BANKUA 2003b; MUNDUKO BANKUA 2003d

b. Nazioarteko inbertsioa

86. Nazioarteko inbertsioaren igoera




- Diagramak atzerriko inbertsioa, inbertsio finko gordinaren ehunekotan adierazita erakusten du. Kasu honetan, inbertsio bezala inbertsio zuzena hartzen da (aktibo produktiboetan) eta ez zeharkakoa (aktibo finantzarioetan). “Barrurantz” inbertsioa beste herrialdeetatik dator eta “kanporantz” inbertsioa beste herrialdeetara doa. Herrialde garatuak eta garapen bideko herrialdeetako informazioa bereizita erakusten da. 2002an garapen bideko herrialdeetako inbertsioaren ehuneko 11 inguru atzeritik zetorren (III lerroa) eta aldiz, herrialde horiek kanpoan beren inbertsio finkoaren balioaren ehuneko 5 inbertitzen zuten (IV lerroa).

- Hemen nazioarteko merkataritzatik atzerriko kapital fluxuetara pasatzen gara. Azken urteetan emandako atzerriko inbertsio kantitatearen igoera erakusten du diagramak. Kapitalistek beraien inbertsio guztien zati handiagoa zuzendu dute beste herrialdeetara, eta herrialde askotan atzerriko konpainiek inbertsioaren proportzio handiagoa hartzen dute. Herrialde garatuak garapen bidekoek baino gehiago inbertitzen dute kanpoan erlatiboki. Eta erlatiboki baita ere, garapen bideko herrialdeek baino inbertsio gutxiago jasotzen dute kanpotik. Baina termino absolutuetan, atzerriko inbertsio zuzenaren gehiengoa herrialde garatuen artean ematen da.

Normala da atzerriko inbertsio zuzena kapitalistek beste herrialde batzuetan egindako ekoizpenaren kokatze berriak bezala ikustea. Baina, errealitatean, azken urteetan, jardura inbertitzaile berriaren gehiengo nabarmena gobernuak pribatizatzen ari diren aktiboen erosketa izan da. Pribatizazioa politika berria denez, eta logikak mugatua izango dela erakusten duenez (Estatuaren aktibo guztiak salduta daudenean), posible da atzerriko inbertsio zuzenaren igoera epe luzera ez mantentzea. Horrek, neurri batean, 2002ko ondorengo bi urteetan emandako atzerriko inbertsioaren hoztea azalduko luke.

► UNCTAD 2003b

87. Nazioarteko inbertsioaren jomuga Hegoan




- Bi diagrama hauek metodo bera erabiltzen dute atzerriko inbertsioa jasotzen duten garapen bideko herrialdeen garrantzi erlatiboa erakusteko. Ezkerreko irudiak atzerriko inbertsioaren stock osoa neurtzen du eta eskuinekoak 2002ko inbertsio berrien fluxua. Barrek herrialde garrantzitsuenen kantitatea azaltzen dute (beheko ardatzean neurtuta) eta lerroek (goiko ardatzean neurtuta eta behetik gora irakurrita) diagramako herrialdeek zein proportzio metakor duten garapen bideko herrialde guztiekiko.

- Irudi honek garapen bideko herrialdeetara bideratutako atzerriko inbertsioa oso-oso kontzentratua egon dela eta dagoela erakusten du. 13 herrialdek stockaren ehuneko 70 jasotzen dute eta 12k garapen bideko herrietara heldutako atzerriko kapital berriaren %80. Gainerako ehuneko 20-30 140 herrialdeen artean banatzen da. 8 herrialde zerrenda bietan azaltzen dira; beraz, eredia ez da asko aldatzen ari. Lau herrialdek bai stockak eta bai fluxu berriak menderatzen dituzte: Txina eta ondoren Brasil, Mexiko eta Hong Kong (alderatu 82. irudiarekin).

Orokorrean, garapen bideko herrialdeek kapitala inportatzen badute, kapital hori Ipar Amerikako, Europako eta Japoniako herrialde garatuetatik etorriko dela uste da. Baina Txinaren kasuan, garapen bideko herrialdeen artean atzerriko inbertsio jasotzailerik nagusia izaki, ez da horrela. Txinako atzerriko inbertsio gehienaren iturria Asian dago, bereziki Txinako Eremu Ekonomikoan (Hong Kong, Taiwan eta Macau), baina baita Singapur, Malaysia eta Indonesia bezalako herrialdeetan ere. Azken herrialde hauetan 60 milioi txinatar bizi dira eta kapital kantitate garrantzitsuak kontrolatzen dituzte. Estatistika horretan, Hong Kong eta Txina aparteko entitate gisa daude. Beren kopuruak ezin dira besterik gabe batu, horrek nolabaiteko kontabilitate bikoitza eragingo bailuke.

► UNCTAD 2003b

88. Nazioarteko inbertsioaren garrantzi erlatiboa, 2002



- Bai barra-diagraman eta bai mapan erakusten den adierazlea herrialde bateko atzerriko kapital stocka da, urteko barne-produktuaren ehunekotan neurtuta. Neurri hibrido hau kapital stockaren tamainari buruzko datu fidagarriak ez dagoelako erabiltzen da. Hainbat herrialdetan atzerriko kapitalak duen garrantzi erlatiboa erakusten du azaletik.

- Zaila da atzerriko kapitalak herrialde ezberdinetan duen garrantzian, antzeko ereduaren bat topatzea. Presentzia handiko eta txikiko herrialdeak ia talde eta eremu guztietan daude. Ematen du garrantzia erlatiboki handigoa dela garapen bideko herrialdeetan garatuetan baino, baina ehunekoak puztuta daude erabiltzen diren barne-produktu zenbakiak kanbio-tasak erabilia bihurtu direlako eta ez erosteko ahalmenaren parekotasunak.


Atzerriko inbertsio zuzen gehiena duen herrialdea AEB da alde handiaz, nahiz eta hori barne-produktuaren ehuneko txikia izan. Herrialde garatu artean bereziki garrantzitsua da Erresuma Batuan, Suedian, Belgikan eta Herbeheretan eta munduko gainerako herrialdeetatik Txinan, Brasilen, Argentinan, Txilen, Malaysian Vietnamen eta Afrika Mendebaldeko eta Erdiko herri batzuetan. Afrikan, atzerriko kapitalaren sarrera Asian edo Latinoamerikan baino zertxobait txikiagoa da, baina hiruren artean ez dago alde handirik.

Zenbaki horiek mundu osoarentzat atzerriko kapitala ekoizpen globalaren balioaren ehuneko 22 dela erakusten dute. Horrek, oso gutxi gorabehera, munduko kapital stockaren ehuneko 10 edo 11 inguru, kokatuta dagoen herrialdekoak ez diren pertsonenak edo enpresenak direla esan nahi du. Seguru asko gehienek uste dutena baino gutxiago da. Baina oso begi-bistan dauden sektoreetan kontzentratzeko joera du, beste batzuetan nahiko eskasa den bitartean.

► UNCTAD 2003b

d. Nazioarteko erakundeak

89. Iparreko eta Hegoaldeko enpresa multinazionalak




- Barrek, herrialde garatuetako 50 enpresa transnazional handien eta garapen bideko 50 handien aktiboen balioak erakusten dituzte, etxeko aktiboak eta atzerriko aktiboak bereizten direlarik. Kasu bietan hiru multzo geografikotan banatzen dira eta egoitza duten herrialdetik kanpo dituzten aktiboen balioen arabera ordenatzen dira.

- Irudiak munduko enpresa multinazional handien argazkia ematen du. Korporazio handienak General Electric, Ford eta General Motors bezalako enpresak dira eta horiek aktibo gehienak eta negozio handienak jatorriko herrialdeetan dituzte. Beste batzuek, Vodafone, Nestlé, Hoechst, Bayer ABB eta Unilever bezalako konpainiek, petrolio-konpainia handi gehien antzera, jardura gehienak atzerrian egiten dituzte eta enpresa multinazionalak dira zentzu zorrotzean. Baina enpresa handi horietako ia batek ere ez du egoitza nazional bakarrarekin erabat apurtu, ondo finkatutako Unilever eta Royal Dutch Shell bezalako enpresek izan ezik. Ikusteko dago ea mugak gaintzen dituzten batagiteak egiteko joera berriek benetako nazioarteko konpainiak sortuko dituzten.

UNCTADek emandako definizio ofizialak dio konpainia bat multinazionala dela gutxienez atzerrian filial bat duenean eta horretarako akzio arrunten ehuneko 10 baino gehiago izan behar du. Definizio zabal horren arabera, 64.000 konpainia multinazional matrize daudela uste da eta horien artean atzerrian 620.000 inguruk filialak dituztela (matrize bakoitzeko 10en bat). Enpresa horiek munduko ekoizpenaren ehuneko 33 inguru dagokie (ehuneko 23 matrizeena eta ehuneko 10 filialena). Orain, ia munduko enpresa handi guztiak multinazionalak dira zentzu batean ala bestean, baina dauden milioi erdi filial baino gehiago ez dira konpainia matrizeko esportazioentzako salmenta-agentziak baino askoz gehiago.

► UNCTAD 2003b

90. Nork zuzentzen ditu NMF eta Munduko Bankua?




- Bi zutabeek munduko ekonomia arautzen duten nazioarteko bi erakunde nagusien boto-eskubideen banaketa erakusten dute. Eskubide hauek herrialdeen arteko nazio-errentaren banaketaren antzekoak dira.

- Munduko ekonomia gero eta gehiago integratzen eta desberdintasunak eta ezegonkortasun potentziala handitzen doazen heinean, garbi gelditu da guztientzat, horiek kontrolatzeko instituzioak behar direla, edozein nazio-ekonomian gertatzen denaren antzera. Baina orain arte, mundu-mailako instituzio nazionalak baino botere gutxiago izan dute eta nekezago ulertu dira. Alde batetik, eta beti gertatu den bezala, munduko ekonomian boterea eta eragina herrialde ekonomikoki indartsuenek dute, batez ere AEBk. Baina nahiko botere gorabeheratsua denez, hainbat eratan instituzionalizatzen ahalegindu dira. Badaude tartean behin beren politikak koordinatzen ahalegintzeko biltzen diren herrialde-multzo informalak. Garrantzitsuena 7ko taldea da, orain 8ra zabaldu dena Errusia sartzeko. Orain arte ez da oso efizientea izan. Badaude bi erakunde botere errealik ez baina bai eragin globala dutenak, datuetara duten sarbideegatik eta beren analisiengatik: Basileako Nazioarteko Ordainketa Bankua eta Parisen egoitza duen ELGE. Azken horretan, partaidetza herrialde garatuetara mugatu da, gehi beste gutxi batzuk arrazoi politikoak direla eta. Dauden Nazio Batuetako erakunde ugari nahiko aurrekontu mugatua kontrolatzen dute, baina eragin handiko analisiak egiten dituzte. Hala ere, diru eta botere gehien duten eta baita ere herrialde txiroen eta aberatsen artean toki paregabea duten nazioarteko bi instituzioak Bretton Woods-eko akordioarekin sortutakoak dira: Munduko Bankua eta NMF.

► MUNDUKO BANKUA 2003b; MUNDUKO BANKUA 2003f; NMF 2003a

91. NMFk nor zuzentzen du?



- Mapak 2003an NMFekin hitzarmena adostua zuten herrialdeak seinalatzen ditu beltzez. Hitzarmen horien bidez maileguak edo laguntza finantzarioa jasotzen zituzten, neurri ekonomikoetan oinarritzen zen adostutako programaren truke.

- Bere historia laburrean, NMFak zeregin bat galdu zuen, beste bat aurkitu zuen eta orain aurkitutakoa ere galtzen ari da agian. 1944ko Bretton Woods-eko Konferentzian sortua, bere zeregina kanbio-tasa finkoetako trukerako erre-arau berria erregulatzea zen. Sistema horrek 20 urte baino gehiago iraun zuen, baina 1971 eta 1973 artean behea jo zuen, hein handi batean AEBetako administrazioak suntsitzea erabaki zuelako, dolarra devaluatuz, errearekiko harremana apurtuz eta kanbio-tasa finkoen sistemari amaiera emanaz. NMFari egiteko ezer gutxi geratu zitzaion, bere 1982ko kanpo zorraren krisialdiak ondorengo betebeharrak aurkitu arte (>>92-97). Hegoaldeko herrialdeetan indar polizial zein finantzario berri bihurtu zen eta maileguen zein aholkuen bitartez parte hartzen zuen arazoak zituzten herrialde zorpetuek onartutako programa ekonomikoa onartzearen truke. Horrela, agian nazioarteko sistema finantzarioa salbatu zuen larrizko une batean. Eta garapen bideko herrialdeetako politika ekonomikoengan aparteko eragin bat barneratu zuen.


Defendatzen dituen programek eredu zehatz baterako joera erakusten dute: pribatizazioa, desregulazioa eta barneko zein kanpoko ondasunen eta kapital merkatuen liberalizazioa, estatuak emandako subsidioen amaiera, aurrekontu-oreka eta, sarritan, monetaren devaluazioa. Neurri-multzorrek egiturazko doikuntza-programa izena hartzen du. Mapak NMFaren eragin zabala erakusten du. Hala ere, bere ospeak zenbait kolpe jaso du: egiturazko doikuntza-programekiko desilusio orokorra, bere eduki batzuek nolabaiteko kritika sorraraziz; 90eko hamarkadaren amaierako Asiako krisialdiaren aurreikusteko gaitasunik eza; eta bere segidako zuzendariak ordezkatzeko erabiltzen den prozedura desitxurosoa eta zorigaitzez ez-demokratikoa.

► NMF 2003a


e. Kanpo zorra

92. Kanpo zorraren tamaina guztira

Zorra guztira, nazio-errentaren urtetan adierazita (2000–2002)



Zorra guztira, esportazioen urtetan adierazita (2000–2002)



● Grafikoko barrek herrialde zorpetuenak erakusten dituzte, beren nazio-errenta kontuan izanik. Herrialdearen urteko nazio-errentaren multiplotan neurtzen da zorra; bestela esanda, zor duten nazio-errentaren urte kopuruan.


○ XX. mendearen amaieran zorpetzerik handiena zuten hiru herrialdeak Sao Tome eta Principe, Liberia eta Ginea Bissau ziren; bakoitzak atzerriko hartzekodunei bere urteko nazio-errentaren 3 urteren baliokidea baino gehiago zor zien. Diagrama honetan bere nazio-errentaren urte eta erdi baino gehiago zor duten herrialde guztiak ikusten dira. Zorpetze-maila hori eta Lehen Mundu Gerraren ostean Alemaniari egindako kaltearen ordainetan inposatutakoaren gisako zorpetze-maila ez dira oso desberdinak. John Maynard Keynes-ek (“Las consecuencias económicas de la paz” testuan) zor hori ordainezina zela salatu eta etorkizunerako arazo ekonomiko eta politikoen iturria izango zela baieztatu zuen. Herrialde horientzat eta beste batzuentzat (gehiengoa Afrikako herrialde oso pobreak izanik) gaur egungo zorra ordainezina da, denok dakigunez. Zorpetze Maila Altuko Herrialde Pobreen (HIPC, ingelesez) zorraren zati bat barkatzeko aldeko ekimen berri batek oso motel egin du aurrerantz. Ekimena gauzatu balitz, herrialde horietako asko oso zorpetuta egoten jarraituko lukete eta bizirauteko maileguak etengabe eskatzera eramaten duten zergatiak ezabatzen ez luke lagunduko.

Zorra dibisetan ordaindu beharra dagoela kontuan izanik, agian bere zamaren neurri gisa herrialdearen esportazioekin alderatzea esanguratsuagoa litzateke. Hori beheko diagraman egiten da: bere esportazioen urteko balioaren 5 bider baino gehiago zor duten 18 herrialdeak erakusten ditu. Herrialde-sorta bera zerrenda bietan agertzen da eta bietan Sahara Azpiko Afrikako herrialdeak nabarmentzen dira.

► MUNDUKO BANKUA 2004a

93. Gaur egungo zorraren zama


Ordaindutako zorraren zerbitzua, nazio-errentaren ehunekotan adierazita (2000–2002)



● Goiko grafikoak 2000–2002. urteetan beren nazio-errentaren ehuneko 10 baino gehiagoko zorraren zerbitzua (interesak gehi zorraren amortizazioa) ordaindu zuten herrialdeak erakusten ditu. Beheko diagramak tarte horretan beren esportazioen ehuneko 25 baino gehiagoko zorraren zerbitzua ordaindu zutenak erakusten ditu.

○ Agian, benetan ordaintzen duten zorraren zerbitzua herrialdeen zama ekonomikoaren neurri egokiagoa izan daiteke, zorpetzearen neurri orokorra baino. Errealitatean, programatutako ordainketen zati esanguratsu bat ez da burutzen. 2002. urtean ez ordaindutako printzipalaren atzerapenak 65 mila milioi dolar inguru ziren eta ordaindu gabeko interesen atzerapenak 37 mila milioi dolar. Atzerapenek zorraren zama politikoari lagun diezaioke, zordunen gaitan hartzekodunen interferentzia ahalbidetzen dute eta.

Ordaindutako zorraren zerbitzua, esportazioen ehunekotan adierazita (2000–2002)




Hala ere, diagrama honetako zifrek azken urteotan herrialde zordun nagusienetarikoez benetan ordaindutako kantitateak erakusten dituzte, beren nazio-errentarekin eta beren esportazioekin alderatuz. Goiko grafikoan 2000 eta 2002 artean beren nazio-errentaren ehuneko hamar baino gehiagoko zorraren zerbitzua izan zuten 23 herrialdeak agertzen dira. Kokapen geografikoari eta errenta-mailari dagokienez nahiko desberdinak dira. Herrialde barruan ageriko etekinik eskaintzen ez duen hain diru kopuru handiak mobilizatzeko, gobernu eta bere herrialdearekiko harremanak muturreraino tenkatzen edo prozesu harrigarria sortzen du, non zor zaharrak zor berrien bidez ordaintzen diren. Aukera bietako ezein ez da ona nazioarteko egonkortasunarentzat ezta aurrerapen sozialarentzat. Beheko diagraman urte horietan esportatzen irabazten zutenaren ehuneko 25 baino gehiago zorraren zerbitzuan erabili behar izan zuten 20 herrialdeak agertzen dira. Bi herrialde garrantzitsuek, Brasilek eta Kongoko Errepublikak Demokratikoak, beren esportazioetatik ateratako diru-sarreraren ehuneko 70 inguru ordaindu behar izan zuten interes eta zorraren amortizazio gisa.


► MUNDUKO BANKUA 2004a

94. Zorraren krisiaren zenbait eragile eta ondorio

Garapen bideko herrialdeetako zorrarekin lotutako transferentzia garbiak (milaka milioi US\$), 1970–2002



Interes-tasa erreala (urteko ehunekoa), Ameriketako Estatu Batuak, 1970–2002




- Goiko diagramak 1970etik 2003ra garapen bideko herrialdeetara doan eta horietatik datorren zorrarekin lotutako transferentzien urteko mugimendu garbia erakusten du. Zifra hori emandako mailegu berriei itzulitako mailegu zaharrak eta ordaindutako interesek kenduz kalkulatzen da. Beheko diagramak urte horiei dagozkien munduko interes-tasa errealen maila (interes-tasa nominala ken inflazio-indizea) erakusten du, zeina maileguak eskatzearen benetako kostuaren neurria baita.

- Zorrarekin lotutako transferentziek herrialde zorpetuetara eta haietatik benetan doazen diru-kopuruak neurtzen dituzte. Goiko diagramak garapen bideko herrialdeek 70eko hamarkadan mailegatutako dirua gogo bizi handiagoz eskatu zutela erakusten du, banketxeetako eskuragarri zeuden gehiegizko fondoei erantzunez (neurri batean 1973an LPEEK petrolio gordinaren prezioa igo izanaren ondorioz, herrialde petrolio-ekoizleen diru-sarrera handiagoengatik). Maileguak eskatzeak desiragarria eta erraza zirudien, hori egiteko kostua (interes-tasa erreala) baxua zelako, beheko grafikoan ikus daitekeen legez. Baina 1980. urtearen ondoren, AEBetan Reaganen eta Erresuma Batuan Thatcherren bezalako gobernuen herstura-politikek honakoa eragin zuten: inflazioaren jaitsiera, interes-tasa errealen igoera, lehengaien prezioen jaitsiera eta dolarraren balioaren igoera, zeinetan mailegu gehienak oinarritzen ziren. Orduko beren zorrak jada ordaindu ezin zituztela ohartu ziren mailegu-hartzaileak. Horien ez-ordaintzea eragotzi egin zen zorraren zenbait birnegoziaketan bidez, baina zorra askoz ere garestiagoa zen orduko eta hartzekodunetara itzultzen ziren fondo-fluxu garbi handia izan zuen emaitza. Hori hamarkada batean luzatu zen, 90eko hamarkadaren hasieran beste fluxu positibo berri bat hasi arte. Baina mailegu-fluxu berria aldakorragoa zen eta izugarritzko finantza-krisi handiak eta mendearen amaieran alderantzizko fondo-fluxu errekor berria eragin zuen. 1998 eta 2003 artean, munduko herrialde txiroenetatik aberatsetara 500 mila milioi dolar inguru irten zen, zorraren arlo guztien ondorioz.

► MUNDUKO BANKUA 2004a; NMF 2003b

95. Transferentzia positiboak eta negatiboak. Hegotik Iparrera bidalitako laguntza



● Orrialde honetako diagrama biek aurreko orrialdearen goiko grafikoaren informazio bera erakusten dute 1970 eta 2002 arteko urteetarako, datuak eskuragarri dituzten sei gune garrantzitsuenen artean xehatuta.


○ Hemen 80ko hamarkadako zorraren krisiak aurkako ondorio larrienak jasan zituzten herrialdeak Latinoamerikakoak izan zirela ikus daiteke. 80ko hamarkadan Latinoamerikatik kanpora irten zen zorrarekin lotutako dirua 70eko hamarkadan barrura sartu zena baino gehiago izan zen. Eta gune horrek balantze positiboa ez du inoiz berreskuratu, 90eko hamarkada hasieraren bi urte isolatutan izan ezik. 90eko hamarkada amaieraren krisialdiak beste izugarritzko fondoaren irteeraren fluxu garbian amaitu ziren, mende berri honetan dirauelarik.

80ko hamarkadaren amaieran Ekialdeko Asia oso fondo-hartzaile garbi handia zen, baina 90eko hamarkada amaieran Latinoamerikan baino era bortitzagoan behera etorri zen fluxua, eta alderantzizko fluxuak oraindik dirau. Ekialdeko Europak eta Erdialdeko Asiak (SESBko eta COMECONeko herrialde ohiak) 90eko hamarkadan fluxu positiboen bi mutur labur jaso zituzten, baina hamarkada amaieraren alderantzizko joerarekin bat egin zuten. Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako kasuetan, pixkanaka fluxu garbia nahikoa okertu da hiru hamarkadetan zehar.

Hego Asiako eta Sahara Azpiko Afrikako transferentzien egoera ez da hain aldakorra izan baina bi hamarkadetan zehar hondatze motela jasan du. Hori dela eta, zorraren arazo orokorrak okerrera egiten duela dirudi, bere berritzaile zen bait plan sortu arren. 1999az geroztik, zorrarekin lotutako transferentzia garbiak negatiboak izan dira sei arlo guzti-guztiantzat. Munduko gune pobreenetatik aberatsenentara transferentzia garbi hazkorren ardura orokorra duen sistemak oso ekarpen txikia, politikoa zein ekonomikoa, egingo dio nazioarteko egonkortasunari, justizia ez aipatzeagatik.

► MUNDUKO BANKUA 2003a

96. Hainbat zor mota, 2002



- Sei eskualdeei eta garapen bideko herrialde guztiei dagozkien barrek 2002an hiru motatako hartzekodunei zor zitzaien epe luzerako kanpo zorraren ehunekoak erakusten dute. Aldebikoak (beste gobernu batzuk), multilateralak (nazioarteko finantza-erakundeak) eta sektore pribatua (banketxeak, bonuen titularrak eta korporazioak) dira hartzekodunak.

- Garapen bideko herrialdeen kanpo zorrak izaera homoginoa izatetik urrun dago. Oso hartzekodun desberdin askori zor zaio, zehaztapen eta baldintza desberdinetan. Grafiko honek munduko guneen arteko kontrastea erakusten du, hartzekodun mota desberdinen arteko zorraren osarari dagokionez.


Orain zorraren ehuneko 57 sektore pribatuarekin lotzen da, ehuneko 19 erakunde multilateralekin eta ehuneko 23 beste estatuekiko aldebiko zorrarekin. Baina banaketa hori eskualde ezberdinen artean asko aldatzen da.

Txiroenak (Sahara Azpiko Afrika eta Hego Asia) zor pribatuaren proportziorik txikiena erakusten dute. Pobreziak ez ditu banketxeak erakartzen. Horrela, eskualde horietako herrialdeentzat herrialde aberatsen gobernuetikiko eta erakunde multilateralekiko nazioarteko harremanen kontua da zorraren kudeaketa. Sarritan, gobernu hartzekodunak ez dira ordainketetan egunean egoteaz gehiegi arduratzen, baina zorra eragin politiko bezala erabil dezakete, bere zati bat pixkanaka barkatzeko promesak barne. Finantza-kontuetan malgutasun askoz txikiagokoak dute erakunde multilaterak. Zor diren ordainketak jasotzeko lehenak direnean bakarrik mailegutzen dute dirua. Zorrak barkatzeko oso askatasun urria dute, herrialde aberatsenek finantzatuak direnean izan ezik. Aitzitik, hartzekodun pribatuak nagusi diren eskualdetan, finantza-kudeaketa orokorrean sartzen da zorraren kudeaketa.

► MUNDUKO BANKUA 2003a

97. Nortzuk dira hartzekodunak?

Epe luzerako zorraren balio osoa (milaka milioi US\$)



- Ezkerretik eskuinera igotzen den lerro beltzak (eskuineko ardatzaren gainean neurtuz) garapen bideko herrialdeetako epe luzerako zorraren guztizko tamaina erakusten du 1970tik 2002ra. Geruzek (ezkerreko ardatzaren gainean neurtuz) zor horren 6 motatako hartzekodunen arteko osaera aldakorra erakusten dute.


- Grafiko honek aipatutako zorraren ezaugarri batzuk baieztatzen eta zehaztasun historikoak gehitzen ditu. Erakunde multilateralek zorrean duten parte-hartzea nahiko aldagaitza izan da. Baina diagramak 1970. urteaz geroztiko zorraren pribatizazio hazkorra erakusten du oso argi, banketxeak Latinoamerikari eta Asiari soberako fondoak mailegatzan hasi zirenean. Baina fondoak lortzeko, herrialde zordunen gobernuek ordainketak bermatzea onetsi behar izan zuten. 1982ko krisialdian Mexikok eta, geroago, zordun gehienek, epe berriak bilatu zituzten zeuden ordainketen beharrak bete ezin zituztelako. Denboraldi batean, krisiak oso mailegu handiak emanda zituzten hainbat banketxe handiren egonkortasuna mehatxatzen zuela zirudien. Hala ere, banketxeek ihes egiteko modu desberdinak aurkitu zituzten, beraientzako nahiko kostu eskasaz. Hutsik gelditu zen tokia aldebiko maileguen hedakuntzak hartu zuen. Eta NMF paper garrantzitsuagoa hartzen hasi zen, herrialde zordunen gainbegirale finantzario gisa neurrigabeko ez-ordaintzeak saihesteko.

90eko hamarkadan, kreditu-erakunde pribatuak lehengoetara itzuli ziren. Baina garapen bideko herrialdeei emandako kreditu pribatuak desberdinak dira aurrekoekin konparatuz. Banku-kreditu gutxiago dago eta bonuak dira nagusi, finantza-erakundeen egonkortasunerako mehatxu zuzen urriagoaz. Bestalde, zorraren gero eta zenbateko handiagoa ez dago herrialde zordunen gobernuek bermatuta. Aldaketa horiek egonkortasun handiagoa sorrarazteko asmatu dira, baina laurogeita hamarreko hamarkada amaierako esperientziak arrakastarik ez dutela egiaztatu du, harrezkero aldakortasun txikiagoa izan arren.

► MUNDUKO BANKUA 2004a

f. Garapenerako laguntza

98. Diru asko, laguntza gutxi




- Grafikoak 2002an herrialde garatuek garapen bideko herrialdeei emandako garapenerako laguntzaren anatomia erakusten du. 1. barran iturri publiko zein pribatuetatik eta GKEtatik datozen baliabide berrien fluxu osoa azaltzen da. Fluxu pribatu guztiak eta publikoen zati bat komertzialak dira eta, horrela, ez dira garapenerako laguntza bezala kontuan hartzen (2. eta 3. barretan). 4. Barran ohiko definizioaren arabera aldebiko iturrietako, iturri multilateraletako eta GKEtako laguntza osoa azaltzen da. Maileguen eta dohaintzen artean banatzen da (5. barran), eta atzerri-monetan gastatzeko erabilgarriak diren eta ez diren artean ere (6. barran). Atzerri-monetan gastatzeko den laguntza bi motatakoa izan daiteke: edonon libre gastatzekoa eta herrialde emaileari egin beharreko erosketekin lotutakoa (7. barran). Eskuinean sartutako taulak aldebiko laguntzaren sailkapena (estatuaren artekoa) erakusten du, hiru irizpide desberdinen arabera: helmuga, jatorria eta erabilera.

- Herrialde garatuetako kapitalistek garapen bideko munduan egiten duten inbertsio pribatua laguntza publikoa baino handiagoa da. Laguntzaren ehuneko 57 aldebikoa da (gobernuetakoa), ehuneko 26 multilateral (nazioarteko erakundetakoa) eta ehuneko 16 GKEtako, nahiz GKEk gobernu batzuen laguntzaren zati bat ere administratzen duten. Printzipioz, laguntza munduko desberdintasunak arintzeko baliabiderik nagusienetakoa da. Baina guztira, munduko errentaren ehuneko bataren bostena inguru balio du soilik; horrela, birbanaketarako mekanismo bezala izugarri ahula da. 6. barran ikus dezakegun moduan, laguntza horren zati txiki bat baino ez da herrialde hartzaileek inportazioetan gasta dezaketenen dirua. Gainerakoa laguntzarako teknikarien ordainsariei dagokiena da, batez ere. Are gehiago, atzerri-moneten zati bat herrialde emailean gastatu behar da eta, beraz, bere balio nominala baino gutxiago balio du. Loturarik gabeko atzerri-moneten erako laguntza munduko errentaren ehuneko bataren hogeitik gertu dago. Hor ez da oso banaketa handia ikusten.

► ELGE 2004

99. Laguntzaren gainbehera, 1986–2002




• Diagrama honek garapenerako laguntzaren bilakaera erakusten du herrialde emaleen nazio-errentaren ehunekotan adierazita: 1986–1987 eta 1991-1992 urte aldietan batez bestekoa azaltzen da eta, geroago, 1998tik 2002rako datuak eskaintzen dira. Lerro lodi etena ELGEko herrialde emale guztien (Garapenerako Laguntza Batzordea – GLB / CAD) zifra agregatua da.

○ Herrialde batek nazioarteko desberdintasunen zuzenketarekin duen konpromisoa neurtzerako orduan, nazio-errentaren edo produktuaren ehunekotan adierazitako laguntza da neurririk onena. Diagramak azken urteotako konpromiso horren ezaugarriak esanguratsuenak erakusten ditu. Lau herrialdek (Danimarka, Norvegia, Herbehereak eta Suedia) argi eta garbi gainerakoek baino konpromiso handiagoa erakusten dute. Nazio Batuen erabaki famatua, herrialde garatuak beren nazio-errentaren %0,7 nazioarteko laguntzara zuzentzera deitzen dituenak, aplikatzen duten herrialde bakarrak dira. Munduko ehunkoa 90eko hamarkadan nabarmen jaitsi egin zen, herriaren, inflazioaren aurkako neurrien eta orokorrean estatuaren jardueraren kontrako erantzun neoliberalaren ondorioz. 1998tik aurrera ehunko 0,2 inguruko mailan mantendu da ozta-ozta. Zifra horiek benetako jaitsiera gutxiesten dute barkatutako zorrak barnatzen baitituzte. Horrelako zorrak ofizialki laguntza bezala kontuan hartzen dira eta azken urteotan hazkunde azkarrena izan duen elementuetariko bat izan da. Baina hori nekez da laguntzaren baliokidea, barkatutako laguntzaren zatirik handiena ez bailitzateke inolaz ere ordainduko eta.

Zifra globala beherantz doa AEBetako zifraren eraginez. Bere nazio-errentaren zatirik txikiena ematen duen herrialde-emalea da AEB, alde handiaz. AEBen laguntza-programei aurre egiteko ezkerreko eta eskuineko politikariak batu dira, aurreraoiegitzat edo atzerakoiegitzat hartutako gobernuei emandako laguntza eteteko, hurrenez hurren. ELGEko gainerako herrialdeen artean nolabaiteko konbergentzia ikus daiteke nazio-errentaren ehunko 0,3 zifraren inguruan. Etorbizun hurbilean maila hori igo dadin itxaropentsu izateko arrazoirik ez dago, Frantzia zein Erresuma Batuan jaitsiera luze baten ondorengo igoera berri bat gauzatu den arren. Hori Espainiako gobernu berriak ere agindu zuen 2004an.

► ELGE 2004

100. Laguntza nazio-errentan adierazita



- Diagrama honek eta oso antzekoak diren hurrengo biek laguntza hiru eratan aztertzen dute, emaleen eta hartzaileen ikuspuntutatik: nazio-errentaren arabera, balio absolutuan eta biztanleko per capita balioan. Horrexek herrialde bakoitzeko laguntza erakusten du barne-produktu gordinaren ehunekotan: herrialde emaleak ezkerreko grafikoan agertzen dira eta ehuneko altueneko hartzaileak eskuinekoan.


- Nazio-errentaren proportziotan adierazitako laguntzak herrialde bateko munduko desberdintasunen zuzenketarekiko konpromisoa neurtzen badu, Danimarkako konpromisoa AEBetako bano zortzi aldiz handiagoa da. Emale tipikoak bere errentaren %0,3 inguruko ekarpena egiten du nazioarteko laguntza gisa, eta zintzotasunaren eta interesaren nahasketa ulertezinaren emaitza da.

Eskuineko diagramak 2002. urtean beren nazio-errentaren hamarrena baino gehiagoko laguntza jaso zuten herrialde-hartzaile guztiak erakusten ditu. Horrela, laguntzaren tamaina erlatiboaren neurria izango da, eta ez absolutuarena. Laguntzarekiko mendekotasunaren neurri gisa ere azter daiteke. Zentzu horretan, oso herrialde txiroetan eta txikitian garrantzitsuagoa izango da laguntza. Horren arrazoietakoa bat honakoa da: gaur egun laguntza asko ez da epe luzerako garapenaren helburuekin bidaltzen; ordea, epe laburrerako krisiak arintzeko bidaltzen da elikagai eta beste oinarrizko beharren hornitze bezala, laguntza humanitaria deritzona. Eta, beste aldetik, laguntza-paketeek gutxieneko tamaina praktikoa dutela islatzen du. Tamaina hori beren errentaren ehuneko nahiko altua izan daiteke oso herrialde txikien kasuan.

Herrialde txiroenetariko batzuek erlatiboki laguntza gehiago jasotzea bi eratan uler daiteke: birbanaketarako benetako mekanismo baten seinale gisa edo gairiditzeko zaila den mendekotasun-sindrome gisa, batzuetan epe laburrerako pobreziarako irtenbideak epe luzerako irtenbideetarako trabak dira eta.

► ELGE 2004

101. Iparretik Hegorako laguntza guztira




- Diagrama honek 2002an banatutako laguntzaren kantitate absolutuak erakusten ditu. Ezkerrean herrialde-emaile guztiak agertzen dira eta eskuinean 500 milioi dolar baino gehiago jaso zuten hartzaileak.

- AEB eta Japonia laguntzaren banatzaile handienak dira. Baina laguntzaganako gogo politiko bizia lehengoan jaisten joan da eta bigarrenean igotzen, krisi ekonomiko berrira arte. Eskuineko grafikoaren datuak ezkerreko zatian islatzen dira nolabait. Logikoa denez, hartzaile nagusiak emaile handiek gehien laguntzen dituztenak dira. Japoniak Asiako herrialdeetarantz zuzendu ditu batez ere bere ahaleginak, eta Latinoamerikako herrialde gutxi batzuetarantz. Tradizionalki, AEBak Egiptori laguntza-kantitate handia eman dio (Ekialde Ertainean ordena ezartzen saiatzeko) eta azken urteotan beren administrazioek babestutako bake-prozesuen parte gisa eman du laguntza. Horrek, Palestinak, Afganistanek eta Bosnia-Herzegovinak zerrendan duten presentzia azaltzen du AEBek Israeli emandako laguntza beste edozein herrialderi emandako laguntza baino handiagoa da, baina ez da garapenerako laguntza izeneko kategorian sartzen. Herrialde txiroenatariko bat edo bi agertzen dira zerrendan, iturri desberdin askotako laguntza erakartzeko asmatu dutelako. Horien artean Mozambique, Tanzania eta Bangladesh daude. Hala ere, ez dago jasotako laguntza eta pobrezia-mailaren arteko inolako korrelaziorik.

Azkenaldian, Txina herrialde garatuen laguntzaren jasotzaile nagusienatariko bat bihurtu da. Kasu honetan, arrazoi nagusia -fluxu asko menderatzen dituela dela segurtasun osoz esan daiteke: herrialde-emaile eta hartzaileen arteko erlazio ekonomiko trinkoagoen bidea irekitzea. Txina hazkunde azkarra eta munduko bigarren nazio-produktua erakusten duen herrialdea da. Honela, laguntza mota batzuk erlazio komertzial onuragarriagoen katalizatzaile bezala ikusten dituzte zenbait gobernu.

► ELGE 2004

102. Iparretik Hegorako laguntza biztanleko



- Hiru diagrama hauetako azkenekoak biztanleko laguntza dolarretan, emaileen kasuan, eta 2002an pertsonako 50\$ baino gehiagoko laguntza jaso zuten hartzaileak erakusten ditu.

- Biztanleko laguntza dolarretan adierazitako herrialde-emaileen ordena eta nazio-errenta ehunekotan adierazitakoena oso antzekoak dira. Lau herrialde berberak (gehi Luxenburgo) eskuzabalenak dira. Zentzu horretan, AEB eta Hego Europako herrialde batzuk dira eskuzabaltasun txikiena erakusten dutenak.

Orokorrean, oso populazio txikiko herrialdeek biztanleko laguntza gehiago jasotzen dutela erakusten du neurri honek. Horren arrazoia ia nahitaez laguntza-paketeek gutxieneko tamaina izaten dutela da. Tamaina hori oso handia izan daiteke uharte txiki baten populazioarekin alderatuz. Zerrenda honetan agertzen diren oso hartzaile gutxi agertzen dira aurreko grafikoan: bestela esanda, guztizko laguntza kantitate handiena jasotzen duten herrialdeek biztanleko laguntza oso handia ez jasotzeko joera erakusten dute. Hori kontuan hartuz, bi zerrendetan agertzen diren bi herrialde aurkitzea harrizkoa da: Palestina eta Jugoslavia ohia (egun Serbia/Montenegro).


Herrialdeek jasotzen duten laguntza-kantitatea eta ordaintzen duten zorraren zerbitzuaren kantitatearen arteko erlazio estua ez dago. Baina guztizko laguntza-kantitatea garapen bideko herrialdeek ordaindutako zorraren zerbitzua baino askoz txikiagoa dela kontuan hartu beharko litzateke (>>114). Praktikan, erdiko herrialdearentzat laguntzak ez du zorraren zerbitzua ere ordaintzen.

Are gehiago, gaur egun laguntza ofiziala Hegoaldeko langile etorkinek beren familiei bidaltzen dizkieten diru-bidalketak baino askoz txikiagoa da (>>114).

► ELGE 2004

VII. Ingurumena

103. Noiz arte iraun dezakete berriztagarriak ez diren baliabideek?




- Grafikoak aztertutako baliabide naturalen erreserba ezagunek iraungo luketen denbora neurtzen du, baldin eta mundu osoak AEBetako (barraren ezker zatia) eta Txinako (barraren eskuin zatia) egungo per capita tasaren mailan kontsumituko balu. Barra bakoitzari atxikitako lerro bertikalak munduko egungo batez besteko kontsumo-mailak mantenduz erreserbek iraungo duten denbora erakusten du.

- Desberdintasunek lotura handia dute giza ekonomi jarduera eta bizitza bera iraunkorrak izatearen auziarekin. Ekologiaren ikuspegitik garatutako bizimodua jasangarria ez dela baieztatzen da, izan ere, honek berriztagarriak ez diren baliabideak gainustiatu eta kutsadura-mota ugari sortzen ditu. Gaur egun, gutxien garatutako herrialdeak garatuekiko gehiago hurbilduko balira, iraunkortasunaren mugetara lehenago iritsiko ginatke. Munduak bere osotasunean ezingo luke iraun baldin eta biztanle guztiek egun bertako aberatsenen batez besteko bizi-maila balute. Iritzi horren arabera, gizakiok Lurraren gainean ezartzen dugun zama desberdina da: garatutako herrialdeetako biztanleen bizitza kaltegarriagoa da material gehiago erabiltzen eta kutsadura handiagoa sortzen baitute. Diagrama honek oso modu soilean erakusten du argudio horren lehen zatia. Aurkeztutako berriztagarriak ez diren zortzi materialetatik ezagutzen diren erreserbak emanik, iraungo duten denbora bere per capita kontsumoaren mailaren arabera da. Mundu osoko egungo per capita kontsumoaren batez besteko mailarekin, material horiek lerro bertikalak adierazten duen urtera arte iraungo lukete. Barrek AEBetako kontsumo-maila orokortzekotan material garrantzitsu batzuk berehala agortuko liriatekeela erakusten dute; aldiz txinatarren kontsumo-mailarekin gehiago iraungo lukete. Alderdi honetan eta beste batzuetan ere AEBetako garapen eredu munduarentzat eskuraezina bada, baliabideak gutxiago irensten dituzten beste eredu batzuk aurkitu beharko dira. Ziurrenez ondorio bera baliagarria litzateke Europako ereduarentzat.

► MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004

104. Energiaren erabilera eta kutsadura-mailak




- Bi diagramek, hainbat herrialde eta herrialde-talde adierazgarriren per capita energi erabilpenaren (ezkerra) eta per capita karbono dioxidoaren igorpenen (eskuina) urteko batez besteko mailak erakusten dituzte.

- Garapen ekonomiko modernoaren aurkako ekologiaren ikuspegitik egiten den bigarren kritika isuri kutsakor arriskutsu gehiegi sortzen dituela da. Horietako askok tokiko eragin kaltegarriak dituzte, baina beste batzuek bere eragina era zabalagoan hedatzen dute. Kezkarik handiena karbono dioxidoaren igorpenak eragiten du. Klimatologiaren alorreko aditu anitzek lurreko atmosferako CO₂ kontzentrazioaren errua horri leporatzen diote, hein berean berotze globalaren kausa izanik. Horren ondorioak honakoak izan litezke: itsasoaren mailaren igoera, klima-egoera zorrotzagoak eta, beraz, elikagaiak ekoizteko aukeretan eta giza bizitzaren beste arlo batzuetan ere eragin kaltegarriak. Bestela esanda, azken 200 urteko garapen-arauaren jarraipena eta hedapena bidera ezina den argudioa indartzen du horrek guztiak. Garapen ekonomiko modernoak bere burua ukatzen du arlo batzuetan, izan ere bere jarraikortasunaren oinarria suntsitzen du. Bideragarritasunean oinarritutako kritika hau, garapen konbentzionalari egiten zaion desiragarritasunaren inguruko beste kritika bat osatzera dator. Eta nazioen zein pertsonen inguruko desberdintasuna bi eztabaida horien erdigunean dago.

Diagrama hauek karbono dioxidoaren gehiegizko igorpenaren arazoari egindako ekarpen-mailak izugarri desberdinak direla erakusten dute. Maila desberdintasun hori jatorri fosileko energiaren erabilpenaren gorakadari bereziki lotuta dago. Beraz, energiaren erabilpen-maila erlatiboak eta nazioarteko CO₂aren igorpenen aldeak hertsiki erlaziozaturik daude; eta bi elementu horiek errenta-mailaren diferentzietan oso lotura handia dute, noski. (<<1, >>105)

► MUNDUKO BANKUA 2003b

105. Diferentziak garraioan




- Hiru diagramek garraioarekin zerikusia duten nazioarteko diferentzien inguruko alderdiak erakusten dituzte: autoen kopuru erlatiboa (ezkerra), pertsonako bidaiatutako batez besteko distantzia (erdia) eta erabiltzen duten garraioa (eskuina).

- Energiaren erabilpenaren eta CO₂aren igorpenen igoeren kausa nagusienetakoa garraioa da. Grafiko hauetako 10 herrialdeek beren errenta-maila anitzekin erlazio horren hainbat alderdi irudikatzen dituzte. Herrialde aberatsenetako biztanleek txiroenetakoez baino askoz ere gehiago bidaiatzeko joera dute (beren lanetatik eta aisia-tokietatik urrunago bizitzearen zein etxetik urrun oporraldi gehiago igarotzearen ondorioz). Halaber, garraioaren erabilpen erlatiboan maila ekonomiko ezberdineko herrialdeen artean diferentzia sistematikoa dagoela dirudi. Hemen ikusten ez dena honakoa da: herrialde txiroenetako biztanleak aberatsenetakoez erkatuz, oinez eta bizikletaz askoz gehiago bidaiatu ohi dute. Eskuineko diagramak erakusten ez duena hau da: motoreko garraioa dagokienez, masako garraio publikoetan (autobusak, trenak eta taxiak) bidaiatzeko aukera herrialde txiroenetako pertsonen askoz gehiago erabiltzen dute, eta herrialde aberatsenetakoez autoaren aukera (pertsonako energia gehiago erabiltzen eta gehiago kutsatzen duena) askoz gehiago erabiltzen dute. Zenbait herrialde aberatsen eta txiroenen arteko aireko bidaiaren garrantzi erlatiboa antzekoa da, izan ere errenta-diferentziak ez ezik herrialdeen tamainarenak eta eskuragarritasunarenak ere islatzen ditu hauek. Auzi horietan sarri gertatu ohi denez, AEBetako muturreko adibidea da: bertako biztanleek urtean 20.000 kilometroko bidaia egiten dute batez beste, horietako ia %80 kotxez. AEBetako pertsonako auto-proporzioa mundu osora hedatuko balitz, gaur egun munduan diren 600 miloi autoren ordez, 3.100 miloi kotxe egongo lirateke.

► WORLD BUSINESS COUNCIL FOR SUSTAINABLE DEVELOPMENT 2001

106. Uraren eskasia



- Mapak giza erabilpenerako erauzitako ur gezaren kopurua erakusten du iturri guztietatik eskuragarria den kopuruaren ehunekotan adierazita.




- Lurraren %70 urez estalia dagoen arren, nahiko arrunta da mundua ur-krisi zorrotz baten aurrean dagoela entzutea. Arazoa ur gaziak, gatzgabetzearen teknika garestia salbu, giza kontsumorako inolako erabilgarritasunik ez duela da, zehazki edateko edo ureztatzeko ur gisa. Soilik ur guztiaren %2,5 ez da gazia eta horren zati handia poloetan izoztuta dago. Munduko uraren %1 hamarrena baino gutxiago da giza erabilpenerako eskuragarri dagoena. Ur gezaren erabilpen handiena nekazaritzako ureztatzeari dagokio alde handiz, uztak gehitzeko ahaleginetan, sarritan ez oso modu arrazionalen. Horrez gain, industri zein etxe-erabilpenerako uraren eskaria gehituz doa. Ura zein osasungarritasun-baldintza egokiak eskuragarri izatea bizitza osasuntsuaren oinarritzko osagai gisa hartzen da eta Milurtekoaren Garapen-Helburuak bezalako plangintzetan nabarmen aipatzen dira. Nazio Batuen kalkuluen arabera, bost pertsonatik batek ez du ur edagarria eskuratzeko aukerarik, batez ere landa-eremuetan, eta are kopuru handiagoak ez du osasungarritasun-baldintza egokiak eskuratzeko modurik. Ikerlari batzuek zenbaki horiek gabeziaren azpiestimazioetan oinarrituta daudela ohartarazten dute, eta landa-eremuetako arazoa hirigune txiroetakoa bezain larria dela.

Uraren beharra orokorra den bitartean, baliabidearen eskuragarritasuna oso desberdina da, mapa honetan argi geratzen den bezala. Ur-arazoak daude ur geza ugaria den lurraldeetan ere. Ondorioz, hauexek gogorragoak dira hornikuntza bera mugatua denean. Munduko oso eremu zabala, Ipar Afrikatik Hego Ekialdeko Asiara hedatzen dena, uraren eskuragarritasunaren mugak ahitzen ari da. Eta zonalde hau ur-behar asko asebeteko gabekoa da gainera (<<67). Behar horiek ur gutxiagorekin asebetetzeko bideak aurkitzeko premia dago, nekazaritzako teknologiaren hobekuntzaren bidez eta uretan oinarritzen ez diren osasun-era egokien bidez. Hala ere, ur eskasia sortzea gerta liteke, era horretan munduko harreman ekonomiko eta politikoetako ezegonkortasun-iturri gehigarria bihurtuz.

► MUNDUKO BALIABIDEEN INSTITUTUA 2004

107. Giza Garapen Jasangarriaren Indize bat

Giza Garapenaren Indizea (GGI), 1998



Giza Garapen Jasangarriaren Sarriko Indizea (GGJSI)

- Goiko mapak GGIarekin bat datorren munduko egoera adierazten du berriz ere. Beheko irudia Giza Garapen Jasangarriaren indize erraz batean oinarritzen da (honek egilearen aituzineko lantokiaren izena daramalarik). Bi aldagai baino ez ditu: bizi-itxaropena jaiotzean, giza garapena adierazteko aldagai positiboa dena, eta biztanleko karbono dioxidoaren igorpenak, ingurumenaren kutsadura adierazteko aldagai negatiboa dena. Herrialde bakoitzarentzako formulak GGIaren metodologia jarraitzen du. GGIaren kasuan bezala, GGJSI 0 eta 1 artean koka daiteke.

- Nazioarteko erakundeek ongizate ekonomikoa eta garapenaren neurketa errenta diferentzietan soilik onarritzetik haratago doaz egun. GGI bezalako bizi-kalitatearen eta giza ahalmenaren indizeak eraiki dituzte. Baina orain artean bederen ez dute ingurumena eta iraunkortasuna kontuan hartzeko indizerik egin. Hemen azaltzen den emaitzak agian honen zergatia adieraz lezake.


Bizi-kalitatea kontuan hartzen duten neurketek, errenta mailan oinarritzen diren kalkuluekin alderatuz, emaitza desberdinak lortzen dituzte. Baina ordenak antzekoa izaten jarraitzen du eta salbuespenak urriak dira. Baina, etxeko indize soil honetan egiten dugun bezala, ingurumenaren kutsaduraren kopurua adierazten duen aldagai negatiboa gehitzen bada, dena eraldatzen da. Herrialde garatuenak, irizpide horren arabera, aurreko neurketen arabera posizio ertainak erakusten zituzten herrialdeak dira. Betidanik gutxien garatutako herrialdeetat hartuak izan direnak aldiz (bizi-itxaropen oso baxua dutelako) edo gehien garatutako gisa kontsideratu direnak (karbono dioxidoaren igorpenen oso maila altua dutelako) gutxien garatutakoak lirateke. Gehien garatutako estatuak Costa Rica, Sri Lanka eta Albania dira. Eta guztien artean gutxien garatutakoak direnen taldean bai Sierra Leona bai AEB agertzen dira.

► PNUD 1999, MUNDUKO BANKUA 2000


VIII. Errefuxiatuak eta migrazioa

108. Errefuxiatuen jatorria eta jomuga, 2002

Jatorrizko herrialdeak



Harrera-herrialdeak




- Goiko eta beheko barra-grafikoek 2001ean nazioarteko migratzaile behartuen jatorri eta helburu izandako herrialde nagusiak erakusten dituzte. 100.000 etorkin edo emigrante behartu baino gehiago dituzten herrialdeak dira grafikoan eta mapan adierazten direnak.

- 2001. urterako nazioarteko migratzaile behartuen kopurua 13 milioi ingurukoa zela kalkulatu zen: asilo-bilatzaileak eta goseagatik, gerragatik edo zapalkuntzagatik errefuxiatuak, denak hiritar bezala jatorrizkoa duten herrialdeko mugetatik urrun bizi direnak. Beraien herrialdearen mugen barnean migratzera behartutakoak edo erbestealditik itzulitakoak aldiz 5 milioi inguru izan ziren.

Migrazio behartuen patroian ikus dezakegun gertakizun aipagarriena emigrante behartuen gehiengoaren jatorria herrialde txiroetan dagoela da eta gainera, hauen gehiengoari herrialde txiroenak eskaintzen diotelarik babesba, hau da, orokorrean jatorrizko herrialdearen auzokide direnak. Hori horrela izanik, migrari hauek baliabiderik gabe alde egiteko eta muturreko pobrezian murgildutako babesleketan bizitzeko joera dute. Ondorioz, migrazio behartu horiek pobrezia eta gabeziak areagotzen dituzte. Nazioarteko laguntzaren bitartez migrariak beraien oinarrizko beharrak betetzen dituztenean ere, gehienetan ez dute harrera egin dien herrialdean behin betiko finkatzeko aukerarik. Beraien egoera, praktikan ia kondaira bihurtu den ideia bategatik baldintzatua dago, normalizatutako aberri batera itzuliko direnaren ideiatatik alegia. Baina errefuxiatutako milioika pertsonen kanpamenduetan hamarkadetan zehar bizi izanak suposaketa horren faltsukeria agerian uzten digu.

Emigratzera behartutako pertsonak erlatiboki txikia den herrialde multzo batekoak dira, harrera-herrialdeen kopurua aldiz, grafikoetan ikus dezakegun bezala, askoz ere handiagoa da. 2001ean Afganistan oraindik errefuxiatuen jatorri-herrialderik garrantzitsuena zen eta horren isla Iran eta Pakistan ziren, aurrekoaren auzokideak izanik, harrera-herrialderik garrantzitsuenak zirelarik. Europar Batasunak bere populazioaren arabera Iranek hartutako bezain beste errefuxiatu hartuko balitu, errefuxiatu horiek 11 milioi izango lirake! Espainia kontuan hartuta, kopurua 800.000 izango litzateke.

109. Migrazio behartuaren toki nagusiak, 2002




- Mapa honetan estatistika batean edo hirutan baino gehiagotan biztanleriaren %1 gainditzen duten herrialde guztiak erakusten dira. Hiru zutabeek herrialde horretatik alde egindako errefuxiatuen kopurua, bestelako lekuetatik herrialde horretara joandakoak eta herrialdearen barnealdean desplazatuakoen kopurua adierazten dute, dena biztanleriaren ehunekotan adierazita. Zifrak tauletan erakusten dira.

- Mapa honetan agertzen diren zenbait herrialde, gogo gehigoz edo gutxiagoz, atzerritarren kopuru handiei babes eskaintzen dietelako jarri dira (Norvegia, Suedia eta Alemania European; Ginea, Afrika Erdiko Errepublikak, Zambia, Tanzania eta Uganda Afrikan; Iran eta Pakistan Asian). Beste batzuk beren izaera sozialeko, politikoko zein etnikoko barne-gatazkek errefuxiatu kopuru handiak sortzeagatik agertzen dira (Afganistan, Irak, Somalia eta Bhutan). Beste batzuen kasuan, gatazka horiek herrialdearen mugen barnean migrazio behartu handia eragin dutelako daude (Ginea Bissau, Ruanda, Sri Lanka). Nabarmendutako herrialdeetako batzuk aipaturiko arrazoi bat baino gehiagorengatik agertzen dira: emigrazio behartua sortzeaz gain immigrazio behartuaren hartzailere badirelako. Hori gerta liteke auzokide diren bi herrialdetan barne-gatazkek egonik errefuxiatuak elkartrukatzen dituztelako (Liberia eta Sierra Leona edo Iran eta Irak esaterako) edota estatuek eta talde etnikoek bat egiten ez duten eskualde mailako gatazka baten partaide direlako, Palestinan gertatzen den bezala. Antzeko kasua izango litzateke errefuxiatuen zenbait populazio-taldek sortu dituzten gatazken, antzinako Jugoslaviako Errepublika Federala osatzen zuten herrialdeetan gertatutakoa adibidez.

Europar Batasunak hemen aurkezten diren hiru aldagaietan maila altuenak lortuko balitu, bere biztanleetatik 160 milioi beste lurralde batean errefuxiatuak izango lirateke, kanpoko herrialdeetako 100 milioi errefuxiatu izango litzuzke eta bere mugen barnean 120 milioi biztanle desplazatuta izango litzuzke.

► ACNUR 2003; PALESTINIAN REFUGEE RESEARCH NET 2003

110. Migrazioa Europako mendebalderantz




• Mapa honek mendebaldeko Europako biztanlerietan nazioz kanpokoek (ez dira zertan etorkinak izan behar) suposatzen duten ehunekoa eta Mediterraneoko herrialde auzokideetatik Europako herrialde horietara zuzendutako migrazioaren inguruko datuak adierazten dizkigu.

○ Emigrazioa eta desberdintasuna era askotan lotuta daude. Emigrazioa, neurri baten, desberdintasunaren aurrean sortutako erantzuna baino ez da. Emigrazioak desberdintasuna leun dezake emigratzen dutenen helburuak betetzen badira, baina okertu ere egin dezake helburu horiek lortzerik ez badute. Honela, gizataldeen bai materialki zein kulturalki bizitzeko moduen arteko alde garrantzitsuak adierazteaz gain, emigrazioak herrialdeen artean dauden eskubide zibil eta politikoen arteko ezberdintasunak ere adierazten dizkigu. Garatutako herrialdeetako indar politiko erreakzionarioek etorkinen aurkako aurreiritzien erabilpena eta sustapena beraien estrategia politikoaren ardatz bihurtu dituzte. Honako grafiko hau gaur egungo munduan immigrazioak jokatzen duen paperaren inguruan oinarritzko informazioa eskaintzen duten bost grafikoetatik lehenengoa dugu.

Europan, biztanleria egoiliarrekiko atzerritar hiritarrek suposatzen duten ehunekoa populazio osoaren %1 eta %15 artean dago, batez bestekoa %8 ingurukoa izanik; mapak adierazten duen bezala, eskualde mailako kopuruak guztiz ezberdinak dira. Presentzia handiena duten nazionalitateak turkiarra, algeriarra, marokoarra eta tunisiarra dira (Erresuma Batuan salbu, bertan indiarrak, pakistandarrak eta bangladeshtarrak nagusitzen dira). Turkiar populazioaren %6 eta marokoarraren %4 etorkinak dira Europan. Kopuru horiek ez dituzte nazionalizatutako etorkinak barneratzen. Turkiar eta magrebtar etorkinen gehiengoa gizonezkoak dira; datu horrek euretako batzuek migrazioa denboraldi baterakoa baino ez dela uste dutela erakusten digu. Baina emakumezkoen kopurua gorantz doa, populazio migratzaileen pixkanakako finkapenaren berri emanez.

Barra-diagramek emigratzaile diren zenbait herrialderen ekonomientzat emigratutako biztanleen diru-bidalketak benetan garrantzitsuak direla erakusten dute.

111. Ozeano Bareaz gaidiko migrazioa



• Mapak AEBetan, Kanadan eta Australian dauden etorkinen ehunekoak erakusten ditu (etorkinak kasu honetan herrialde horietatik kanpo jaiotakoak izango lirateke), bai nazio-mailan (zirkulu zuriaren barneko zenbakia) zein estatu edo probintzien arabera. Geziek, eta beraiekin batera agertzen diren datuek, Asiako 4 herrialdetako migrazio-fluxuen noranzkoa eta beraien tamainaren berri ematen digute. Barra-grafikoak migratutakoek egindako diru-bidalketen inguruko informazioa erasten du.


○ AEBetako, Kanadako eta Australianko immigrazio-legeetan izandako aldaketek Asiatik herrialde horietara immigratzeko aukerak zabaldu dituzte. Australian asiar jatorriko kolonoak ingeles hiztun diren herrialdekoak baino gehiago dira jada, eta AEBtan eta Kanadan asiar etorkinak kopuru osoaren proportzio aipagarria izatera heldu dira. AEBtara iritsitako asiar etorkinen gehiengoa emakumezkoak dira, beraz, orokorrean, familia-mailako behin betiko migrazioaren aurrean gaudela ondoriozta daiteke. Hala ere, Filipinetako datuaren barnean, neskame moduan lan egiteko emigratzen duten emakumeen kopurua garrantzitsua da benetan. AEBetan filipinar jatorria duten pertsonen kopurua, gutxi gorabehera, jatorri herrialdearen biztanleriaren %1,6aren baliokidetzat har daiteke. Koreako Errepublikaren kasuan, zenbateko hori ehuneko 1,1etik hurbil legoke. Koreako Errepublika bai kanporanzko zein barruranzko migrazio mugimendu aipagarriak dituzten herrialdeen adibide ezin hobea da. Txinako Herri Errepublikako, Taiwaneko eta Hong Kongeko etorkinek Ipar Amerikan garrantzizko komunitateak osatu dituzte, Kalifornian eta “Britainiar Columbian” batez ere.

Etorkinek Australian eta Kanadan suposatzen duten populazioaren ehunekoa AEBetan baino handiagoa da. Etorkinen zenbatekoen eskualdekako parekotasuna ere handiagoa da Australian eta Kanadan. AEBetan etorkinen kontzentrazio altuak daude, kostaldeetako eta mugetako estatuetan batez ere.

► ELGE-SOPEMI 2003; STATISTICS CANADA 2003; ABS 2003; US CENSUS BUREAU 2003g

112. Migrazioa Amerikan

AEB: Hispanoak konderriko biztanleriaren %tan (2000):



Mundu desorekatu honen 100 irudi 140


- Mapak AEBko populazioan “hispanoen” konderriko dentsitatea, etorkinen gehiengoak jatorri dituen Mexikoko estatuak eta Ertamerikako zenbait herrialdetan sortutako emigrazioaren tamaina erlatiboari buruzko datuak erakusten ditu. Barra-diagramak emigranteen diru-bidalketen garrantzia erakusten du.

- Legezko etorkinen erdia inguru (horietatik %55-60 emakumezkoak) eta legez kanpokoan gehiengoak (gizonezkoak batez ere) Hego zein Ertamerikako espainiar hiztun diren herrialdeetakoak dira, Mexikokoak gehien bat. AEBtako biztanleria “hispanoa” (kopuru osoaren %13) AEBak eta Mexiko banatzen dituen muga mendeetan zehar gurutzatu duen mugimenduaren ondorioa baino ez da, azken hiru hamarkadetan bizkortu egin dena. Mexikon jaiotako estatubatuar biztanleak beren jatorrizko herrialdearen biztanleriaren %7 baino gehiago dira. Mapak muga horren porositatea erakusten digu, munduko eremu aberatsen eta txiroen artean daudenetarik argiena eta hein baten garrantzitsuena dena.


Etorkin horiek AEBtan lan egiteko eta beren familiei dirua bidaltzeko duten ahalmena jatorrizko herrialdeetako ekonomiaren biziraupenerako ezinbesteko faktore bihurtu da. Mexikoko estatuak iruditan duten itzalak beraien biztanleriak egindako biztanleko diru-bidalketen garrantzia erakusten du; barra-grafikoak aldiz, etorkinen jatorri diren beste herrialdeetan bidalketa horiek duten garrantzia azaltzen du. Diru-bidalketak El Salvadorren kasuan, herrialde honek egindako esportazioen %49aren parekoak izan ziren eta Nikaraguaren kasuan %36ra iristen dira. Diru-bidalketarik ezean ekonomia horiek deuseztaturik egongo lirateke. AEBetako zenbait indar politiko kontrol zorrotzagoak ezartzeko etengabeko presioa egiten ari dira eta, ironikoa dirudien arren, Berlingo harresia erori zenetik AEB-Mexiko mugan zehar harresi fisiko gehiago eraiki dira. Dena den, migrazio-fluxuan eragin handiegirik ez dute. Immigrazioa murrizteko AEBek onartutako azken neurrietako gehienek ondorio zitalak dituzte, etorkizunean izan daitezken arau zurrunagoen eragina ekiditeko emigrazioa handitu egiten baita eta atzerritar egoiliarrek egindako hiritartasun eskariak ere ugartitu egiten baitira.

► ELGE-SOPEMI 2003; US CENSUS BUREAU 2003f; MUNDUKO BANKUA 2003b; MEXIKOKO BANKUA 2004

113. Etorkinak AEBetan



AEB-Mexiko mugaren 60 urte



- Goiko diagramak hamarkadaz hamarkada atzerrian jaiotako biztanleria estatubatuarraren jatorri kontinentalak erakusten du, 1850etik 2000ra (1930 eta 1960 urteen bitarteko hutsunea alderagarriak diren zenbatekoak ez egotearen ondorio da), eta 2002ko legezko etorkinen jatorri-eskualdea. Beheko diagramak, aldiz, AEB-Mexiko mugan zehar izandako legezko eta legez kanpoko emigrazioari buruzko informazioa ematen du. Poliziaren orduak mugan enplegatutako polizien kopuruaren datua erabiliz lortu da.


- 1965. urtera arte AEBetako immigrazio-politika nazio-kuotaren kontzeptuan oinarritzen zen. Kuota hori AEBetan zegoen jatorri nazionalako biztanleriaren ehunekoen arabera neurtzen zen, afroestatubatuarrak kontuan hartu gabe. Lege arrazista hau alboratua izan zen 60ko hamarkadan (hamarkada honetako eskubide zibilen aldeko mugimenduei esker), berau eskualdekako murrizpenik gabeko kuota orokor batengatik ordezkatu zelarik. Horren emaitza, goiko diagramak argi erakusten digun bezala, AEBetara zuzendutako immigrazioaren izaeraren erabateko eraldaketa izan da. Lehen gehienbat Europako herrialde garatuetatik baldin bazetorren, orain, osorik Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako garapen bideko herrialdeetatik dator.

Mexikoko immigrazioa da handiena eta, 2001eko irailaren 11ra arte, estatubatuar immigrazioaren atalik gatazkatsuen ere bai. Mugetako poliziarri zuzendutako baliabideek gorabehera handiak izan dituzte azken 50 urteotan (ikus beheko diagrama), baina azkenaldian esponentzialki igo dira. Muga legez kanpo gurutzatzen duten etorkinen atxiloketetan izandako gorakada orokorra baliteke legez kanpoko migrazio hazkundearen erakusgarri izatea; nahiz eta mugako patruilak handitzearen froga soilak izan. Legezko etorkinen sarrera handiegia ez den arren, aldizkako amnistiek (1986ko Immigrazioaren Kontrol eta Erreformaren Legea kasu, ICRA) legez kanpoko etorkinak inoiz legezko egoiliar bihurtuko direnaren sineskera izatera animatu dituzte. Ondasunentzat eta kapitalentzat guztiz irekita dagoen muga pertsonentzat behin betiko ixtea zaila da benetan.


► US BUREAU OF THE CENSUS 2003e; MARTIN 2003; ESCHBACH et al. 2001; US DEPARTMENT OF HOMELAND SECURITY 2003

114. Diru-bidalketak: laguntza baino garrantzitsuagoa

Langile migratzaileen diru-bidalketak, 2001



Diru-bidalketak bestelako fluxuekiko, 1970-2002



- Goiko diagramak etorkinek 2001ean egindako diru-bidalketen kopuru osoa erakusten du, bertan adierazitako herrialdeetara. Beheko grafikoak aitortutako diru-bidalketak bestelako finantza-fluxuekin alderatzen ditu, 1970 eta 2002 arterako.


- Oro har, herrialde aberatsen eta txiroen artean dagoen haustura ixteko hiru bide daudela esan daiteke: nazio garapen-mailen hurbilketa, laguntza ekonomikoa eta emigranteen diru-bidalketak. Zenbait herrialdeentzako eta familientzako gutxienez, diru-bidalketek jadanik birbanaketa mekanismo garrantzitsua osatzen dutela erakusten dute hemen laburbildutako datuek. Gutxienez, garapen bideko herrialdeetako hiritarrek beren jatorrizko herrialdeetara egiten dituzten banakako ordainketa horiek baliabideen transferentzia handiagoa suposatzen dute Estatuek, GKEek eta herrialde aberatsetako nazioarteko erakundeek egindakoa baino; hori nazioarteko eztabaidetan ia inoiz onartzen ez den arren. Gainera, datu ofizialetan diru-bidalketak gutxietsita daude (batzuk klandestinoak eta beste batzuk espeziatan egiten direlako), laguntzaren zenbatekoak puzteko joera dagoen bitartean, “atxikitako” dibisak eta ordainezinezko zorren barkamena eta antzeko elementuen barnerapena dela eta (<<92-97). Batzuetan diru-bidalketek garapenari laguntza handirik ematen ez diotela esaten da, emigranteen familietara zuzenduta egonik kontsumorako erabiltzen direlako. Egia esan, ziur asko laguntzaren gehiengoa baino hobeto gastatuko dira, horren zati handi batek ustelkeria eta burokrazia elikatzen baititu. Diru-bidalketen proportzio handi bat hezkuntzan gastatzen direnaren frogak egon badaude.

Diru-bidalketek kanpo zorraren interesak ordaintzen dituzten dibisen zati bat eskaintzen dute eta, horregatik, garapen bideko herrialdeetako gobernuek denboraldi baterako emigrazioa bultzatu dute eta emigranteek euren atzerriko sarreraren ahalik eta kopururik handiena aberriratzera behartzeko neurriak hartu dituzte.

► MUNDUKO BANKUA 2003a; MUNDUKO BANKUA 2003b

IX. Errepresioa eta diskriminazioa

115. Herrialderik militarizatuena




● Barra-diagramak indar armatuak eta langile paramilitar ofiziala lan-indarraren %1,5 edo gehiago diren herrialde guztiak erakusten ditu. Mapan, herrialde horiek itzalarekin agertzen dira beren kontzentrazio geografikoa nabarmentzeko. Mapan, AEB, Brasil, India eta Txina bezalako lau herrialde garrantzitsuen datu baliokidea erakusten da, beren artean alderatu ahal izateko.

○ Herrialdeen zerrenda honek irakurketa esanguratsua du, oso harrigarria ez den arren. Munduko toki gutxi batzuen tentsio politikoak giza jardueraren egiturara hedatzen direla erakusten du. Lehenik eta behin, ohituraz –beti ere eurozentrismoan oinarrituta- Ekialde Ertaina izenez ezagutzen den eremua dago: ekialdeko Mediterranea eta Pertsiar/Arabiar golkoak. Gehien militarizatutako herrialdeen zerrendan eskualde horretako ia herrialde guztiak agertzen dira. Gauza bera gertatzen da ondoko herrialdeekin: bi Koreak, Balkanetako herrialdeak, Laos, Mongolia, Angola, Uruguai eta Europako mendebaldeko bi herrialde, Frantzia eta Italia.

Armaden eta desberdintasunen arteko harremana konplexua den arren, maila ugarian egon badago. Armadek funtsezko papera betetzen dute nazioarteko desberdintasunen kontrolean. Barne-desberdintasunak kontrolatzeko ere garrantzitsuak izan daitezke, batik bat armadak botere politiko zuzena eskura duenean. Armadak berak desberdintasunaren sortzaileak ere badira, izan ere, ia beti era guztietako baliabide materialak modu pribilegiatuan eskura dituzte. Elikagaiak urriak direnean, adibidez, soldaduek eskura izan ohi dituzte. Gobernuek beren botere politikoa mantentzeko beharrezkoa da bitarteko hori, baina pizgarria ere soldadu gehiago biltzeko: armadan kideak dituzten familiek beste batzuek baino errazago lortzen dute bizirik irautea.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

116. Armen nazioarteko merkataritza, 1998–2002




● Bi barra-diagramek 1998–2002 urte artean armen salerosketan parte hartu zuten herrialde nagusiak erakusten dituzte. Kopuruak bost urte horietako gutzitzkoak dira 1990eko prezioetan emanak. Diagrametan gutxienez mila milioi dolarreko inportazioak edo esportazioak izan zituzten herrialdeak agertzen dira. Mapek soilik herrialde horiek aurkezten dituzte.

○ Munduan gehien merkaturatzen diren hiru ondasun motak, petrolio eta bere eratorriak, mendekotasuna sortzen duten drogak eta armak direla uste da. Aurreko orrietan aipatutako merkataritzako estatistiketan ez da merkataritza horren zatirik handiena agertzen. Mapa honen lehen ezaugarri harrigarria armen nazioarteko merkataritzan AEBek duten erabateko nagusitasuna da. Baina, AEBetako armen salmentak gainbehera egin du bost urte horietan, Errusiako salmentek gora egin duten bitartean. Datu hauen bigarren ezaugarri nabarmena zortzi arma-saltzaile nagusietatik bost Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko kideak direla da, eta gainerako hiruetatik bat bertako kide izateko presio indartsuak egiten ari dela. Armen esportazioen jatorria ia definizioz garatutako eta industrializatutako herrialdeetan dago. Armada nazionalen erosketapolitikek modu zurrunean babesten dituzten industriak dira. Eta bere ekoizpenaren gaineratikoak eskuarki munduko eremu gatazkatsuenetako garapen bideko herrialdeetara esportatzen dituzte. Hori bistakoa da bi mapen arteko alderaketa egitean.

Besteren artean Txina, Italia, Espainia, Koreako Errepublika eta antzeko herri gutxi batzuk bi zerrendetan agertzen dira armen saltzaile eta erosle handi gisa. Horrek, nazio-esparruan babestutako arma-industrietan ere nolabaiteko espezializazioa egon badagoela adierazten du eta, beraz, gabeziak inportazioen bidez kitatzen direla. NATOko lankidetzak militarrek berrogeita hamar urte bete dituen arren –merkataritza libreko ideologiaren nagusigoa kontuan hartu gabe– oro har, herrialde garatuek inportatutako armekiko mendekotasuna nazio-ahultasunaren seinale gisa hartzen jarraitzen dute eta armen industriak oso babestuta egon ohi dira.

117. Heriotza-zigorra, 2000




- Mapak munduko herrialde guztietako heriotza-zigorraren egoera erakusten du, beti ere Amnistia Internazionalak definitutako kategorien arabera. Heriotza-zigorraren abolizioak <<praktikan>> indarrean jarraitzen duela adierazten du baina ez dela azken hamar urtetan erabili. AEBetan, abolizio-aldi labur baten ostean heriotza-zigorra 1976an Gorte Gorenak hartutako ebazpen baten ondorioz jarri zen indarrean berriro ere, eta geroztik bertako estatu gehienek berrezarri dute. AEBetako estatuak itzalarekin daude munduko mapari atxikitako irizpide berberak aplikatuz.

- Bere herritarrak hiltzeko legezko eskubidea bere gain hartzeko estatuak duen legimitatea filosofia politikoaren auzi eztabaidatsuenetakoa da. Eskubide zibilei dagokienez, herrialdeen arteko beste desberdintasun ugariaren artean honako hau aukeratzea erabaki da, herrialde baten maila ekonomikoaren eta horrelako gai esentzialesetan bere jarreraren arteko korrelazioa oso urria dela adierazten duelako. Erregimen faxisten porrotaren ondorengo giza eta eskubide zibilei buruzko eztabaidak herrialde batzuetan heriotza-zigorraren abolizioa ekarri zuen. Abolizioa Europar Batasuneko partaide izateko baldintzetako bat da. Exekuzioak ezeztatuak izan dira ere Australian, Kanadan, Latinoamerikako hainbat herrialdetan, Afrikako hegoaldean eta Asiako herrialde bakan batzuetan. Latinoamerikako gehiengoan eta Afrikako zein Asiako herrialde batzuetan egon badago, baina azkenaldian ez da erabilia izan. Herrialde garatuenean, AEBetan alegia, heriotza-zigorra indarrean dago eta gero eta gehiago aplikatzen da, XXI. mendearen hasieran politikari esanguratsu batzuek publikoki behin eta berriro zalantzan jarri zuten arren. AEBetako estatu-filosofiaren gako bat da eta hala eta guztiz ere, sarritan ideologikoki homogeneotzat hartzen diren demokrazia liberal aberatsen artean ideologi haustura sakona dagoela mahai gainean jartzen du.

► AMINISTIA INTERNAZIONALE 2003; DEATH PENALTY INFORMATION CENTER 2003

118. Desberdintasunak espetxeratze-tasetan



- Mapak 100.000 biztanleko espetxeratutako pertsonen (kondenatutakoak eta kondenatu gabeak) kopurua erakusten du.

- Herrialde batek bere herritarrak askatasunez desjabetzeko beharra zein punturaino sentitzen duen egiaztatzea funtsezko elementua da estatu horren zein bere muge barruan dagoen gizartearen eta bien arteko erlazioaren izaeraren definizioan. Bere sistema politikoaren askatasunaren goraipamen gehien egiten dituzten lider politikoak dituen herrialdea bere herritarren askatasun fisikoa gehien murrizten duten bi herrialdeetako bat da. Bere lehiakide bakarra, gerra hotzeko 50 urtetan bere arerioa izan zena da. Espetxeratutako pertsonen gorakadak ez dira, modu irekian bederen, preso politikoen kopuruan emandako gorakadak, delitu arruntengatik kondenatutako kopuruan izandakoak baizik. Zehatz, azken hamarkadetan espetxeratzea handitu den <<mendebaldeko>> herrialde askotan gorakada horrek oso lotura estua erakutsi du drogekin zerikusia duten delituekin.


Zergatik jotzen dute berriro AEBetako eta Errusiako estatuak gero eta gehiago kartzela-zigorra erabiltzera gainerako herrialdeen gainetik? Zergatik du, erabat gatazkatsutzat hartu ohi den India bezalako gizarteak AEBetako zein Errusiako espetxeratutako populazio-proporzioaren berrogeita hamarren bat baino ez? Aldeak kriminaltasun-indizeari eta atxiloketa-metodo zein polizien lanari ala errepresio-mailari atxiki behar zaizkio? Gutxi ezagutzen diren datuen izugarrikeriak galdera horiei berebiziko garrantzia ematen die.

Nazioarteko batez besteko mailarekiko AEBetako espetxeratze-mailak estatu guztietan oso garaiak diren arren, horien arteko alderaketa oso deigarria da. Maila apalagoa da Erdi Mendebaleko zein Ipar Mendebaleko estatuen artean; baina bereziki garaia da (100.000 biztanleko 1000tik gorakoa) Texas eta Louisiana estatuetan.


► INTERNATIONAL CENTER FOR PRISON STUDIES 2003; THE SENTENCING PROJECT 2002; US DEPARTMENT OF JUSTICE 2003

119. Presoak AEBetan, 2002

Ameriketako Estatu Batuetan preso dagoen populazioaren osaera, 2002



Ameriketako Estatu Batuetan preso dagoen populazioa (biztanleriaren %, 2002)




- Goiko grafikoak AEBetan preso dagoen populazioaren banaketa erakusten du talde etnikoaren, egoera prozesalaren eta sexuaren arabera. Eta behekoak populazioaren ehunekotan emandako herritarren segmentu ezberdinen espetxeratze-indizeak erakusten ditu. Tartekatutako grafikoak talde etnikoaren araberrako gazteen kartzelaratzean dauden aldeak erakusten ditu.

- o 1999. urtearen amaieran AEBetako espetxe batetako ateak ireki ziren herrialdeko 2 milioigarren presoak barneratzeko. Baina AEBetan preso dagoen populazioa gizarte-lagin adierazgarria izatetik oso urrun geratzen da. Presoen %95 gizonezkoak dira. Ia herena indarkeriarekin egindako delituengatik daude espetxeratutak, antzeko zenbakia drogekin zerikusia duten delituengatik eta beste horrenbeste jabearen aurkako (lapurreta) delituengatik. Arlo horretan, AEBak ez daude beste herrialde batzuetatik oso urrun, baina beste batean, aldiz, aldeak handiak dira ia zalantzarik gabe. Presoen ia erdia afroestatubatuarrak dira, zein populazio osoaren %12 baino ez diren; eta %20 "hispanoak" dira, populazio osoaren ehuneko 13ra doi-doi iritsiz. Beste edozein herrialdek oro har txiroagoa den gutxiengo etniko bateko partaideak gehiengo den populazio etnikoa baino hamar bider proportzio handiagoan espetxeratuko balitu, sinesgaitza litzateke pentsatzea horren inguruan Washingtonek zerbait esango ez zuenik; agian zigor ekonomikoak ezarriko litzuzke giza eskubideak urratzeagatik.

Xehatutako maila bakoitzean AEBetako espetxeratze-kopuru garaiek duten esanguraz zerbait gehiago argitzen da. Espetxeratuen erregimen garairean eragin gehiena jasaten duen taldea gizonezko gazte afroestatubatuarrak dela ikus daiteke tartekatutako grafikoan. Talde horretako pertsonen ia herena espetxean edo baldintzapeko edo askatasun frogatzailea bezalako beste kontrol judizial batzuen mendean daude.

► THE SENTENCING PROJECT 2002; US DEPARTMENT OF JUSTICE 2003

120. Lesbianen eta gayen eskubideak, 2002



= diskriminazioaren aurkako legeko babesa
 # = heriotza-zigorra gayen arteko sexu-harremanentzat
 # = diskriminazioaren aurkako legeko babesa
 D = heriotza-zigorra gayen arteko sexu-harremanentzat

- Mapak homosexualitatearekiko legezko jokabidearen inguruko hainbat arlo irudikatzen ditu. Errepresio eta onarpen maila erreala legezko mekanismoetatik asko urrun daiteke.

- Giza eta eskubide zibilak talde ugarietara emandako tratua araberak ebalua litezke. Guztiak aztertzeke nahikoa tokirik ez dagoenez homosexualitateari emandako tratua hartu dugu, hein batean tolerantzia sozialaren arloko nazioarteko diferentzia askoren adibide gisa, baina halaber, batzuek desbideratutako jokabideetat hartzen duten jokabide sexuala, eta bereziki homosexualitatea, sarritan gizarte batek onartzeko <<zailtasun>> handienekoa duen giza eskubidea delako. Beraz, adibide adierazgarri baten aurrean gaude, maiz eskuinak jazarritakoa eta ezkerrek ahaztutakoa. Hemen sartzen bada ere liburu honen egilearengan duen eragin pertsonalagatik da.


Mapak hainbat arrazoigatik harritzen gaitu. Homosexualitatearen trataera juridikoan aniztasun izugarria ikus daiteke, horien muturrak alde batetik lehentasun sexualaren arrazoigatik dagoen diskriminazioaren aurkako babes juridikoa, eta heriotza-zigorra bestetik dira. Trataera juridikoa ez da halabeharrez giza trataeran islatzen. Brasilen, esaterako, ez dago legezko errepresiorik, (diskriminazioaren aurkako legea ere badago) baina gayen aurkako indarkeria-maila handia nagusitzen da.

Australian, estatuen arteko egoera juridikoa aldakorra da, orain gutxi arte AEBetan gertatzen zen bezala. AEBetako Gorte Gorenak 2003an sexu-harreman gayen aurkako estatu-lege guztiak Konstituzioaren aurkakoak zirela ebatzi zuen. Ikusteko dago estatu batzuek ebazpen hori gaindituko duten sexu-harreman gayen aurkako lege berriak onartuko dituzten. Erregimen juridiko errepresiboak erlijio era kontserbadoreak indartsuak diren tokietan daude. Baina erlijioak ez du dena erabakitzen. Hau, Eliza Katolikoak (Islam kontserbadoreak besteko homosexualitatearen aurkako jarrera erakusten duenak) tradizionalki kontrolpean dauden herrialdeetan gayen eta lesbianen aurkako legedia bertan behera utzi izanak argi uzten duenez.

► ILGA 2003; NGLTF 1999

X. Desberdintasuna eta historia

121. Errenta erlatiboen bilakaera, 1820–2001




• Diagraman erabiltzen diren per capita nazio-errenta errearen estimazioak erosteko ahalmenaren parekotasunarekin eraldatuak izan dira. Era horretan, herrialdeen artean eta datetan alderagarriak izan daitezke. Herrialdeen laginketa adierazgarriko datuak AEBetako datuaren multiplo bezala ematen dira eta azken hau leko balioan konstante mantentzen da.

○ Diagrama honetan jasotako zifrak, ziurrenik, inoiz izan diren mundu mailako per capita errenta-mailaren alderaketa historiko onenak dira. Zehatzak badira hainbat gertaera interesgarri, harrigarri zein ez horren harrigarri erakusten dituzte. 1850ean hasitako AEBen eta gainerako herrialde garatuen arteko dibergentzi prozesu luzeak jarraipena izan zuen iragan mendearan lehen erdian. Lehen Mundu Gerraren amaierarako, per capita errentari dagokionez AEB alde handiz herrialde aberatsena bilakatu zen. Bigarren Mundu Gerrak eragindako kostu izugarriek, Europan eta Japonian batik bat, 1950ean inoiz izandako abantailarik handiena eman zieten AEBei. Ordutik hona, mendebalde eta hego Europako herrialdeak AEBei hurbildu zatazkie, bere errenta-mailara iritsi ez diren arren. Japoniako konbergentzia azkena izan da, baita urrutien iritsi dena ere. Bitartean, historia luze horretan, zenbait herrialdek, esate baterako Argentinak, Venezuelak eta Errusiak, aldi baterako konbergentzia lortu zuten, gero berriz atzera egiteko. Azken 50 urteotan, Latinoamerikako herrialdeak beren artean gerturatu dira, baina AEBetatik aldentuz.

Ia epealdi oso horretan zehar, Asiako eta Afrikako herrialdeen errenta-maila erlatiboez behera egin zuten etenik gabe. XX. mendeko azken bi hamarkadetan, aldiz, Txinako per capita errenta AEBenari hurbiltzen hasi zitzaion, baita Indiakoa ere, oso mantso eta oso maila apaetik abiatu arren. Koreako Errepublikan askoz ere azkarrago hazi zen. Afrikako herrialde gehienek oraindik ez dute beheranzko joera erlatiboa eten.

► MADDISON 1997; MADDISON 2002; MUNDUKO BANKUA 2003b

122. Munduko errentaren epe luzerako polarizazioa, 1820–1998




- Diagrama honetan aurrekoan azaltzen ziren datuak beste era batetara ikus daitezke. Hemen herrialdeak mota edo eskualde geografikoaren arabera multzokatu dira eta alderaketarako estandarra munduko batez besteko errenta-maila da, beraz 1 bezala azaltzen dena. “Europar immigrazioko herrialdeak” AEBek, Kanadak, Australiak eta Zelanda Berriak osotzen dute. “Hego Europa”n kokatzen dugu Turkia. 1820 eta 1950 artean aukeratutako urteak erreferentzi puntuak dira, baina data horren ondoren datuak urterokoak dira. Ikus 1950ean ematen den denbora-eskalaren aldaketa itzela.

- Kapitalismo industrialak munduko ekonomia menderatzera iritsi den berrehun urte hauetan, errenta-mailari dagokionez herrialde aberatsen eta herrialde txiroen artean dagoen dibergentziarako joera are gehiago nabarmentzen du diagrama honek. Baina, eredu orokor honen barne zenbait dibergentzia eta konbergentzia partzial daude. Mendebaldeko Europak erlatiboki gora egin zuen 1973 ingurura arte eta geroztik erlatiboki behera egin du. Latinoamerikak 1950 urtera arte maila berdinean fluktuatu zuen eta 1980tik aurrera behera egin du. Hego Europak, 1950etik aurrera, 1820 eta 1950 artean herrialde aberatsenekiko zabaldutako tartearen zati bat itxi du. Asiak 1973 arte behera egin zuen eta orduan hasi zen tartea ixten; orain gutxi gorabehera 1820an zuen mailara itzuli da. Afrikak epe luzerako beheranzko joera erakusten jarraitzen du.

Datu hauen arabera, munduko eskualde aberatsenen eta txiroenen arteko ratioa 1820an 3-1 baino txikiagoa zen; orain aldiz 16-1era igo da. Ez dago zalantzarik, muturrak gehiago aldendu dira. Baina muturren artean, epe luzerako zein laburrerako konbergentzi eta dibergentzi prozesu partzialak egon izan dira eta egon badaude (ikus sarrera).

► MADDISON 2002

123. Aldaketak desberdintasunean, 1950–2001




- Bi diagramek biztanleriaren % 20 aberatsenaren eta % 20 txiroenaren errentaren arteko ratioaren bilakaera erakusten dute azaltzen diren herrialdeetan.

- Munduko desberdintasunaren maila orokorra ez da nazioen arteko desberdintasunaren arabera soilik zehazten, nazio barruko desberdintasunaren bilakaerak ere eragina du. Errentaren barne-banaketa nazionalaren inguruko datu historikoak, batez besteko per capita nazio-errentarenak baino urriagoak eta fidagarritasun gutxiagokoak dira. 1950 urtearen eta 90eko hamarkadaren amaiera arteko hainbat alditan azaltzen diren zifra alderagarriek erakusten dute diagrama horien ikuspegi konplexua.

Latinoamerikan desberdintasuna oso altua da eta herrialde batzuetan gorabehera handiak izan ditu. Epealdian zehar desberdintasunaren joera orokorra goranzkoa izan da. Asiako herrialde gehienetan desberdintasun maila txikiagoa da eta herrialde garrantzitsu batzuetan murriztu egin da datu hauen arabera. Baina gutxi batzuetan gora egin du: 1980tik aurrera Txinan eta 1960tik aurrera Thailandian batik bat. Azken herrialde honetan desberdintasunak Latinoamerikako mailara iritsi ziren 1990 inguruan. Eskura dauden estatistikek berriro behera egin duela iradokitzen dute, baina ikertzaile ugari zalantzan jarriko lukete. Herrialde garatuetan, nazioen eta garaiaren arabera, aldaketa nabarmena dago. Italian eta Japonian desberdintasuna murriztu egin dela dirudi. AEBetan ere desberdintasuna murriztu egin zen 1965era arte, eta harrezkero nabarmen egin du gora (<<17). Erresuma Batuak antzeko patroia erakusten du inflexio-puntua 1979an duela. Australian desberdintasunaren igoera nabarmena izan da 60ko hamarkadatik aurrera. Azkenik, beti desberdintasun-maila txikiena erakutsi duten herrialde komunista ohietan, kapitalismorako trantsizioa desberdintasunaren igoerari lotuta etorri da, sarritan aparteko zorrotzasunez.

► DEININGER eta SQUIRE 1996; MUNDUKO BANKUA 2003b

124. Lan-indarra, 1950–2001



Tx = Txina
 Af = Afrika
 As = Asia
 M = Mundua
 Br = Brasil
 LA = Latinoamerika
 HA = Hegoafrika
 Eu = Europa
 Er = Errusiar Federakundea
 IA = Ipar Amerika

• Diagrama mota hau (grafiko triangeluar edo hirukoitza) jada 4. grafikoan erabili da. Aurrekoan, puntu baten bidez duela gutxi herrialdeen produktzioa hiru sektoreen artean nola banatzen zen adierazten zen. Honetan, aldiz, hainbat datetako puntuak lotzen dituzten lerroak erakusten dira, herrialdeetan hiru sektoreen arteko banaketaren bilakaera erakutsi ahal izateko 1950 eta 1990 epealdirako (liburu hau idatzi zenean, ez zegoen zifra eguneratuagorik oraindik). Kasu guztietan, lerroaren goiko muturra 1950ekoa da eta behekoa 1990ekoa.


○ Garai batean, munduko leku guztiak grafiko honen goi erpinetik gertu zeuden, lan-indarraren gehiengo handia nekazaritzan baitzegoen. Kontsumoaren gero eta aniztasun handiagoak, gizarte-antolaketarekin eta teknologiaren aldaketekin batera, badu isla lanaren banaketa sektorial aldakorrean eta diagrama honetan marrazten den beherazko mugimenduan. Aldaketaren eredu antza beherazko kurba da, hasieran eskuinera, industriaren noranzkoan, desplazatzen dena eta ondoren ezkererantz, zerbitzuen noranzkoan. Gaur egun, herrialde garatuetan lan-indarraren ehuneko oso txikiak dihardu nekazaritzan eta garai batean gora egin zuen industriaren ehunekoa orain beherantz doa. Egundun, jendearen gehiengoak zerbitzu-sektorean lan egiten du (<<4, 5). Ekonomia horiek triangeluaren beheko ezker erpinertik zuzentzen dira (%100 zerbitzuetan), beste batzuk goi erpinetik gertu mantentzen diren bitartean. Horrek Iparreko eta Hegoko egitura ekonomikoen artean oraindik alde erabat handiak daudela esan nahi du. Zenbait herrialdek beren garapenean zehar industriari garrantzi handiagoa eman diote (herrialde komunistek batik bat 1950etik aurrera), baina ez dago eredu orokorraren salbuespenik.

Mundua orokorrean kontuan hartuta, 1950ean lan-indar aktiboaren %67 nekazaritzan zegoen, %15 industrian eta %18 zerbitzuetan. 1990ean zifra horiek 49, 20 eta 31 ziren hurrenez hurren.

► LNE 2003b

125. Aldaketak lan egindako orduetan, 1870–2000

Urteko lanorduek pertsonako



● Ezkerreko diagramako lerroek langile produktiboen batez besteko lanorduen kopurua erakusten dute hainbat herrialdeetan 1870 eta 1998 artean. Eskuineko diagrama beste iturri batean (Lanaren Nazioarteko Erakundea) oinarritzen da eta balizko informazio berbera ematen du, hainbat kontraesan dagoen arren.


○ Herrialdeen lanorduen artean dauden alde handiak oso gutxitan hartzen dira kontuan garapenerako nazioarteko adierazleak alderatzerako orduan, bizi-mailetan eragin sakona izan arren (<<7, 8).

1870ean langileek urtean 3000 orduz lan egitea ohikoa zen, oporrik gabeko 60 orduko astearen parekoa. Sindikatuek, eta langile mugimenduek orokorrean, kanpainak egin dituzte gizalegez orduak maila jasangarrietara murrizteko. Gaur egun, munduak Maiatzaren Lehena ospatzen du, AEBetan 8 orduko lanaldiaren alde borrokatzen zuen martiri talde bati omenaldia dela inork gutxik dakien arren. Diagramak, datu aski mugatuetan oinarritua, geroztik lanorduek gorabeherekin baina nabarmenki behera egin dutela erakusten du. Herrialde garatu gehienetako lanaldia 1.400 eta 1.600 ordu artean zebilen 90eko hamarkadan (<<7). Latinoamerikan, Japonian, AEBetan eta Espainian apur bat gorago dago Mendebaldeko Europako herrialde gehienekin alderatzen badugu.

Diagrama honetan harrigarriena honakoa da: garapen modernoko arrakastaren eredu bezala sarrien aipatzen diren bi herrialdeetan, 1950ean lanaldia nazioarteko espektroaren goialdean bazegoen ere, gainerako herrialdeen antzera murriztu beharrean, aitzitik, gora egin du era oso nabarmenean, Koreako Errepublikaren kasuan 1870eko Europako mailara gerturatuz. LNERen datuek aldiz, Korean ere murriztu dela iradokitzen dute, baina herrialde garatuetakozifren oso goitik dagoela onartzen du. Datu horiek zuzenak badira, Hego Koreako eta Taiwaneko hazkunde ekonomiko harrigarriari buruzko ikuspegi oso bestelakoa eskaintzen dute. Hazkunde horren funtsezko zati bat ez dela horrenbeste produktibitatearen mirarizko hazkundera oinarritzen iradokitzen dute, lanaren ordu kopuruaren eta intentsitatearen gorakada arruntean baizik.

► MADDISON 1997; MADDISON 2002; LNE 2003a

126. Alfabetatzearen hedapena, 1820–2001



- Lerroek 1850etik gaur arte helduen alfabetatzean dauden mailen bilakaera erakusten dute.

- Alfabetatzea, azken urteetan errenta-mailaren osagarri bezala gero eta gehiago erabiltzen den garapen mailaren diferentzietarako adierazlea da. Hezkuntzak bizi-mailan eragina du, kulturarako atea baita, baita garapen handiagoan ere, giza kapitala sortzen baitu.

Zifrek konbergentzia argia erakusten dute, herrialde batzuetan azkarra izanik. Ostera, errentak eta beste adierazle batzuek erakusten duten egoerarekiko oso bestelakoa da ($\ll 121-122$). Alfabetatzea Giza Garapenaren Indizean erabilitako adierazleetako batenez, indize horri dagokionez herrialdeen arteko konbergentziarako joera sortzen laguntzen du ($\gg 131$). Estatistikoki, konbergentzia hori saihestezina da, adierazleak muga naturala baitu %100ean. Era horretan, edozein aurrerakuntza, txikia izanik ere, konbergentzia bezala agertzen da.


Horrek benetako konbergentzia adierazten duenaren inguruan hainbat zalantza daude. Lehenik, alfabetatzea berez ez da neurri oso egokia; batetik, herrialdearen arabera era ezberdinean definitzen delako eta, bestetik, batzuetan baldintzak minimoak direlako. Bigarrenik, alfabetatzeak esanahi gutxi izan dezake baldin eta behin jasoz gero berau aprobetxatzeko aukera kontuan hartzen ez bada. Beste era batetara esanda, alfabetatzeak osagaiak behar ditu, horien artean hezkuntza jasotzeko aukera eta idazlanak zein idazteko bitartekoak eskura izatea. Hirugarrenik, alfabetatzearen inguruko hainbat kexek garapenaren irizpide batez ere europarra dela adierazten dute eta hezkuntza formala kultura deuseztatzeko modua izan daitekeela.

Ikuspuntu zinetik, esan daiteke, azken objektio hori egiten dutenak pertsona alfabetatuak izaten direla eta euren ez luketela euren alfabetizaziorik galdu nahiko. Eta gainerako objektioak, alfabetatzea helburua ez, baizik eta bitartekoa dela esatera mugatzen dira.

► MADDISON 1997; PNUD 2003b

127. Hezkuntzaren hedapena, 1820–2000

Hezkuntza-urteak pertsonako (haztatuak)




- Lerroek ikasketa-maila guztietan izandako hezkuntza-urteen batez besteko haztatuak adierazten dute pertsonako. Barneko diagrama aldagai berdina aztertzeko beste modu bat da: eskola bizitzarako esperantza-urteak ez dira helduak benetan eskolan egondako urte kopuru erreala; baizik eta jaiotzean edonork espero dezakeen eskola urte kopurua, une horretan dagoen herrialdeko eskolatzeko-patroiaren arabera.

- Hezkuntza urte kopuruak, Giza Garapenaren Indizearen parte denak ere, ez du alfabetatzearen aldagaiak bezala muga logikorik. Baina muga eraginkorra egon daiteke nahi duten guztiek unibertsitate hezkuntza lortzen dutenean. Zerrenda honen buruan dauden herrialdeek hobekuntzak erakusten dituzte oraindik muga horretatik oso urrun daudelako. Irizpide honen araberrako barietatea bizi-itxaropenaren edo alfabetatzearen kasuan baino zabalagoa da; hala ere, hau ez da errenta-mailen arteko aldea bezain zabala. Adierazle honetan konbergentzia nabarmena sortu da, herrialde txiroenetan izan ezik (Afrikan eta Hego Asian batik bat), hauek oso atzean jarraitzen baitute. Zehazki, hazkunde-tasa altuak izan dituzten Ekialdeko Asiako herrialdeak (Taiwan eta Koreako Errepublikak) herrialde garatuenen mailara iritsi dira aldagai honi dagokionez. Horrek, lanorduekin alderatuta ($\ll 125$), beren garapenean jendeak lan gehiago eginaraztea baino zerbait gehiago lortu dela iradokitzen du.

Txertatutako grafikoak eskola-bizitzarako etorkizuneko aukerak Koreako Errepublikan arras azkar egin duela gora eta egun AEBekoa ere gainditu duela erakusten du. Bi diagramak alderatzeak Brasilen hezkuntza-urteen gorakada azkarra eman dela iradokitzen du, txertatutako grafikoaren arabera; Latinoamerikako beste herrialde batzuk gainditu eta herrialde garatuen mailara arin gerturatzen ari da.

► MADDISON 1997; PNUD 2003a; MUNDUKO BANKUA 2003e

128. Igoerak eta jaitsierak bizi-itxaropenean, 1820–2002



● Lerroek jaiotze uneko bizi-itxaropenaren urteroko bilakaera erakusten dute biztanleria osoarentzat, 1820tik 1990era hamarkadaka, eta geroztik 2002ra arte. Herrialdeen lagin esanguratsuaren datuak eskaintzen dira.


○ Jaiotze uneko bizi-itxaropenak, Giza Garapenaren Indizea osatzen duen beste adierazleetako batek, berez muga biologikoa du. Kosta egiten da imajinatzea etorkizun hurbilean 85 urtetik gora asko igo daitekeenik. 80 urtera iritsi da Japonian eta maila horretara iristen ari da Mendebaldeko Europan. Hortaz, adierazleak konbergentzia sendoaren itxura eskaintzea itxarotekoa da. Benetan honakoa nabari daiteke:

- Bizi-itxaropenaren gorakada nabaria XX. mendean zehar herrialde garatu guztietan, bereziki gaixotasun infekzioso hilgarrien murrizketagatik, eta haurren eta amen heriotza-tasei lotutako beste arrazoi batzuegatik. Osasun-ezagutza orokor handiagoaz, aurkikuntza medikoek eta garbitasun publikoaren eta osasun-zerbitzuen hobekuntzaren arteko emaitza konbinatua da (<<25, 38–39);
- garapen bideko herrialde askoren konbergentzia sendoa 1950etik aurrera, eurak ere hobekuntza berdinak ezartzen hasi zirenean;
- bizi-itxaropenaren beherakada berria zenbait herrialdetan. Horietako batzuk Afrikako nazioak dira eta hein handi batean, arrazoi HIESaren izurria da. Baina bizi-itxaropenak okerrera egin du Errusian eta SESB ohiko beste eskualde batzuetan; ikertzaileek ondorioztatu dutenaren arabera, komunismo garaiko enplegu bete eta erlatiboki egonkorren gizartetik ziurtasun gutxiago duen merkatu ekonomiarako trantsizioak suposatzen duen traumagatik, adin erdiko gizonen kasuan batik bat.

► MADDISON 1997; MUNDUKO BANKUA 2003b

129. Hilkortasun-krisiak, 1960–2002

Jaiotze uneko bizi-itxaropena urtetan




• Diagramak aurrekoak baino zehaztasun handiagoz erakusten du jaiotze uneko bizi-itxaropenaren bilakaera zenbait herrialdetan eta herrialde multzotan 1960 eta 2002 arterako (zifrak hamarkadaka).

○ Pertsona ugari ikusi du herrialdeen arteko errenta diferentziak handitzen doazen bitartean, edo behinik behin murrizten ez diren bitartean, beste aldagai batzuek, bizi-itxaropenak bereziki, konbergentzia esanguratsua erakusten dutela. Diagrama honek ikuspuntu horren mugak agerian uzten ditu. Japonia munduko bizi-itxaropen handiena duen herrialde bihurtu den bitartean, -egun 81 urteren inguruan, beste edozein herrialdetakoa baino nabarmenki handiagoa-, urte batzuetan Sierra Leona izan da bizi-itxaropen baxuena zuen herrialdea (gaur egun 37 urte baino zertxobait gehiago), pixkanaka igotzen joan den arren eta orain Hego Afrikako hainbat herrialdetakoa baino apur bat handiagoa izan (<<128). Gainerako herrialde guztiak bi mutur horien artean daude. Mundua bere osotasunean 50etik 65era egin du gora 1960-1990 aldian eta zenbait eskualdetan are azkarrago. Aldaketa horiek haurren eta bularrekoen heriotza-tasen beherakadei oso lotuta daude. 1990ean bat-bateko aldaketa eman eta zenbait herrialdetan bizi-itxaropena era oso nabarian erortzen hasi zen. Garai horretan hilkortasun-krisia jasan zuen eskualde batek, SESB ohiak, bizi-itxaropenaren goranzko mugimendua berratu du berriki.

Baina Sahara Azpiko Afrikan GIBaren kutsaduraren hedatzeak eta ondorengo HIESak erabat aldatu du heriotza-tasen eredia. Heriotza-tasaren igoera latza gertatu da baxuena izan ohi duen adin taldeetan, heldu-gazteen artean alegia, eta nabarmenki altuagoa emakumeen artean gizonaen artean baino. Osasunaren Mundu Erakundeak Afrikako 15-44 urteko adin-taldean emak40 eta 60 artean HIESarekin erlazioaturiko arrazoiengatik dela kalkulatu du. Hori ndako heriotzen %nahikoa izan da aurreko hiru hamarkadetan igotako bizi-itxaropena hamarkada bakarrean murrizteko. Txiroei gehiago eragiten dien heinean, izurria sorrarazten lagundu duten desberdintasunak areagotzen dituela frogatzen duten datu ugari dago. Oraindik ezin daiteke jakin zenbat hedatu eta larrigotuko den izurria, baina 2004an zantzuak ez ziren onak.

► MUNDUKO BANKUA 2003b

130. Errentaren eta giza garapenaren bilakaera bateratua, 1975–2000



● Grafikoak, aukeratutako herrialde taldearentzat eta 1975etik aurrera, garapen mailarekiko nazioarteko desberdintasunak kalkulatzeko gehien erabiltzen diren bi neurrien bilakaera konbinatua erakusten du: *per capita* errenta eta bizi-itxaropena ($\ll 25$). Bilakaera-lerroek 6 behaketa erakusten dituzte, bakoitza bost urtekoa. Irteera puntua erronbo zuriz adierazia dator eta amaiera beltzez.

○ Diagramek garapenaren bi neurri arruntenaren inguruko herrialdeen esperientzia berriari aparteko aniztasuna erakusten dute. Ia konbinaketa guztiak ikus daitezke:


- errenta eta bizi-itxaropenaren hazkunde sendoa: AEB, Japonia, Espainia, Koreako Errepublikak, Sri Lanka eta Txina;
- bizi-itxaropenaren gorakada sendoa, errentaren hazkunde eskasa: Argentina, eta epealdiaren zati batean, Mexiko;
- bizi-itxaropenaren gorakada handia, errentaren beherakada: Nikaragua;
- bizi-itxaropenaren gorakada mantsoa, errentaren beherakada: Nigeria;
- bizi-itxaropenaren beherakada sendoa, errentaren hazkunde azkarra: Botswana;
- bizi-itxaropenaren eta errentaren beherakadak: Zimbabwe, Errusia.

Askok garapenaren bi kontzeptu horien artean harreman estua dagoela diote, bai hazkunde ekonomikoak osasun hobea ahalbidetzen duelako, bai osasun hobek (eta hezkuntzak) hazkundera suspertzen duelako. Baina aurkako adibide gehiegi dago harreman hori baldintzarik gabe onartzeko. Liluratu beharra dago Botswanako eta Nikaraguako kasuek erakusten duten harremanaren konplexutasunaren aurrean. 1975ean Nikaraguaren *per capita* errentak Botswanako hiru aldiz baino gehiago zen; 25 urte beranduago erabat kontrakoa gertatzen da. 1975ean bizi-itxaropena ia berdina zen bi herrialdeetan; orain nikaraguar batek Botswanako biztanle batek baino 32 urte gehiago bizitzea itxaron dezake!

► MUNDUKO BANKUA 2003b

131. Giza Garapenaren Indizearen epe luzerako konbergentzia, 1870–2001

Giza Garapenaren Indizea



- Diagramek 1870etik aurrerako Giza Garapenaren Indizearen maila erakusten dute herrialde multzo batentzat. Ezkerrekoa Nicholas Crafts-en ikerketetan oinarrituta dago eta eskuinekoa, bilakaera 2001. urtera arte eramaten duena, Garapenerako Nazio Batuen Programako (PNUD) kalkuluetan. GGI kalkulatzeko bi moduak ez dira erabat berdinak, hortaz, garrantzi txikiko hainbat kontraesan dago.

- UNDPk 1960az geroztik hainbat herrialderentzat kalkulatu du bere Giza Garapenaren Indizearen balioa. Azken boladan, herrialdeen lagin mugatu batentzat GGIaren epe luzeagorako kalkulua egin da eta emaitzek interes handia piztu dute.


Per capita errentaren inguruko nazioarteko dibergentziaren gorakadaren aldean, grafikoak denboraldi luze horretan Giza Garapenaren Indizeak nazioarte mailan konbergentziaranzko joera indartsua erakutsi duela adierazten du. Ironikoa da PNUdek duela hamar urte baino gehiago Giza Garapenaren Indizearen kontzeptua asmatu zuenak eta errenta-mailaren alderaketak egiteko EROSTEKO AHALMENERAREN PAREKOTASUNAREN metodologia erabiltzen tematu zenak, harrezkero nazio-errenta alderatuaren maila erlatiboetan kalkulatu izana munduko desberdintasuna, kanbio-tasen antzinako metodologia erabiliz. Arrazoia zifra hauek nazioarteko dibergentzia handiagoa erakusten dutela da eta eta hori mesedegarria izan da gobernuen esku-hartzearen eta birbanatzearen aldeko PNUDren mezuarentzat. Ez da ironia gutxiagokoa, GGI existitzen zenaren berririk agertu ez duen Nazioarteko Moneta Fondoak, duela gutxi GGIk agerian utzitako nazioarteko konbergentzia historikoa ospatu izana. Bere mezua sendotzen duelako da: orokorrean kapitalismo lehiakorrik soilik gara dezake mundua, eta inplizituki berdindu ere.

Ironia horiek estatistikak sarritan mezu estaliren bat laguntzeko erabili ohi direla gogorarazten digute, oportunitate estatistikoa egunero ematen dela eta praktika horretaz babestu beharra dagoela. Estatistikei jaramonik ez egitea ez da irtenbidea, zorrozki eta gogo kritikoz aztertzea baizik.

► CRAFTS 2000; PNUD 2003a

132. Aldaketa historikoak gizonezkoen eta emakumezkoen biztanlerian, 1800–2000

Gizonezkoen populazioaren ratioa emakumezkoen populazioarekiko



● Lerroek emakumezkoen populazioarekiko gizonezkoen populazioaren ratioa erakusten dute aukeratutako herrialde batzuentzat 1800etik aurrera. 1etik gorako zifraren esanahia gizonezkoen gehiengo dagoela da eta 1etik behera gehiengo emakumezkoena dela.

○ Autorearen esperientziaren arabera, munduko populazioan gizonezkoen gehiengo egotea da liburu honetan harridura gehien sortuko duena (<<28–32). Grafiko honek horren arrazoia ulertzea errazten du eta gehiengo hori 1965az geroztik (behar bada fenomeno hau agertu zen lehen aldian) zergatik hazi den ikustea. Garrantzitsuenak, noski, Indiako eta Txinako datuak dira, euren munduko populazioaren %37 baitira eta ondorioz eragin erabakigarria sortzen baitute zifra orokorrean. Indiak gizonezkoen gehiengo izan du XX. mende osoaren zehar. 1950az geroztik gehiengo hori handitu egin da emakumeek gero eta maizago jasaten dituzten tratatu txarregatik eta, berriki, hautazko abortuengatik ere. Txinak gizonezkoen etengabeko gehiengo izan du. Afrikan biztanle gehien duen herrialdea, Nigeria, gizonezkoen gehiengo duten Asiako beste herrialde batzuekin batera, 1950etik aurrera era azkarrean igaro da emakumezkoen gehiengo izatetik gizonezkoena izatera. Aldi berean, AEBetako eta Brasileko salbuespenekin, non XX. mendean zehar gizonezkoen gehiengotik emakumezkoenera pasa diren, neurri handi batean immigrazioak populazioaren artean duen garrantziaren beherakadaren ondorioz, emakumezkoen gehiengo duten beste hainbat herrialdek ez dute ratio honetan aldaketa nabarmenik izan. 1945az geroztik, Bigarren Mundu Gerran gizon ugari galdu zuten herrialdeei (Alemania eta Errusia bereziki) emakumezkoen gehiengo zorrozki murriztu zaie gerrateko belaunaldiak pixkanaka pisua galtzen joan diren heinean. Herrialde horiek guztiek aztertzeak etorkizun hurbilean, munduan gizonezkoen gehiengo gero eta handiagorako joerari buelta emateko aukera gutxi dagoela iradokitzen du.

► MITCHELL 1998a; 1998b, 1998d; MUNDUKO BANKUA 2003b

Datu-Iturriak

Oharra: liburu honetan erabilitako datu asko Internetetik jaso dira. Interneteko helbideak baliozkoak ziren 2003ko abenduan. Baina batzuetan orrialdeak desagertu egiten dira. Hala ere, oro har iturria aurki daiteke guneko erroko direktoriora joanez eta bertan bilaketa eginez. Ahal den neurrian, gaztelaniaz argitaratutako dokumentuak jarri dira. Hala ere, irakurleak jatorrizko web orrietan gaztelaniazko bertsioak bila ditzake, bereziki dokumentuenak eta nazioarteko erakundeek landutako datuenak.

ABS (Australian Bureau of Statistics) 2003, National Census 2001 (http://www.abs.gov.au/Ausstats/abs@census.nsf/Census_BCP_ASGC_View_Template?ReadForm&Expand=1).

Acheson, Donald et al. 1998, *Independent Inquiry into Inequalities in Health, Report*, (The Acheson Report), The Stationery Office, London.

ACNUR / UNHCR (Errefuxiatuen aldeko Nazio Batuen Ordezkaritza Gorena) 2003, *Statistics online* (<http://www.unhcr.ch/cgi-bin/taxis/vtx/statistics>).

Amnistia Internazionale 2003, Heriotza-zigorren aurkako web orria (<http://www.web.amnesty.org/rmp/dplibrary.nsf/current?openview>).

Andrienko, Yuri eta Sergei Guriev 2003, «Determinants of interregional mobility in Russia: evidence from panel data», *Economics of Transition*, 12. lib., 1. zbk., 2003.

Bongaarts, John, 2001, «Household Size and Composition in the Developing World», Population Council Policy Research Division Working Paper 144. zbk., 2001 (<http://www.popcouncil.org/pdfs/wp/144.pdf>).

Business Week, 2003, «Special Report on Executive Pay», *Business Week*, (21 abril 2003).

CDC (Center for Disease Control) 2003, *HIV/AIDS among African Americans* (<http://www.cdc.gov/hiv/pubs/Facts/afam.htm>).

Census of India 2001, web edizioa (<http://www.censusindia.net/results/provindia1.html>).

China Statistical Yearbook 2002, *China Statistical Yearbook 2002*, Beijing, Txinako Herri Errepublikako Gobernua.

Crafts, Nicholas, 2000, *Globalization and Growth in the Twentieth Century*, IMF Working Paper, WP/00/44, FMI, Washington DC.

Death Penalty Information Center, 2003, web guneko datuak (<http://www.deathpenaltyinfo.org/>).

Deininger, Klaus eta Lyn Squire, 1996, «A new data set measuring income inequality», Munduko Bankua, iraila, 1996 (http://www.worldbank.org/html/rdmg/grwthweb/growth_t.htm).

DHS (Demographic and Health Surveys) 2003, Country statistics (<http://www.measuredhs.com/>).

EBE-NBE (CEE-ONU), 2003, *Trends in Europe and North America: the statistical yearbook of the Economic Commission for Europe 2003* (http://www.unece.org/stats/trend/trend_h.htm, Table 4.5).

EIA / AEMA (Europako Ingurumen Agentzia) 2001, Adierazlea: Etxeen kopurua eta tamaina (http://themes.eea.eu.int/Sectors_and_activities/households/indicators/consumption/tab_factsheets_ILR).

EIN (Estatistikako Institutu Nazionala, Espainia), 2003, *Contabilidad Regional de España* (<http://www.ine.es/prensa/cre9502.xls>).

ELGE (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) (Development Assistance Committee), 2004, *Development Cooperation Report 2003*, OECD, Paris (http://www.oecd.org/document/9/0,2340,en_2649_33721_1893129_119687_1_1_1,00.html).

ELGE (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) 2003, *OECD Science, Technology and Industry Scoreboard: towards a knowledge-based economy* (<http://www1.oecd.org/publications/e-book/92-2001-04-1-2987/>).

ELGE–SOPEMI (OECD Continuous Reporting System on Migration), 2003, *Trends in International Migration 2003 edition*, OCDE, Paris (<http://oecdpublications.gfi-nb.com/cgi-bin/OECDBookShop.storefront/EN/product/812003061P1>).

EPI (Economic Policy Institute) 2003, The Data Zone (duela gutxiko datu ekonomikoak web honetan: <http://www.epinet.org>), Washington DC (produkzio alorreko langileen ordainsaria: http://www.epinet.org/datazone/02/ahe_2_4.pdf gutxieneko soldata: http://www.epinet.org/Issueguides/minwage/mw_val_1960-2001.pdf zuzendarien paga: http://www.epinet.org/content.cfm/webfeatures_snapshots_archive_2002_0724_snap07242002).

Eschbach, Karl, Jacqueline Hagan eta Nestor Rodríguez, 2001 «Causes and Trends in Migrant Deaths along the U.S.–Mexico Border, 1985–1998», University of Houston Center for Immigration Research, Houston (<http://www.uh.edu/cir/death.htm>)

Eurostat, 2002, *Regions: Statistical Yearbook 2002*, CDRom bertsioa.

FAO (Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea), 2003, *The State of Food Insecurity in the World: monitoring progress towards the World Food Summit and Millennium Development Goals*, FAO, Erroma (<http://www.fao.org/docrep/006/j0083e/j0083e00.htm>).

FAOSTAT 2003a, Agriculture Data, Agricultural Production, Crops primary (<http://apps.fao.org/page/collections?subset=agriculture>).

FAOSTAT 2003b, Agricultural Data, Food Balance Sheets (<http://apps.fao.org/page/collections?subset=agriculture>).

Ferranti, David de, Francisco Ferreira, Guillermo E. Parry eta Michael Walton *et al.*, 2003, *Inequality in Latin America and the Caribbean: Breaking with history?*, Munduko Bankua, Washington DC.

Filmer, Deon, 1995, «Estimating the world at work», *Background Report* para el Banco Mundial, *Informe sobre el Desarrollo Mundial 1995*, Garapenerako Ekonomiaren Presidenteordearen Bulegoa, Munduko Bankua, Washington DC.

Filmer, Deon, Elizabeth M. King eta Lant Pritchett, 1998, *Gender Disparity in South Asia: Comparisons between and within Countries*, (ikerketa-lana), Banco Mundial, Washington, DC.

Global Financial Data, 2003, (datu historiko-ekonomikoak web gune honetan: <http://www.globalfindata.com>).

Goskomstat, 2003, (iturri xehaturako ikus Konstantin Gluschenko, «Market integration in Russia during the transformation years», *Economics of Transition*, 11. lib. 3. zbk., uztaila, 2003, 411–434).

Government of India Planning Commission 2001, *National Human Development Report 2001* (<http://planningcommission.nic.in/reports/genrep/nhdrep/nhdreportf.htm>).

HRSA (Health Resources and Services Administration, US Department of Health and Human Services), 2002, *Women's Health USA 2002* (<http://www.mchb.hrsa.gov/whusa02/>).

IBGE (Instituto Brasileiro do Geografia e Estatística), 2003, adierazle ekonomikoak web gunean, (<http://www.ibge.gov.br/>).

ILGA (Gayen eta Lesbianen Nazioarteko Elkartea), 2003, *World Legal Survey* datuak web orrian (http://www.ilga.org/Information/Legal_survey/ilga_world_legal_survey%20introduction.htm).

INEGI (Estatistika, Geografia eta Informatika Institutu Nazionala, Mexiko) 2003 (<http://www.inegi.gob.mx/est/default.asp?c=119>)

International Centre for Prison Studies, 2003, King's College, London University, World Prison Brief (http://www.kcl.ac.uk/depsta/rel/icps/worldbrief/world_brief.html).

Kislitsyna, Olga, 2003, «Income Inequality in Russia during Transition: how can it be explained?», Economics Education and Research Consortium, Working Paper No. 03/08, Mosku (http://www.eerc.ru/publications/workpapers/WP_03-08E.pdf).

LANE / OIT (Lanaren Nazioarteko Erakundea), 2003a, *Key Indicators of the Labour Market*, OIT, Geneva.
(<http://www.ilo.org/public/english/employment/strat/kilm/index.htm>).

LANE / OIT (Lanaren Nazioarteko Erakundea) OIT, 2003b, LABORSTA datu-basea (<http://laborsta.ilo.org/>).

Maddison, Angus, 1997, *La Economía Mundial 1820–1992: análisis y estadísticas*, OCDE, París.

Maddison, Angus, 2002, *La Economía Mundial: una perspectiva milenaria*, Mundi-Prensa Edizioak, Madril.

Martin, Philip, 2003, *Bordering on Control: Combating Irregular Migration in North America and Europe*,: International Organization for Migration, Geneva
(http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/EN/mrs_13_2003.pdf)

Merrill Lynch/Cap Gemini Ernst & Young, 2003, *The World Wealth Report 2003*
(http://www.capgemini.pt/novidades/documentos/World%20Wealth%20Report_2003.pdf).

Mexikoko Bankua, 2004, Informazio Finantzarioa eta Ekonomikoa, Adierazle Ekonomikoak eta Finantzarioak, Pagamendu Balantza, web orrian eskuragarri
(<http://www.banxico.org.mx/eInfoFinanciera/FSinfoFinanciera.html>).

Mitchell, B.R. eta Phyllis Deane, 1962, *Abstract of British Historical Statistics*, Cambridge University Press, Cambridge.

Mitchell, B.R., 1998a, *International Historical Statistics: Europe 1750–1993 (fourth edition)*, Macmillan Reference, London.

Mitchell, B.R., 1998b, *International Historical Statistics: The Americas 1750–1993 (fourth edition)*, Macmillan Reference, London.

Mitchell, B.R., 1998d, *International Historical Statistics: Africa, Asia and Oceania 1750–1993 (third edition)*, Macmillan Reference, London.

MME / OMC (Merkataritzaren Mundu Erakundea), 2003, *International Trade Statistics*, lineako bertsioa
(http://www.wto.org/english/res_e/statis_e/its2003_e/its03_toc_e.htm).

Munduko Baliabideen Institutua, 2004, *Recursos Mundiales 2004*, Instituto de Recursos Mundiales eta ECOESPAÑA, Washington DC eta Madril
(http://pubs.wri.org/pubs_pdf.cfm?PubID=3764)

Munduko Bankua, 1999, *Informe sobre el Desarrollo Mundial 1998–99*, Mundi-Prensa Edizioak, Madril.

Munduko Bankua, 2000, *World Development Indicators 2000*, CD ROM, Munduko Bankua, Washington DC.

Munduko Bankua, 2003a, *Global Development Finance 2003*, CD ROM, Munduko Bankua, Washington DC.

Munduko Bankua, 2003b, *World Development Indicators 2003*, CD ROM, Munduko Bankua, Washington DC.

Munduko Bankua, 2003d, *Global Economic Prospects and the Developing Countries*, Munduko Bankua, Washington DC.

Munduko Bankua 2003e, Edstats lineako datu-basea
(<http://www1.worldbank.org/education/edstats/>).

Munduko Bankua, 2003f, *Annual Report*, 6. Kapituluak,
(http://www.worldbank.org/annualreport/2003/pdf/v1_9.pdf).

NBE / ONU (Nazio Batuen Erakundea), 2003, *The World's Women 2000: trends and statistics*, Nazio Batuek, New York
(<http://unstats.un.org/unsd/demographic/ww2000/tables.htm>).

NLGTf (National Lesbian and Gay Task Force, USA), 2003, datuak AEBetako estatuei buruzko web gunean
(<http://www.ngltf.org/downloads/civilrightsmap.pdf>).

NMF / FMI (Nazioarteko Moneta Fondoa), 2003a, *Annual Report*
(<http://www.imf.org/external/pubs/ft/ar/2003/eng/index.htm>).

NMF / FMI (Nazioarteko Moneta Fundoa), 2003b, *International Financial Statistics Yearbook*, NMF, Washington DC.

OME / OMS (Osasunaren Mundu Erakundea), 2002, *Informe sobre la salud en el mundo 2002*, Geneva (<http://www.who.int/whr/2002/es/index.html>).

OME / OMS (Osasunaren Mundu Erakundea), 2003, *Informe sobre la salud en el mundo 2003*, Geneva (<http://www.who.int/whr/2003/es/index.html>).

Palestinian Refugee Research Net, 2000, 'Palestinian Refugees: an overview', artikulua web gunean, (<http://www.arts.mcgill.ca/MEPP/PRRN/proverview.html>).

PNUD / UNDP (Garapenerako Nazio Batuen Programa) (United Nations Development Program) 1995, *Informe sobre el Desarrollo Humano 1995*, Harla S.A. de C.V., Mexiko.

PNUD / UNDP (Garapenerako Nazio Batuen Programa) (United Nations Development Program), 2001, *Indonesia: Towards a New Consensus: Democracy and Human Development* (<http://www.undp.or.id/publications/ihdr2001/>).

PNUD / UNDP (Garapenerako Nazio Batuen Programa) (United Nations Development Program), 2003a, *Informe sobre el Desarrollo Humano*, Mundi-Prensa Edizioak, (eskuragarri web gune honetan: <http://www.undp.org>).

PNUD / UNDP (Garapenerako Nazio Batuen Programa) (United Nations Development Program) (Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo), 2003b, *Novo Atlas do Desenvolvimento no Brasil* (<http://www.undp.org.br/IDHM-BR%20Atlas%20Webpage/index.asp>).

PNUD / UNDP Txina, 2002, *The China Human Development Report 2002* (<http://www.unchina.org/undp/documents/HDR/UNDP%20China%20National%20Human%20Development%20Report%202002.htm>).

PNUD / UNDP Egipto, 2003, *Egypt Human Development Report 2002–2003* (http://www.undp.org.eg/publications/ENHDR_2003/NHDR2003.htm).

PNUD / UNDP Mexiko, 2002, *Informe sobre Desarrollo Humano México 2002* (<http://www.undp.org.mx/desarrollohumano/index.html>).

PNUD / UNDP Hegoafrika, 2000, *Transformation for Human Development* (<http://www.undp.org.za/sahdr2000/sahdr20002.html>) (Andrew Whiteford-en eta Dirk Ernst van Seventer-en datuetan oinarrituta, *Winners and Losers, South Africa's Changing Income Distribution*, WEFA Southern Africa, Pretoria, Hegoafrika, 1999).

SAIRR (South African Institute of Race Relations), 1990, *Race Relations Survey 1989/90*, SAIRR Johannesburg.

Schafer, A., 2000, «Regularities in Travel Demand: An International Perspective», *Journal of Transportation and Statistics* 3, 3. zbk. (2000), 1–31.

Schafer, A., 1998, «The Global Demand for Motorized Mobility», *Transportation Research A* 32, 6. zbk. (1998), 455–477.

SCI (Statistical Centre of Iran), 1997, *Iran Statistical Yearbook 1997*, SCI, Tehran.

Sentencing Project, The, 2002, Washington DC, US Prison Populations – Trends and Implications (<http://www.sentencingproject.org/pdfs/1044.pdf>).

SIPRI (Stockholm International Peace Research Institute), 2003, *SIPRI Yearbook 2000: Armaments, Disarmament and International Security*, Appendix 13A (<http://projects.sipri.se/armstrade/app13A2003.pdf>).

South Africa Ministry of Finance, 2003, «Socio-economic and demographic profiles of provinces» (www.finance.gov.za/documents/ifr/2003/ann_h.pdf).

Statistics Canada, 2003, Proportion of foreign-born population, 2001 Census (<http://www.statcan.ca/english/Pgdb/demo46a.htm>).

UBS (Union des Banques Suisses) (Suitzako Bankuen Batasuna) 2003, *Prices and Earnings: a comparison of purchasing power around the globe/ 2003 edition*, UBS, Zurich (http://www.ubs.com/e/media_overview/media_global/mediareleases/20030819a.html).

UNCTAD (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia), 1999, *Handbook of Trade and Development Statistics*, UNCTAD, Geneva.

UNCTAD (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia), 2003a, *Handbook of Statistics On-line*, Table 3.2 (<http://www.unctad.org/Templates/Page.asp?intItemID=1890&lang=1>).

UNCTAD (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia), 2003b, *World Investment Report 2003*, Naciones Unidas, Geneva (eskuragarri ere web gune honetan: <http://www.unctad.org/Templates/webflyer.asp?docid=3785&intItemID=2527&lang=1>).

UNFPA (Biztanleriaren Nazio Batuen Fondoa), 1997, *India: Towards Population and Development Goals*, Oxford University Press, New Delhi.

United States Bureau of Labor Statistics and Census Bureau, 2003, *Annual Demographic Survey*, Table HINC-05 (http://ferret.bls.census.gov/macro/032002/hhinc/new05_000.htm).

United States Census Bureau, 2003a, Historical Income Tables, Table IE-3 (<http://www.census.gov/hhes/income/histinc/ie3.html>).

United States Census Bureau, 2003b, Annual Demographic Survey, Table HINC-05 (http://ferret.bls.census.gov/macro/032002/hhinc/new05_000.htm).

United States Census Bureau, 2003d, *Statistical Abstract of the United States 2003* (<http://www.census.gov/prod/2003pubs/02statab/vitstat.pdf>)

United States Census Bureau 2003e (Campbell J. Gibson eta Emily Lennon), «Historical Census Statistics on the Foreign-born Population of the United States: 1950–1990» (<http://www.census.gov/population/www/documentation/twps0029/twps0029.html>).

United States Census Bureau 2003f (Tammany J. Mulder *et. al.*), U.S. «Census Bureau Measurement of Net International Migration to the United States: 1990 to 2000» (<http://www.census.gov/population/documentation/twps0051/twps0051.pdf>)

United States Census Bureau 2003f, mapas de la población hispana (<http://www.census.gov/population/cen2000/atlas/censr01-111.pdf>)

United States Census Bureau, 2003g, *per capita* errentaren mapak konderriko (http://factfinder.census.gov/servlet/ThematicMapFramesetServlet?geo_id=01000US&ds_name=DEC_2000_SF3_U&tm_name=DEC_2000_SF3_U_M0270&_dBy=040&_MapEvent=displayBy&_lang=en&_sse=on).

United States Council of Economic Advisers, 1998, *Changing America: indicators of social and economic well-being by race and hispanic origin* (<http://www.census.gov/population/www/socdemo/immigration.html>).

United States Council of Economic Advisers, 2003, *Economic Report of the President 2003*, (<http://w3.access.gpo.gov/eop/>).

United States Department of Homeland Security, 2003, Immigration Information – Enforcement (<http://uscis.gov/graphics/shared/aboutus/statistics/Enforce.htm>).

United States Department of Justice, 2003, Bureau of Justice Statistics Bulletin, abril 2003, Prison and Jail Inmates at Midyear 2002 (<http://www.ojp.gov/bjs/pub/pdf/pjim02.pdf>).

Wood, Adrian, 1994, *North–South Employment and Inequality*, Oxford University Press, Oxford.

World Business Council for Sustainable Development, 2001, *Mobility 2001* (<http://www.wbcsdmobility.org/publications/mobility2001.asp>) (datu originaletarako ikus Schafer 1998 eta Schafer 2000).